

DURANGOKO ESKUALDE EGITURAREN LURRALDEAREN ZATIKO PLANA PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGO



BEHIN BETIKO ONESPENAREN AGIRIA

I. HIRIGINTZA INFORMAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

2011ko UZTAILA



EZKIAGA ARQUITECTURA SOCIEDAD Y TERRITORIO, S.L.

I. HIRIGINTZA INFORMAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

AURKIBIDEA

I Aurkezpena

II Lurralde-azterketa

1. Aktibo naturalak eta ingurune fisikoa	1
1.1. Sarrera	1
1.2. Ingurumen-dinamikak	2
1.3. Dinamika biozenotikoa	6
1.4. Ingurunearen kudeaketa	8
2. Lurralde-egitura eta lurzoruaren erabilerak	14
2.1. Sarrera	14
2.2. Lurralde-egituraren ezaugarri orokorrak eta lurzoruaren erabileren antolamendu espaziala	15
2.3. Erabileren eta dinamiken dualtasuna	17
2.4. Baso- eta nekazaritza- nahiz abeltzaintza-erabilerak ..	18
2.4.1. Baso-erabilerak	19
2.4.2. Zelaiak eta laboreak	27
2.5. Hiri- eta industria-erabilerak eta erauzketa-jarduerak ..	31
2.5.1. Hiriguneak eta landa-ezarkuntzak	32
2.5.2. Industria-lurzoruak eta erauzketa-jarduera	36
2.6. Lurralde-unitateak eta lurzoruaren erabilerak	39
2.6.1. Oiz mendiko gailurrak eta isurialdeak	39
2.6.2. Ibaizabal-Zalduren alubioi-hondoa	40
2.6.3. Durango hegoaldeko mendiak eta haranak	41
2.6.4. Ibaizabalen ezkerreko ertzeko landazabalak eta haranak	42
2.6.5. Zumelegi ibaiaren arroa	42
2.6.6. Ibaizabalen eskuineko ertzeko landazabalak eta haranak	43
3. Garraioak	45

3.1.	Bide-sarea.....	45
3.1.1.	Sarearen hierarkizazioa	45
3.1.2.	Diagnostikoa	48
3.2.	Trenbide-sarea.....	51
3.2.1.	Euskotrenen sarea.....	51
3.2.2.	AHTren etorkizuneko sarea	51
3.2.3.	Diagnostikoa	52
3.3.	Talde-garraioa.....	52
3.3.1.	Trenbidea, bidaiarien berebiziko garraiobidea	52
3.3.2.	Autobuseko garraioa	53
3.3.3.	Merkantzien garraioa	53
3.3.4.	Diagnostikoa	54
4.	Oinarrizko azpiegiturak	55
4.1.	Hornidura	55
4.2.	Saneamendua.....	55
4.3.	Hondakin solidoak.....	56
4.4.	Energia (elektrizitatea eta gasa)	57
4.4.1.	Elektrizitatea.....	58
4.4.2.	Gasa.....	59
4.5.	Telekomunikazioak	59
5.	Ekipamenduak	61
5.1.	Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza-ekipamenduak ..	61
5.2.	Osasun-ekipamenduak	65
5.3.	Kultura-ekipamendua	67
5.4.	Kirol-ekipamenduak	70
5.5.	Gizarte-ongizateko ekipamenduak.....	72

III Azterketa sozioekonomikoa

1	Dinamika demografikoa	76
---	-----------------------------	----

2	Egitura ekonomikoa	86
2.1	Espezializazio ekonomikoaren eredua.....	86
2.2	Nekazaritza-sektorea	88
2.3	Abeltzaintza: teknifikatze- eta modernatze-prozesuan murgildutako sektorea.....	94
2.4	Baso-sektorea	96
2.5	Industria jarduera, dinamika ekonomikoaren bizkarrezurra	99
2.6	Turismo-sektorea: kalitatearen aldeko apustua	104
2.7	Txikizkako merkataritza susperraldia	107
2.8	Lan-merkatua	109

IV Hirigintza-azterketa

1	Hirigintza-planeamendua.....	113
1.1	Sarrera	113
1.2	Eremua.....	115
2	Durangoko Eskualde Egituran indarrean dagoen udal-planeamendua	118
2.1	Indarreko udal-planeamendua	118
2.2	Lurzoruaren sailkapena indarreko planeamenduan...	120
2.3	Egoitza-lurzorua	121
2.4	Jarduera ekonomikoetarako lurzorua.....	124
2.5	Lurzoru urbanizaezina.....	127
	Ondarearen laburpen-fitxa.....	128
3	Kultura-ondarea	129
4	Etxebizitza eta higiezin merkatua	138

AURKEZPENA

Agiri hau Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana da eta Bizkaiko Foru Aldundiak formulatu du, "Ezquiaga Arquitectura, Sociedad y Territorio S.L." enpresaren laguntza teknikoarekin.

2003ko irailaren 5ean, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua sartu zen indarrean; dekretu horrek Lurraldearen Zatiko Planaek jasan beharreko Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluaziorako prozedura arautu du, EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorrean ezarritakoa.

183/2003 Dekretuko Bigarren Xedapen Iragankorrean eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate Sailburuordetzak emandako erantzuna aintzat hartuta azaltzen den Lurraldearen Egitamu hau Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazioaren menpe jartzen da, eta garaturiko Ingurumen-eraginaren Azterlanean egindako iradokizunak daude jasota.

Lurraldearen Zatiko Planaaren agiri honetan, horrenbestez, jasota daude Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanak emandako gomendioak eta eragindako aldaketak, arloko txostenak eta EAEko ihardutze-sailen txostenak.

Agiriak osatzen duen informazioaren multzoa, bestalde, Eskualde Egituraren interpretazio laburtua eskaintzeko borondatearekin antolatu da; horrela, lurralde-antolamenduko proposamenaren oinarri objetiboak euskarritu ahal izango dira.

EAEko lurralde-antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak EAEri arlo honetan eratxikitako eskumena garatu du, eta gainera, hori garatzeko helburuak, tresnak eta prozedurak ezarri ditu.

Lege horretako 2. artikuluan, lurralde-antolamenduaren tresnak ezartzen dira:

- a) Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onetsitako *Lurralde Antolamenduko Artezpideen* (LAA) helburua Autonomia Erkidegoko lurralde-eremu osoaren baterako antolamendua egitea da, hain zuzen ere, erreferentziako esparru orokorra ezartzea, lurraldea antolatzeko gainerako tresnak eta hirigintza-antolamenduko egitamuak formulatzeko, baita lurraldean eragina duten egitamu, programa eta ekintza guztiak formulatzeko ere, herri-administrazioek (autonomikoa, foru-administrazioa eta udalerrikoa) garatzen dituztenak.
- b) *Lurraldearen Zatiko Plana* (LZP) helburua LAAak garatzea da, azken tresna horrek mugaturiko udalerriz gaindiko eremuetan edo zonetan, eta horrek ezarritako irizpideak zehazten dituzte.
- c) *Lurraldearen Arloko Plana* (LAP) lurraldean eragina duten egitamuak dira; Eusko Jaurlaritzako sailek lantzen dituzte, azken horrek erabakita, eta lurralde historikoetako foru-organismoek ere lantzen dituzte.

LZPen edukia orokorrean eta malgutasunez zehazten da, egitamuok era askotako errealitateetara aplikatu ahal izateko; adibidez, hiri- nahiz landa-eremuetara, itsasertzetara edo metropoli-eremuetara. Ez da legezko helbururik finkatu lurraldea antolatzeko tresna mota horretarako, baina horren xedapenak eta agiriak zehatz ezarrita daude:

- a) Antolamenduaren helburuak zehaztea, lurraldearen oraingo egoeraren, egoera sozioekonomikoaren eta bilakaera-aukeren azterketan oinarrituz.
- b) Azpiegitura handiak euskarritzeko baliozkoak diren espazio handiak adieraztea, euren ezaugarriak azalduz.
- c) Egitamuan jasotako eremurako edo zonarako interes komuneak diren ekipamenduen kokalekua erabakitzea.

- d) Hirigintza-antolamenduak aintzat hartu beharreko irizpideak, printzipioak eta arau orokorrak ezartzea.
- e) Birmoldatu, suspertu edo birgaitu behar diren espazioak zehaztea, horiek ez narriatzeko edo beste erabilera batzuetarako (guztiz edo neurri batean desberdinak diren erabilerak) suspertu ahal izateko; halaber, hori lortzeko garatu behar diren programak eta horiek sustatzeko laguntza-neurriak ere zehaztea.
- f) Honako helburu hauetarikoren baterako gorde behar diren lurzoru-azalerak kuantifikatzea:
- Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza, sustapen publikoa eta pribatua duten etxebizitzak, edo etorkizunean azken prezioa arauketa bereziaren bidez mugatuta eduki dezaketen gainerako guztiak.
 - Industria-lurzoruaren sustapen publikoa, urbanizaturiko industrialdeak eratu ahal izateko.
- g) LAAetan jasotako xedapenak garatzeko behar diren irizpideak, arauak eta printzipioak zehaztea.

Halaber, indarreko LAAak betetzeko, honako hau ere zehatzen du:

- Eskualde Egituraren barruko udalerri bakoitzari dagokion egoitza-erabilera eskaintzaren zenbaketa.
- Bigarren etxebizitzarako lurzoru-eskaintzaren gehieneko mugak.

Lurraldearen Zatiko Planaetarako ezarrita legerian eta aurreko paragrafoetan jasota dagoenaren arabera, Durangoko Eskualde Egiturako LZP honek ondoren adierazitako agiriok ditu:

- I. LIBURUKIA: Hirigintza Informazioa eta Diagnostikoa.

Helburua, izan ere, eremuko lurralde-antolamenduaren eredua zehazteko aukera ematen duten elementuak eta prozesuak aztertzea da, oraingo diagnostikoan oinarrituz.

Lan honen helburua hausnarketa-esparrua eratzea da, Egitamuko antolamendu-proposamenak eta arauen aplikazioa garatu ahal izateko. Horrenbestez, LZParen lanketaren lehenengo fasean (Hirigintza Informazioa eta Diagnostikoa) egindako azterketak laburtzeko agiritzat har daiteke, agiri honetarako Dinamika Demografikoaren eta Hirigintza Planeamenduaren datuak gaurkotuta.

- II. LIBURUKIA: Antolamendu Memoria.

Proposaturiko lurralde-proiektuaren helburuak eta irizpideak jasotzen ditu, baita horiek lortzeko garatu diren ekintzak eta neurriak ere, zehatz azalduta.

Honen barruan, Lurraldearen Zatiko Plana oinarritzen duten garapen iraunkorreko irizpideak azaldu eta justifikatu egiten dira, baita esparru horren barruan garatzen diren jarduketa guztiak ere.

- III. LIBURUKIA: Ekonomia eta Finantza Ikerketa eta Jarduketa Programa

Honen barruan, Egitamuak hasitako ekintzen zenbatespena eta horiek garatzeko lehentasun-ordena jasotzen dira. Ez da zehazten ekintzen denbora-programazioa, hori inplikaturiko administrazioek egingo baitute; izan ere, horiek garatzeko sekuentzia-ordenarik egokiena finkatzen da, proposaturiko Lurralde Eremua lortzeko.

- IV. LIBURUKIA: Antolamendu Arauak

Egitamua Eskualde Proiektua lortzeko ezartzen dituen antolamendua eta kudeaketa daude jasota, baita horien ezaugarriak ere; xedapen bakoitzaren irismena bereizten da: zuzeneko aplikazioa duten xedapenak herri-administrazioetarako eta norbanakoentzat, helburuei dagokienez lotesleak diren xedapenak eta xedapen adierazleak.

- V. LIBURUKIA: Udal Plangintzaren gaineko Eraginen Sintesia

Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Egitamua osatzen duten ebazpen lotesleak eta araudiek Udal Plangintza eta Lurraldearen Antolamendurako Arloko planetan sortutako eraginak jasotzen ditu, modu sistematiko eta laburtuan.

- VI. eta VII. LIBURUKIAK: Planoak: Informazioa eta Antolamendua

Informazio, antolamendu eta proposameneko oinarritzko kartografia; eskala egokian dago, edukia ondo ulertzeko, eta bertan haxe azaltzen da: lurzoruaren hiri- nahiz landa-erabileren antolamendua, baliabide naturalen eta paisaiaren babesa zein hobekuntza, eta azpiegiturak zuzen garatzeko erreserbak.

- VIII. LIBURUKIA: Ingurumen-eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlana

Eusko Jaurlaritzaren 183/2003 Dekretuaren arabera idatzita, azterlan honetan LPPea aurrez ikusitako jarduketek izan ditzaketen eragin garrantzitsuak aztertu eta ebaluatzen dira eta,

horren ondorioz, ezarri beharko diren neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak planteatzen dira.

Dokumentu honek zenbait aldaketa ditu hasieran onartutako dokumentuari dagokionez, dokumentua jendaurrean jarri zen epean aurkeztu ziren alegazio batzuen edukia onartu delako eta Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aginduzko txostenean eta Alde Funtzionalaren eremuan interesak dituzten erakundeen txostenetan adierazitako baldintzak eta gomendioak sartu direlako.

Beste alde batetik, dokumentua eguneratu egin da, dauden iturriak, batez ere Memoriakoak, kontuan hartuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Plangintzarako GIS aplikazioko 2008ko abenduko datuak hartu dira LZParen agiria egin eta gero indarrean sartu diren lege-aldaketa eta plan sektorial batzuk jaso dira.

Azkenik, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterlana ingurumenaren gaineko eraginaren aurretiko txostenaren eskakizunetara egokitu da. Gainera, Lurralde Plan Partzialaren hasierako proposamenen aldaketei dagozkien ingurumenaren gaineko ebaluazioak sartu dira.

II. LURRALDE AZTERKETA

1. AKTIBO NATURALAK ETA INGURUNE FISIKOA

1.1 Sarrera.

LZP honetan egindako Ingurune fisikoaren eta paisaiaren lurralde-azterketa, baita horren eraginezko diagnostikoa ere, aspaldion adostasun orokorra lortu duten printzipio batzuetan oinarritzen dira:

- Lurraldea eta paisaia euskarri edo agertoki aldaezintzat hartzen dituen ideia gainditzea; ulermen berrian, egitura batzuen arabera kudeaturiko eta euskarritutako espaziotzat hartzen dira; egitura horien artean, nekazaritzakoak eta, kasu honetan, *baserria* funtsezkoak dira.
- Ingurumena garapen ekonomikorako eta bizi-kalitaterako funtsezko faktoretzat hartzea. Ingurumen-balioak eskubideak dira eta gizarteak ez die ukorik egin behar (*Ingurumenarekiko giza eskubidearen Bizkaiko adierazpena*).
- Politika sektorialetan eta lurralde-politiketan, baita jardueren planifikazioan eta horiek kokatzean ere (*Ingurumenaren arloko VI. Ekintza Programa*), ingurumena babesteko neurriak sartzea komenigarria izatea.
- Eragin negatiboak ekiditean soilik oinarrituriko betiko jarrera gainditzea eta ingurune naturalaren edota landa ingurunearen gainera esku-hartze positiboko eragiketak abiatzea.

1.2. Ingurumen-dinamikak

Durangoko Eskualde Egitura bi ardatz nagusik mugatzen dute: iparraldetik Bizkaiko sinklinorioak eta hegoaldetik kanpoaldeko antiklinorioaren hegoaldeko alderdia. Antolamendu geomorfologiko horrek lurraldearen fisiografia eragiten du, IM-HE igarobide handi batean oinarrituz, eta azken horretan, Ibaizabalen ibai-ardatza eta biztanlegune nagusiak euskarritzen dira. Bi aldeetan, Oizen eta Aramotz-Urkiola-Anbotoren mendi-hesiek ixten dute eskualdea, desnibel handiko antolamendu topografikoarekin. Maldak oso handiak dira eta faktore hori erabakigarria da zonako harrera-gaitasunean, eta, bertan, biztanleria-dentsitate handiak erabilera-lehia handia ezartzen du espazio urrietan.

Litologia anitzak daude, bai ezaugarrien eta bai iraunkortasun mailaren aldetik; horiek malda gogorreko espazioan eta prezipitazio handiko episodiodun klima ozeanikoan daude, eta horrela, ingurunearen dinamika geomorfologikoa aktiboa da; horren eraginkortasun maila lurzoruen erabileren arabera da. Horri dagokionez, baso autoktonoak urritzearen ondorioz, Durangoko Eskualde Egiturako bi arazo nagusienetarikoak sortzen dira: maldako prozesuak eta lurzoruen higadura.

Maldako prozesuak uraren eraginari eta litologia oso zaurgarrien (Kretazeoko flysch izeneko edo eraketa detritikoak) multzo baten presentziari loturik daude. Horietan, ehunduraren ezaugarriei, egitura-faktoreak gehitzen zaizkie, adibidez, apurtze maila handia, estratifikazio-planoen jarraitasunik eza edo inklinazioen nahiz malden arteko batasuna; horrek guztiak ahalmen natural handia islatzen du, halako prozesuetarako. Ahalmen hori baso- eta abeltzaintza-erabilera intentsiboari loturiko landare-estaldura urria egotearen eraginpean dago, baita malda handiko zonetan baso-bideak irekitzearen edo errepideak egitearen eraginpean ere.

Lurzoruen galtzeari dagokionez, kasu batzuetan baso-erabilerak, erasokorra denean, landare-paisaia aldarazten du, eta, gainera, higadura-prozesuak ere eragiten ditu, lurzoruen gaitasun agrologikoan eragina duten prozesuak.

Horren ondorioz, ingurune geomorfologikoak prozesu oso biziak ditu, Ibaizabalen igarobideko ertzei loturiko malda handiko zonetan —batez ere, Oizen hegoaldeko isurialdean, Aramotz-Urkiola-Anboto-Udalaitz hesiko

maldetan edo irtengune topografiko txikiak haran-hondoekin lotzen dituzten isurialdeetan—. Halaber, aipagarria da ibai-prozesuen eta maldako prozesuen arteko interferentzia, horiek elkar elikatzen baitute maiztasun baxuko eta intentsitate altuko muturreko gertakarietan, eta, horrela, nabarmendu egiten da higadura-ahalmena.

Lurralde Antolamenduko Jarraibideen kezka nagusienetarikoak, izatez, prozesu eta arrisku geomorfologikoak dira; izan ere, jarduerak lurralde-zati bakoitzeko arriskuaren arabera mugatzen dituzten Antolamendu Kategoriei gainjarritako baldintzetarikoak dira. Lurzoru-galerak ahalik eta gehien murrizteko, kontserbazio-estrategiak sortu eta garatu behar dira, eta, horretarako, arriskuen kartografia zehatza egin eta baso-jardueran hobekuntzak egin behar dira.



Hala eta guztiz ere, arrisku handiko ingurunea izan arren, lehen komentatu diren prozesuen eraginez, ezin da esan naturaren aldetik ingurune ahula denik; izan ere, prozesuak landare-estaldura ezabatzearen ondoriozkoak dira, eta, landarediak espazioa berriro kolonizatzen duenean, higaduren eta masako mugimenduen eraginezko galerak nabarmen murrizten dira, horrela, prozesu urriko dinamika biostasikoa hasten da. Horrenbestez, suspertze-gaitasun handiko ingurunea da, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta.

Urari dagokionez, ondasun ugaria da, zonan prezipitazioak ugariak izateari eta urtaroen arabera banaketa orekatua izateari esker. Baina horrek ez du esan nahi agortu ezineko baliabidea edo beti erabili ahal izango den baliabidea denik. Zonako ubideen erregulazio urriaren ondorioz, egoera meteorologikoen aldaketen arabera, urtean zehar gorabehera handiak egoten dira emarietan; aldaketa horien eraginez, hazkunde handiak edo muturreko murriztapenak egon daitezke uren mailan, eta horrek eragin nabariak izaten ditu lurraldean.

Alde batetik, eta biztanleguneen horniduran duen zuzeneko eraginari dagokionez, beharrezkoa da hornidura segurtatzea, baina hori ezin daiteke iraunkortasunez bermatu gainazaleko urak erakarrita bakarrik; beraz, lurpeko urak ikertu eta ustiatu egin dira, horiexek baitira zonako kapital garrantzitsuenetarikoak, ugaritasuna eta baliabidearen kalitatea aintzat hartuta. Horri esker, oraingo beharrianak eta hirietako nahiz industriako eskariaren gorakada (segurutzat, epe ertainean sortuko dena) guztiz babestuta daude.

Bestalde, ibaiek batzuetan izaten dituzten goraldien ondorioei dagokienez, horiek oso arriskutsuak dira eta giza jarduketek guztiz nabarmentzen dituzte goraldi horien ondorioak. Alderdi horretatik, kontuan hartu behar da zonako erliebeak, bere eraketaren eraginez, uholde-izaera nabaria ematen diela ibaiari: malda handiko ubideek desnibel nabarmenak gainditzen dituzte distantzia laburrean; prezipitazioen hazkundeari ia berehalako erantzuna ematen dioten arroetako isurketa-koefiziente altuak; oso hierarkizatuak ez diren drainatze-sareak; elkarrekin perpendikularretara lotzen diren ibilguak (presako toki-ondorioak sortuta), etab.

Dena den, Durangoko Eskualde Egituran izaten diren uholdeen eraginezko galera itzelak jasateko arrisku handia sortzen duten faktore nagusiak ez dira

horiek. Izan ere, Eskualde Egitura balizko uholderen baten ondorioekiko zaurgarri bihurtzen duten faktore nagusiak giza esku-hartze desegokiak eta arro osoan banaturik daudenak dira: ibai-arroko burutzetako basoak soiltzea edo baso autoktonoen ordezturak atxikitze gaitasun urriagoa duten landaketak egitea, ibarrak eta behe-lurak etxebizitzekin eta industria-nabeekin okupatzea, ubideak estutzea (ibaiaren oharrean bertan euskarrituriko eraikuntzekin), ertzetan zuzeneko eragina duten bide-azpiegiturak trazatzea, ibilguen alboko defentsak altxatzea eta dragatzeak egitea (uren abiadura eta indarra handitzea eragiten dutenak), etab.

Halako jarduketek gaur egun lurraldean duten eragina eta zabalera aintzat hartuta, horren eraginezko arazoei epe ertaineko soluzioa ematea oso zaila da. Hala eta guztiz ere, arazoa gero eta larriagoa izatea (aspaldion gertatzen ari dena) saihestu egin daiteke, eta, horretarako, jarduketa hidraulikoetan eta hirigintza-jarduketetan kontroleko neurri zorrotzak aplikatzea da egitamu honen lehentasuneko helburua.

Durangoko eskualde Egituran ibaiei eta errekei dagokienez dauden arazoak, dena den, ez dira aipaturiko uholde-arrisku handira mugatzen. Erronka nagusienetarikoa bat, izan ere, ibai-ur guztien kalitate maila nahikoa lortzea eta urbanizterren ingurumen-egoera hobetzea da, urbanizterrok guztiz aldatu baitaude, batik bat ubide nagusietan.

Urek azken urteotan izandako kutsaduraren arazoa konpontzeko, lan handia egin da saneamenduko azpiegiturak handitzen; horri esker, Ibaizabalaren tarte zabalera, kalitate mailak hobera egiten ari dira, apurka-apurka, hala ere, ibaiaren erdiko arroko sektore handiek (batez ere, Amorebieta-Etxanoko udal mugartearen barruan) oraindik ere ez dute ekipamendu egokirik, eta industria-nahiz hiri-jatorriko isurketa handiak jasaten dituzte; horrek kutsadura maila handiak sortu eta ez du aukerarik ematen baliabidea ezertarako erabiltzeko.

Ibaieretara dagokienez, sektore handietan berezko landaredirik gabe gelditu dira, batik bat honako honen eraginez: hiri- nahiz industria-instalazioen eta azpiegituren okupazioa, zabortearen presentzia, hareen pilaketa, zur-kantitate handien pilaketak (industria-erabilerarako), etab. Beraz, horiek suspertzeko lan handia egin behar da, horrek hobetu egingo bailuke ibaiaren eta bertara loturiko landare- zein animalia-komunitateen egoera; gainera, murriztu egingo litzateke uholde-arriskua.

1.3. Dinamika biozenotikoa.

Durungaldean Euskal Autonomia Erkidegoko Parke Natural garrantzitsuenetariko bat dago, Urkiola, eta beste gune garrantzitsu batzuk ere badaude; esate baterako, Udalaiz eta Oiz mendia. Hori guztia, zalantza barik, aktibo garrantzitsua da Eskualde Egiturarako, batez ere kontuan hartuta bertatik hurbil hirigune garrantzitsuak daudela eta eremuok bertako biztanleei balio handiko atsedenlekua eskaintzen dietela; halaber, aintzat hartu behar da lurraldearen zatirik handienak izandako esku-hartze maila handia, EAEko ingururik populatuenerarikoa eta industrializatuenetarikoa baita.

Dena den, eremu horietatik kanpo, sistema naturalen narriadura-prozesu historikoaren eraginez, hostozabalen basoek murriztapen nabaria izan dute Durangoko Eskualde Egiturako garaiera ertainetan eta baxuetan. Horren ondorioz, paisaia guztiz eraldatu da eta jatorrizko zuhaitz-landarediak presentzia urria dauka orain bertan. Izan ere, paisaiaren osagai nagusiak, gaur egun, koniferoen baso-landaketak eta hariztien nahiz ameztien jabetza historikoetan garaturiko belardi atlantikoak dira. Baso horien oraingo urritasuna eta balizko narriadura aintzat hartuta, nabarmendu egin behar da Durango Eskualde Egituraren lurralde-eraketan duten eginkizuna.

Artadien eta hariztien kontserbazio-egoera, hala ere, askoz ere hobea da. Balio agrologiko handiagoko lurrak okupatzen dituzte, batez ere artadiak, eta, horrela, kontserbazio-egoera onargarriko bi baso-eraketa horien azalera handiak gaur egunera iritsi dira. Jarduera tradizionalak uztearen eraginez, eta Urkiolako Parke Naturala antolatze eta kudeatzeko tresnek naturaren, faunaren zein paisaiaren aldetik oso interesgarriak diren sistema natural horiei emandako babesaren ondorioz, bermatu egin daiteke horien zaintza eta hobekuntza.

Durangoko Eskualde Egiturako baso autoktonoen panorama, azkenik, urkiek, gailurreko nahiz kareharrizko oina duten baso mistoek eta haltzadiak osatzen dute. Lehenengo biek presentzia urria edo oso urria dute zonan, baina euren interes ekologikoa handia da. Bestalde, haltzadiak (hobeto kontserbatuta goiko ibaibideetan behekoetan baino, azken horietan urrituta eta antropizatuta baitaude) igarobide ekologikoak dira, eta haranen arteko jario genetiko ahalbidetzen dute, euren ibaiadarrei esker; hori ere aintzat hartu behar da euren kontserbazioa eta susperraldia sustatzeko.

Baso autoktonoak desagertu arren horien ordeztasun baso-landaketak edo zelaiak garatu ez diren lekuetan, sastraka- edo belar-eraketak agertzen dira. Lehenengoen artean, landa azidofiloa eta sastrakako elorria nabarmentzen dira, lursail zabalak okupatzen baitituzte; interes naturalistiko aldakorra izan arren, guztiek ere eginkizun garrantzitsua dute basoko lurzorua kontserbazioan eta eraketan, eta gainera, faunaren babeslekutzat eta jakitokitatzat ere garrantzi handia dute.



Belar-eraketek garrantzi handia izan dute Durangoko Eskualde Egiturako paisaiaren oraingo eraketan, batez ere bertako belar-eraketa naugisiek: belardi atlantikoak. Belar-komunitate erdinatural horiek, baso-landaketekin batera, oraingo paisaiaren elementu garrantzitsuenetarikoak dira, garaiera ertaineko eta baxuko azaleretan. Garaiera ertain-altuko lurretan, pagadiak nagusitzen dira, eta bertan, belar-eraketen eginkizuna hortzeko mendi-zelaiak ordeztzen dute.

Belar-eraketei eratzikitako baliorik izan ez arren (balio botaniko handia badute ere), hartxingadietako eta kareharrizko harkaitzetako landaredia, izan ere, egoera berezietara egokitutako landaredia iraunkorraren adibidea da. Horren lore-osaketan habitat berezi horietako espezie endemikoak eta egokituak

daude, eta horrek agerian jartzen du landaredia horren kontserbazioa bermatzen duten neurriak garatzen jarraitu behar dela.

Dimentsio nahiko txikikoa izan arren, Durangoko Eskualde Egituran ekosistema kopuru nahiko handia dago; horietariko batzuk presentzia urria dute lurraldean, landaredi-unitate jakinen murriztapenaren ondorioz, eta horrek, jakina, eragin handia izan du faunaren kontserbazioan; izan ere, espezie asko ezin izan dira egokitu ezarritako baldintza berrietara, eta desagertu egin dira gure ingurutik.

Baso naturalen kontserbazioa nahiz lurralde-lotura bermatzeko proposamenak egitea, habitatik zaurgarrienak eta mehatxurik handiena dutenak babestea, ingurumena zein biodibertsitatea errespetatzen duten nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioko sistemak sustatzea, eta, azken batean, fauna zein landaredia kontserbatzeko estrategiak LZPko jarduketaren estrategietan eta ildoetan sartzea eta integratzea (lurralde-ikuspegitik begiratuta), horrenbestez, ezin dira ahaztu honen ezaugarriak dituen agiri batean; dena den, beste programa edo esku-hartze sektorial batzuek zuzeneko eragina izan dezakete komunitate edo espezie batzuetan.

1.4. Ingurunearen kudeaketa

Ibaizabalen igarobidean ezarritako hiri-eremuek zuzenean okupatu gabeko Durangoko Eskualde Egiturako eremu zabalaren protagonista nagusia baserria da; baserri hori, paisaiaren zati osagarria izateari utzita, paisaia sortzeko tresna bihurtu da. Euskal Herriko landa-munduko berezko eraikuntza arkitektonikotzat baino gehiago, baserria atxikitako lurrak dituen nekazaritza-ustiapentzat hartu behar da gehienbat, eta landa-inguruaren antolamendua, ingurumen-mantenamendua eta mendetako ekintzan sorturiko paisaien kontserbazioa, izan ere, lur horien erabileraren eta kudeaketaren araberakoa da, lurrok nekazaritza-eginkizunaren funtsezko baliabideak baitira.



Bestalde, LAAetan ezarritakoaren arabera: *“Baserriak EAEko landa-paisaiaren zati osagarriak dira eta horien jarduera mantentzeko laguntza eman behar da. Horri dagokionez, komenigarria da nekazarien errenta dibertsifikatzea, hau da, landa-garapenerako eta ingurune naturala kontserbatzeko jarduketa-ildoak abiatzea, Euskadiko Landa Egitamu Estrategikoan (1997, 123. or.) ezarritakoak”*. Oraingo Landa Garapenarako Programaren (2007-2013) helburua hau da: *“(…) EAEn funtzio anitzeko nekazaritza berrabiarazteko estrategia definizioa. Hau da, funtzio ekonomikoa egiten duen eta, beraz, iturria nahiz errenta sortzen duen nekazaritza garatzea, baina horrek ingurumenari nahiz lurraldea kudeatzeari loturiko funtzioa eta gizarte- nahiz kultura-funtzioa ere izan behar du”*.

Horretarako, landa-inguru bizia lortu behar da; edo, LAAean esaten denez, baserriaren *jarduera* mantendu egin behar da. Erronka hori ez da erraza, ez eremu euskal-atlantiko osoan eta ez, hain zuzen ere, Durangoko Eskualde Egituran; izan ere, bertako ingurumen-baldintzei —*Mendiko Nekazaritza Zona* (75/268/EEE Zuzentaraua), malda handikoa edota lurzoruen nekazaritza-erabilera baldintzatzen duten garaierakoa— eta egitura-baldintzei —baserriaren lurralde-oinarri urria, oraingo nekazaritza-jardueraren lehia-parametroetan sartzea ekiditen duena—, nekazaritza-lurzorua erabiltzeko lehia gehitzen zaio, aintzat hartuta hiri-espazio itoak eta kontserbazio egoera

oneko (besteekin konparatuz) inguruko landa-eremuak bata bestearen barruan sartzen direla.

Egituraren aldetik, Eskualde Egiturako baserriak 3,5 ha.ko zelaiak eta 6 ha. inguruko baso-funtsa ditu. Azken hori ustiatzeko, etekin handiko espezieak erabiltzen dira —basoek okupaturiko azaleraren ia 2/3etatik %87an konifero exotikoak daude, batez ere, intsinis pinua—. Birlandaketen monoespezifikotasunari loturiko arazoak ez ezik, jabetzen dimentsio txikia ere aipagarria da, baita ingurune fisikoaren ezaugarriak ere; horren guztiaren eraginez, ustiapenen kostuak garestitu egiten dira eta horrek higadura-prozesuak eta paisaiaren narriadura sortzen ditu; dena den, paisaiaren gaineko eragina ustiapenen azalera txikietara mugatuta dago.

Argi dago koniferoen baso hori, zerratze- eta txikitze-industriari lotuta, enplegu- eta aberastasun-sortzaile garrantzitsua dela. Hala eta guztiz ere, errenta-faktorea, aisialdi-eremua eta baliabide naturalen kontserbaziorako euskarria da, eta hiru elementu horiek uztartu beharra dago. Durangoko Eskualde Egituran, mendien jabetza gehienbat pribatua da, eta jabetza publikoa, berriz, baso osoaren %12ra baino ez da heltzen; horrek, jakina, ez du errazten gorago aipatu diren hiru faktoreen arteko lotura. Hala eta guztiz ere, interes pribatua eta interes orokorra uztartu beharra dago, baliabideen kudeaketa eraginkorra sustatuz (baliabide horien gaitasunak aintzat hartuta) eta ingurumena errespetatuz. Horri dagokionez, elkarren ondoko jabeei baterako inbertsioak eragiteko *baso-kudeaketako unitateak* planteatu ahal dira, hain erasokorrak ez diren ustiapen-teknikak erabili ahal izateko.

Horri dagokionez, *Babes Mendien* gaineko Baso Ondare Publikoa handitzea, izan ere, ekologiaren eta paisaiaren jarraipena bermatzeko baliozko tresna bakarra izan daiteke.

Baserriaren nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenaren aldetik, hau da, zelaien erabileraren eta kudeaketaren aldetik, dinamika argi dago: 1989tik 1999ra abeltzaintza-ustiapenak guztien 2/3 nekazaritzako azalera erabilgarria izatetik erdia baino gutxiago izatera igaro dira Eskualde Egituran. Baserri kopuru handiak nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenak izateari uztea berez ez da arazo larria; arazoa, sortu ere, baserri horietara atxikitako lurak beste batzuetan sartzen ez direnean sortzen da; izan ere, hori eginez gero, azken horiek merkatuko ekonomian sartzeko aukera izango lukete, produktibismo

bidetik kanpo. Baserriak ez ditu bere lurak saldu nahi, eta gainera, horien erabilera ere (legezko kontratuaren bidezkoa) ez du laga nahi. Izan ere, baserritarrek uste dute une jakinean agian ezin izango dituztela euren lurak berreskuratu ahal izango, eta beldur horrek ez dauka zerikusirik lurron nekazaritza-gaitasunarekin, kasu askotan lurrotan sortzen den hirigintza-garapenarekin baizik.



Horrela, *lurraldearen barreiadura* prozesuan murgildutako gizarteak gero eta gehiago baloratzen du landa-eremua, eta horrek sortzen duen eragina ez da zuzenekoa bakarrik —nekazaritza-lurzoruan familia bateko etxebizitzak egitea, horrek paisaian sortzen duen eta murriztu egin behar den eragin handiarekin—, zeharkakoa ere badelako; azken hori larriagoa da, landa-lurzorua hirigintza-espekulazioaren barruko dinamiketan sartzen baita, eta horiek ekidin egiten dute baserriak dinamikoen eta jarraipen-itxaropenik handiena duten baserrien dimentsionamendu berria.

Dinamika hori geldiarazteko, ezartzen den zonakatzek nekazaritza-sektorerako eremu estrategikoak sortzeko aukera eman behar du, horien mantenamendua eta kontserbazioa lehentasunezkoa da, beste erabilera

batzuei dagokienez; gainera, era guztietako egoitza-erabilerak guztiz baztertuta duten eremuak ere sortu behar dira. Neurri hori eta halako beste batzuk funtsezkoak izango dira; sektorearen etorkizuna, lurraldearen kudeaketa integrala nahiz iraunkorra eta balio kultural zein estetiko handiko paisaien kontserbazioa (horiek arriskuan jartzen dituen gizarteak egunetik egunera gehiago baloratzen dituen paisaiak), izan ere, baserriak nekazaritza-ustiapentzat duen bideragarritasunaren mende daude.

“EAEko landa-espazioaren ezaugarri nagusienetariko bat, zalantzarik gabe, hiri-espazioarekiko teilakatze handia da, horrek sortzen dituen mehatxu eta aukera guztiekin”. Izan ere, hiri-inguruaren hurbiltasuna (Eskualde Egituran hurbiltasun handia) ez da mehatxutzat soilik ikusi behar, landa-inguru horrek funtzio anitzeko benetako izaera hartzeko aukera nagusitzat ere ikusi behar baita.

Orain dela hamarkada batzuk, espazio hori eskulanaren, janarien eta urbanizatzeko lurzoruaren hornitzailatzat ikusten zen batik bat, baina aspaldion landa-ingurunearen funtzio anitzeko ulermenaren sozializazioa gertatu da. Landa *Espazioaren Europako Gutunean* ezarritakoaren arabera, funtzio-aniztasun hori hiru funtzio nagusitan laburbiltzen da:

- a) Funtzio ekonomikoa. Landa-ingurunea nekazaritzako lehengaien hornidurarako, enpresa txikien nahiz ertainen instalaziorako eta aisialdiko, turismoko eta halako zerbitzuak emateko euskarritzat.
- b) Funtzio ekologikoa. Landa-inguruneak ondo kontserbaturiko espazio naturalak eta paisaiak euskarritzen eta kudeatzen ditu. Landa-eremuaren funtzio ekologikoak honako hauek dira: biziaren berezko oinarriak zaintzea —lurzorua, ura, airea—, espazio berdeak babestea —aldi berean, faunaren habitata eta biotopoak euskarritzea— eta gizakiak historian zehar eraikitako paisaia zaintzea nahiz kontserbatzea.
- c) Gizarte- eta kultura-funtzioa. Tokiko elkarte-bizitzaren garapena eta hiriko biztanleriarekiko harremanen hazkundera landa-ingurunean garatu behar dira.

Funtzio horiek betetzeko, ekonomia ekologiari lotuta egon behar da; horrenbestez, LZPak nekazaritza-, abeltzaintza-, baso- eta artzaintza-

jarduerari buruz ematen dituen arauak eta jarraibideak bermatu egin behar dute nekazaritzaren eta ekologiaren nahiz paisaiaren bateragarritasun maila handia. Horri dagokionez, ekintza positiboko ildoak eta finantziazio-iturriak hornitu behar dira, sektoreari ordaindu ahal izateko ekologiaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik hain baliotsua den landa-espazioaren irabaziak edo galerak, eta hori, aldi berean, Eskualde Egiturako biztanleria osorako baliabidea izango da.

Eta, azken kasu horretan, hau da, biztanleria osoari dagokionez eta gizarte- eta kultura-funtzioarekin lotuta, honako honen arteko sinbiosia sustatu behar da: gehiengoa den hiriko biztanleriaren (gehienbat Ibaizabalen igarobideko gunen itoetan pilatzen dena) eta balio handiko lurralde- nahiz kultura-balioa kudeatzen eta kontserbatzen duen landa-biztanleriaren arteko sinbiosia. Landa-mundua hiriko gizartera “*irekitzen*” duten zidor- eta bide-sareak suspertzeko proposamena, izan ere, zenbaitek (*LAA, 1994-2030 Baso Plana*) adierazitako neurrietariko bat baino ez da; neurri horien bidez, landa-ingurune bizia lortu behar da, hiri-presioaren eraginpeko Eskualde Egituraren barruan. Argi dago, hori lortzeko, LZPk landa-irizpideetan eta, beraz, gizarte- nahiz ingurumen-irizpideetan oinarrituz garatu behar duela lurralde-planifikazioa.

2. LURRALDE EGITURA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

2.1 Sarrera

Durangoko Eskualde Egituraren barruko lurzoruaren erabilerak aztertzearen helburua, izan ere, lurzoruaren okupazio mota nagusien eta lurralde-antolamenduaren kartografia laburtua eskaintzea da.

Ikuspegi horretatik begiratuta, eta antolatu beharreko lurralde-errealitatearen irakurmen geografikoa eta, beraz, integratua eskaintzeko, erabileren mapak eta horren memoriak informazio osoa ematen dute Eskualde Egituraren barruko eremu osorako, laburpen-mapan agertzen den bezala.

Hala eta guztiz ere, erabilerek aprobetxamenduen eta lurzoruaren okupazioaren antolamendu-modu desberdinak adierazten dituzte lurraldean eta horren translazio kartografikoan; beraz, mapa honetako azalpen-memorian, lurralde-eremu nahiko homogeneoen azalpena eta interpretazioa ere egiten da, horiek Eskualde Egituraren barruan bereizteko modukoak baitira, erabilerak egituratzeko modu berezien eraginez (nekazaritzakoak nahiz abeltzaintzakoak, basokoak eta hirikoak, batik bat); lurraldea horien egitura fisiografikoan eta funtzionalean oinarrituz antolatzen da.

Horrela, lurzoruaren erabileren azterketak, lurraldearen antolamenduaren ikuspegitik begiratuta, gainditu egiten du okupazio-modu nagusien banaketa kartografikoa, eta aztertu beharreko lurzoruaren antolamenduaren irakurmen geografikoa, laburtua eta dinamikoa egiteko baliabidea da.

Honako lurralde-unitate hauek bereizi dira:

1. Oiz mendiko gailurrak eta isurialdeak
2. Ibaizabal-Zalduren alubioi-hondoa
3. Durango hegoaldeko mendiak eta haranak
4. Ibaizabalen ezkerreko ertzeko landazabalak eta haranak
5. Zumelegi ibaiaren arroa
6. Ibaizabalen eskuineko ertzeko eta Zaldu-Zumelegi ibaiarteko landazabalak eta haranak

2.2 Lurralde-egituraren ezaugarri orokorrak eta lurzorua erabileren antolamendu espaziala.

Lurzoruek Durangoko Eskualde Egituraren barruan duten erabileren banaketaren nahiz moten eta dinamikaren lurralde-azalpena, oinarritu ere, aurkezpen honetan adierazi nahi ditugun ezaugarri orokor eta egitura-alderdi batzuetan oinarritzen da.

Durangoko Eskualde Egiturako edozein lurralde-tratamendu, batez ere lurzorua erabileren ikerketa, antolamendu-eremu horretako erliebearen eraketa berezian oinarritu behar da, hori berezia baita Bizkaiko Lurralde Historikoan eta Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta horrek ageriko ondorio garrantzitsuak ditu espazioaren aprobetxamenduan eta antolamenduan.

Euskal Herriko isurialde atlantikoan dauden mendi, haran eta landazabal asko kateatuta daude, baina Durangoko Eskualde Egitura (bertako kolektore nagusia den Ibaizabal ibaiaren bidez drainatuta Atlantikora) korridore edo igarobide zabala da, eta Bizkaiko sinklinorioaren egitura tektoniko nabariaren jarraibideari jarraitzen dio.

Igarobide horrek E-IE norabideko elipsetxoak eratzen du ekialdean, eta mendebaldeko sektorean M-IM norabidea dauka; iparraldean eta hegoaldean mendi-ertzez inguratuta dago. Ertz horiek bereizi egiten dira formetan nahiz litologietan, garaieren garapenean eta jarraitasunean (Oka gainaren eta Ibaizabalen arteko banalerroa, Amorebieta-Etxano udalerrian, muinoduna da), baina Durangaldeko igarobideari egitura fisiografioko oso argia ematen diote.



Ibaizabalen igarobidea, iparraldetik inguratzen duten landazabaletatik ikusita. Durango, hegoaldetik Anboto eta Untzillatx mendiekin itxita. Atzealdean, HErantz, Zumelegiren harana, Elorrioko udal mugartean.

Bestalde, iparraldeko (Oiz mendia eta isurialdeak) nahiz hegoaldeko (Urkiolako kare-harrizko mendilerroak eta muino zorrotzak) mendi-ertzen eta Ibaizabalen haranaren artean, bizkardun erliebeak daude, goiko ertzetatik jaisten diren ibai laburrekin modelatuta; horrela, landazabalen paisaia sortzen da, horiek sorbalda-babesen antzean esekita daude eta bertan haran-hondokoekin zerikusirik ez duten erabilerak zein ezarkuntzak garatzen dira.

Mendi-itxierak, lehen esan dugunez, egitura morfologiko eta harkaitz oso desberdinetan daude (kareharrizko multzo handiak Urkiolan eta hareharri tertziarioak Oiz mendian); halaber, kontraste handiko erabilerak eta paisaiak dituzte, eta horrek eskualde-egituraren kultura- nahiz natura-aberastasuna eta aniztasuna osatzen du, balio handiko lurralde-aktiboa.

Lurzoruaren erabileren lurralde-tratamenduko beste gauza garrantzitsu bat, Eskualde Egituraren barruko egitura fisiko argiaren eraginezkoa, erabileren zein paisaien banaketaren koherentzia eta lurraldearen irakurgarritasun geografikoa da. Erabileren eta paisaien arteko koherentzia egitura fisikoaren ahalmen ekologikoen aniztasunean euskarritzen da, baina industrializazioari eta hirigintzari loturiko ekonomia- eta lurralde-erlaketak jasotzen ditu. Horrexetan oinarrituz interpretatu behar da Ibaizabalen igarobidearen hiri- eta industria-lurzoruen izaera ia jarraitua, Elorriotik Amorebieta-Etxanora; izan

ere, erabilera nagusitzat, kalitatezko nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak ordeztu dituzte, industrializazioaren aurreko landa-egoerari zegozkionak. Hortik dator, besteak beste, haranean oraindik okupatu gabe dauden landa-lurzoruen ingurumen-izaera estrategikoa.

Era berean, hedapen mugatua izan arren, koherentea da zelai eta labora batzuek (oso gutxi) Ibaizabalen haranetako leku batzuetatik duten hedapen urria, batez ere gutxien ibiltzen diren zeharreko haranetatik eta igarobidearen ertzetako landazabaletatik dutena. Hemen, hala ere, EAEko isurialde atlantikoaren barruko zati handian bezala, baso-landaketak dira protagonistak orain.

Halaber, egon diren aldaketa guztien gainetik, erabileren antolamenduan eta landa-ezarkuntzen egituran (iparraldeko eta hegoaldeko mendi-espazioetan) nabaritzen da gehienbat koherentzia. Oiz deiadar-mendiko betiko bazkaleku handia, gaur egun, bertako goi-isurialdeetan, landez, aurretixilardiz eta ameztiko haritziz beteriko mundua da; bertan ez dago baserririk eta oraintsu egin diren pinu- nahiz haritz- birlandaketak (haritz gorria) aurrerantz doaz, otadietatik eta txilardietatik. Kareharriaren eta karstaren inguruan (hegoaldeko mendilerroak eta mendiak), harkaitzak, hartxingadiak, mendiko belardiak eta pagadi ilunak tartekatu egiten dira nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera tradizionaleko haran estuekin; bertan, koniferoak eta baserri zein auzo isolatuetako egoitza-funtzioaren hedapenak aldaketa morfologiko eta funtzional garrantzitsuak eragin ditu; hala ere, haran horietariko batzuek, adibidez, Atxondokoak, mantendu egin dute landa-nortasuna eta betiko edertasuna.

2.3 Erabileren eta dinamiken dualtasuna

EAEko beste Eskualde Egitura batzuetan itsasertza-barrualdea dualtasuna dena, erabilerei eta dinamikei dagokienez, Durangoko Eskualde Egituran, lehen esan dugunez, Ibaizabalen haranaren eta hori iparraldetik naiz hegoaldetik inguratzen duten landazabal atlantikoen zein mendien arteko kontrastea da.

Lurraldearen ikuspegi integratzailetik eta antolatzailetik begiratuta, aipagarriak dira lurraldearen erabileren eta berori antolatzeko moduen arteko elkarreraginak, eremu fisiko oso desberdineko espazioan. Esate baterako, nekazaritzakoa ez den egoitza-eraikuntzaren garapena, hiri-industria ardatz itoko landa-ertzetan, edo ingurumenaren, paisaiaren eta jolasaldiaren arloko aktiboa, Urkiolako eta Oizeko mendi-ertzak osatzen dutena (lehenengoa Parke Naturala eta bigarrena *Eremu natural garrantzitsuen katalogoan* jasota). Edo eskualde-egiturako landazabal- eta mendi-eremuek uraren zikloan eta gainazaleko isurketetan duten eginkizun garrantzitsua (eragin asko Ibaizabalen hiri-jarraipenean).

2.4 Baso- eta nekazaritza- nahiz abeltzaintza-erabilerak

Lurzoruaren erabileren eta horiek Durangaldean duten banaketan ikuspegi oso laburtuak eta multzokoak, eraman ere, aurreko epigrafean aurkezturiko antolamendu fisiografikora garamatza, baita zonako hiri-industria hazkundearen prozesuetara ere, eta horiek, kokalekuari dagokionez, koherenteak dira erliebearen antolamendu-lerro nagusiekin. Horrek eragina dauka nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta artzaintzako erabileretan, baita biztanleguneetan ere.

Erabilera moten eta horien banaketaren ildoak ondoren adierazitakoaren arabera zehaztuta daude:

- a) Iparraldeko eta hegoaldeko mendi-ertzak, baso-erabileren nagusitasun argiarekin eta eraketa naturalen nahiz baso-landaketen garrantzi desberdinarekin, ondoren adieraziko dugunez. Landa-ezarkuntza urriak dira multzo orografiko hauetan, eta, garaierari eta erliebeari loturiko baldintza mugatzaile batzuetan, ez dago halako ezarkuntzarik; izan ere, halako kasuetan, hegoaldeko mendi-eremuko mendiarteko haranetan pilatzen dira.
- b) E-M norabideko zerrendak, Ibaizabalen haranaren eta mendi-itxieren artean; Oizetik jaisten diren ibaiek eta Urkiolako multzoak (haranaren amaieran) modelaturiko erliebe bizkardunak dituzte; horietan, nekazaritza-, baso- eta artzaintza-mosaikoa sortu da beti, Euskal

Herriko landazabal atlantikoetako betiko mosaikoa, auzoen eta baserrien sare trinko batekin egituratuta. Paisaia hori oso aldatuta dago, konifero-landaketen hedapen handiaren eraginez, eta oraindik ere mantendu egiten da Garai, Berriz eta Iurretako jurisdikzioetan; gainera, oso hertsatuta dago ia basoko landaketa bakarra denarekin, Durangoko udal mugarteko HMko eremu batzuetan eta Amorebieta-Etxanoko nahiz Izurtzako iparraldeko zein hegoaldeko zenbait eremutan.

- c) Ibaizabalen eta horren ibaiadarren (Zaldu ibaia Berrizerantz eta Zaldibarrerantz, eta Zumelegi ibaia Elorriorantz) haran-hondoa; laboreen, zelaien eta larredi hezeen eremu tradizionala da, eta, gaur egun, hiri-hazkundeak bertan euskarritzen dira, batez ere industria-garapenak. Erabileren mapak agerian jartzen duenez, hiri-industria lurzorua oraindik ez du orban jarraitua osatzen, baina horren protagonismo nabariak, okupazio-modua ez ezik, desegituratze- eta askatze-fenomenoak ere eragiten ditu, nekazaritzako eta abeltzaintzako alorretan; era berean, ageriko mugak ezartzen ditu bertako nekazaritza- eta abeltzaintza-ahalmen handiaren berezko jarduerak garatzeko eta hango balio biologikoak zein ekologikoak mantentzeko.

2.4.1 Baso-erabilerak

Basoaren oraingo nagusitasunaren atzean, EAEko isurialde atlantikoan dauden beste zona askotan bezala, landaketak daude; hala eta guztiz ere, eskualde-egituraren orografia berezia eta bi mendi-eremuren presentzia (historia geologiko eta aprobeixamendu-modu oso desberdinekoak izan arren) aintzat hartuta, beharrezkoa da baso-estaldurako forma desberdinak (batzuk interes ekologiko handikoak) ñabardurekin identifikatzea.

a) Basoko landaketak

Baso-landaketen hedapen masiboa (produkzio-helburuarekin) inguru eta baldintza geoekologiko guztietan gertatu da Durangoko Eskualde Egituran; izan ere, Urkiolako eta Oizeko mendi-jabetzetan, Ibaizabalen

igarobideko iparraldeko nahiz hegoaldeko ertzetako lehengo nekazaritza- nahiz abeltzaintza-landazabaletan eta ibai horren alubioi-ubideetan daude, lurzoru batzuen hidromorfismo maila handiek ezarritako muga bakarrarekin.

Hala eta guztiz ere, landaketen azalera handia kontuan hartuta, horiei buruzko ñabardura batzuk egin daitezke, batik bat espezieen eta lursailen arloan.

Urkiolako nahiz Oiz mendiko mendi-eremuetan eta Memaia zein Udalaiz mendien isurialdeetan, birlandaketa-piezen dimentsioa, orokorrean, eskualde-egiturako gainerako zatian baino handiagoa da. Gehien landatzen den espeziea intsinis pinua da (*Pinus radiata*); dena den, Urkiolako goialdeetan laritzak (*Larix kaenpheri*), pinu gorriak (*Pinus sylvestris*) eta, leku batzuetan, eukalituak eta itsas pinuak (*Pinus pinaster*) daude, haranen behealdean, baita haritz gorriak ere, Oiz mendiaren isurialdeetan. Landaketa horien txanda, lurzoru onargarrietan, nahiko laburra da, 20-25 urtekoa intsinis pinuaren kasuan, eta mozketaren ostean sastrakak eta txilardiak edota otadiak garatzen dira; hala ere, ikusi denaren arabera, egoera horrek gutxi irauten du, gehienetan lursailak azkar birlandatzen baitira.



Intsinis pinuen eta eukalituen birlandaketak, Mendiola haranaren behealdean (Urkiolako Parke Naturala); atzean, kareharritzko Untzillatx mendia.



Koniferoen birlandaketak Oiz mendiaren inguruetan.

Ibaizabalen iparraldeko zein hegoaldeko bizkardun bi zerrendetan eta Zaldu nahiz Zumelegi ibaien ertzetako landazabaletan, intsinis pinuko landaketen nagusitasuna ia erabatekoa da, gehienetan lursail txikiagoetan (baserriaren egiturak izaten dituen lursailetan, pinudiak halakoetan egoten baitira). Birlandaketek zatikatze handia sortu arren (larrediekin txandakatuta), pinudiak mendiguneetan biltzeko joera dago; hain zuzen ere, malda handiagoko ibaiarteetan egoten dira; adibidez, lurreta, Oiz menditik jaitsita Garai eta Berriz udal mugarteak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen dituzten harantxoetan (Aiarza, Arria, Ereña edo Lariz ibaiak). Pinudiek eta zelaiek bizkardun sorbaldetan dituzten banaketan ere nolabaiteko banaketa ikusten da; hain zuzen ere, baso-landaketek Urkiolako goiko eremuetatik Ibaizabalera doazen haranen isurialdeetan daude; baina, orokorrean, pinudiak ibaiarte zabaletan garatzen dira, belardien eta laboreen ohiko jabetzetan. Joera hori argi eta garbi ikusten da Mañaria eta Untzebieta haranen arteko sektorean eta Amorebieta-Etxano udal- mugarteko hegoaldean.



Birlandaketak Garain, Ibaizabalen iparraldeko lur bizkardunetan.
Landaketarako luberritutako lursaila.

b) Hostozabalen basoak eta hariztiak

Oizen goialdeetako eta isurialdeetako baso-urritasuna alde batera utzita (sute ugariko bazkalekua, gehienbat landa-eraketa zabalak —oteak, txilardiak eta iratzeak— eta larrediak okupatuta, ametzen basotxoekin eta unadekin), Urkiolako mendietan hostozabalen baso-estaldura anitza dago. Abeltzaintza jarduerak, baso-landaketek eta betiko zur-ustiapenak guztiz eraldatuta egon arren, Urkiolako pagadiak kareharrizko mendi horien zona harritsuetan daude, eta bertan lurzoru apur bat garatzeko aukera dago. Oro har, pagadiak itzalpeko orientazioak eta goi-haranetako sektorerik sartuenak okupatzen dituzte.



Irudiaren atzealdeko pagadiak, Mendiola errekaaren goi-ibarrean (Urkiolako Parke Naturala), kontrajarri egiten zaizkio aurrealdeko eukaliptoei eta erreka ondoko haltzadiari.

Bestalde, Mugarraren, Arranatzaren, Eskuagaren edo Alluitzen kareharrizko harkaitzetan artadiak daude, baina beti eguteraan eta lurzoru harritsuetan nahiz lehorretan. Pagadiak eta artadiak geoekologian eta paisaian sortzen duten kontrastea, izan ere, Urkiolako (1989an Parke Natural izendatua) balio biologiko gorenen eta nortasunaren ezaugarrietariko bat da. Udalaitzen ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko isurialdeetan ere (Zumelegi haranean) pagadi eta artadi txikiagoak daude.



Artadiak Mugarraren kareharrizko isurialde malkartsuan eta harritsuan.



Artadiak Mugarraren kareharrizko isurialde malkartsuan eta harritsuan.

Urkidi batzuk ere ageri dira Urkiolaren goialdeetan, gehienbat bigarren mailako eraketatzat, pagadiak narriatzearen ondorioz. Haltzadi-galeria estuak ikusiko ditugu Ibaizabalen ibaiadarren tarte batzuetan, ezkerreko aldetik, baita ibai horren urbazterreko tarte interesgarriren batean ere, Abadiñoako gunearen HMan; horrek hostozabalen baso-estalduraren panorama osatzen du, harizti oso txiki batzuekin batera, baina ezin dira kartografian jaso maparen eskalan.

c) Sastrakak

DEEko sastrakak, oro har, landa motako eta mendi-posizioko eraketak dira. Handienak, izan ere, Oiz mendiko abeltzaintza-erabilerako goi-isurialdeetako txilardiak-otadiak-iralekuak dira, eta bertako paisaiaren ezaugarri nagusia osatzen dute. Txilardiek Belatxikieta eta Urtemondo gainak ere kolonizatu dituzte, Amorebieta-Etxanoko udal mugarteko hegoaldeko mugan, eta, halaber, Urkiolako eta Mendiolako goi-ibarretatik ere hedatzen dira (udako ohiko bazkalekuak).

Mendi-eremuetatik kanpo, landazabaletako eta bizkardun lurretako larrediak eta belardiak txilardi eta aurrettxilardi batzuek okupatzen

dituzte, Ibaizabalen haranaren iparraldeko eta hegoaldeko zerrendetan; esate baterako, Garairen inguruetan eta Amorebieta-Etxanoko eta Durangoko udal mugarteen mugetan, Ibaizabal ibaiaren hegoaldean.



Txilarrez, otez eta iratzez beteriko landak, Oiz mendiaren hegoaldeko hartxingadietan.



Sastrakaren garapena, Garaiko landazabaleko zelaien lurretan.

d) Hegoaldeko mendi-erliebeei loturiko beste landare-estaldura batzuk

Urkiolako mendi-multzoko kareharrizko mendilerroetan eta muinoetan, harkaitzezko lurzoru biluziak nagusitzen dira, eta horietan, baldin eta gutxieneko baldintza litoedafikoak eta maldakoak betetzen badira, interes ekologiko handiko landare-estaldura anitzak egoten dira. Horrela, labar batzuen oinean, hartxingadietan, inguru harritsuak eta lurzoruen mugikortasunak ezarritako baldintza gogorretara egokituriko landaredia urria eta zurezkoa garatzen da.

Substratuak egonkorragoak eta lurzoruaren egitura hobea denean, sarritan deskaltzifikazioko buztinen pilaketa-zonetan eta muinoetan, mendiko zelaietako belar-eraketak agertzen dira, soropil leunak; artaldeek eta behi-taldeek, bertan egiten dute bazka udan, baita zaldiek ere, eta horiek uda osoan gelditzen dira zelai horietan.

Goialdeko lur horietan albitz-belarrak ere egoten dira, sarritan Anbotoko, Alluitzeko eta Mugarrako hartxingadien inguruetan, basoko soilguneak, zelaiak eta gutxi zaindutako lurak nahiz lur marjinalak (nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-produkziorako) okupatuz, isurialde atlantikoko beste zona batzuetan bezala.



Urresteiko (Urkiolako Parke Naturala) harri-eraketa masiboak, pago- eta artadi- oinekin (harri arteko zelai txikien eta kareharrizko harkaitzen landaredi-multzoaren orbanak).

2.4.2 Zelaiak eta laboreak

Baso-birlandaketekin batera, zelaiek eta, gaur egun distantzia handian, laborantza-lurrek Durangoko Eskualde Egiturako landa-lurzoruko erabilera nagusia osatzen dute. Izan ere, egiaztatu ahal da, horien azalera urria dala, baso-landaketek era guztietako baldintza geoekologikoetan izandako aurrerakuntzaren eraginez; halaber, oraingo banaketan estu lotuta daude erliebearen antolamenduarekin; eta, azkenik, zelaien nahiz laboreen paisaiaren eta ezarkuntza-sistemaren (baserri sakabanatuak eta landa-ezarkuntza txikiak) arteko lotura ikusten da.

Izan ere, zelaiak eta laboraturiko alor urriak, Durangoko Eskualde Egituran zuhain-landareetara eta, neurri oso txikian, baratze-aprobetxamenduetara erabiltzen direnak, batik bat landazabaletako eta haranetako lurzoru bizkardunetan agertzen dira, eta horiek, iparraldetik eta hegoaldetik, Ibaizabalen, Zumelegiren eta Zalduren haranak inguratzen dituzte.

Erabilera mota honen garapen handiagoa, beti intentsiboena izan ez arren, oro har, maldarik txikieneko eta, beraz, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-ustiapenerako gaitasunik handieneko lurzoruetan dago. Horixe gertatzen da Berrizko landazabaletan, Arria eta Ereña haran irekin inguruan (Sarria, Andikona eta Itua auzoak eta saildun lurretako baserri talde ugaria). Egoera hori Ibaizabalen haraneko iparraldeko ertz osoan luzatzen da, Durangoko, lurretako (batez ere, Artaza eta Oromiño auzoetan) eta Amorebieta-Etxanoko jurisdikzioetan. Iparraldeko isurialdean, zelaiak eta laboreak Garairantz hedatzen dira, eta udal mugarte horretan ondo ikusten dira baserriaren nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen tradizionalak, Oizen kontrahormen hegoaldean (Irumoitegana), bertako auzo-sare trinkoak agerian jarri duenez, baina gaur egun uzte-prozesuak (sastrakaren aurrerakuntza) eta basoaren kolonizazio-prozesuak ikusten dira, baita nekazaritzakoa ez den egoitza-hazkundera ere.



Aiarzako (Garai) eta Sarriako (Berriz) zelaietako belardiak, Ibaizabalen iparraldean; baserri tradizionalak eta egoitza-eraikin berriak ikusten dira.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-alorren nolabaiteko garbitasuna aurkituko dugu Zumelegiren haraneko eremuetan, Elorriotik gorako uretan, Kanpazarretik beherako bidean eta Zaldu-Zumelegi ibaiarteko lur bizkardunetan, Elorrioren eta Berrizen jurisdikzioetan, Murgoitio, Miota, Leitz edo Mendraka auzoetan.



Zelaiak eta baratzea Zumelegi haraneko bi baserri zaharren inguruan (Elorrioko Iguria auzotik hurbil).



Zelaien prestakuntza baso-landaketarako, Elorrioko landazabaletan.

Ibaizabalen ezkerreko ertzean zelaiek, pinu-landaketen aurrerakuntzaren presiopean, oraindik ere haranean esekitako sorbalda eta landazabal batzuk okupatzen dituzte; esate baterako, Arkota edo Bernagoitia auzoetan (Amorebieta-Etxano) eta Orozketa auzoan (Iurreta). Hala eta guztiz ere, zelaien eta zuhain-landareen paisaiarik onenak Segasta eta Arrazola haranetan daude, Abadiño eta Atxondoko jurisdikzioetan, hurrenez hurren. Mendiola, Sagasta edo Larrigan auzoak eta baserriak dira, lehenengo kasuan, eta Arrazola, Santiago eta Axpe, bigarrenetan.



Anbotoko haitzekin mimetikoak diren baserri zaharrak Atxondo haranean; zelaietan okelatako behiak dabilta.



Belarra mozteko zelaiak Arrazola haranean (Atxondo), eta atzean Anboto mendia.

2.5 Hiri- eta industria-erabilerak eta erauzketa-jarduerak

Eskualde-egiturako eta horri loturiko hazkunde demografikoetako nahiz hiri-hazkundeetako industria-garapena, batez ere, azken 50 urteotan gertatu da, Ibaizabalen, Zalduren eta Zumelegiren haranen hondoko baldintza topografiko onei esker; izan ere, bertako baldintzak hobeak dira azpiegiturak ezartzeko eta industria- nahiz hiri-lurzoruak garatzeko, Bizkaiko isurialde atlantikoko beste zona apurtuago batzuetan baino; baina inguru horren posizio geografiko onak ere eragina izan du horretan: EAEko industriak azken mendean izandako garapenaren ardatz nagusien, Nerbioi ibaiaren eta Gipuzkoako industria-haranen arteko lotunea; gainera, A-8 autobidearen, Santander-Donostiako N-634 errepidearen eta Bilbo-Gasteizeko N-240 errepidearen bide-azpiegitura bertatik igarotzeak ere eragina izan du horretan.

Hiri- eta industria-hazkundeak, lurzoruen erabileraren arloan, aipaturiko ibaien alubioi-lautadetako zona zabalen okupazioan izan du eraginik handiena; izan ere, Durangoko, Iurretako, Amorebieta-Etxanoko eta, neurri txikiagoan, Abadiñoko, Apatamonasterioko eta Elorriko mendebaldeko hedapeneko hiri-garapenek okupatu egin dituzte zona horiek; baina, batik bat, industria-jardueraren ezarkuntzak izan du okupaziorik handiena, ibai horien ibarretan, eta horrela, Ibaizabalen igarobidearen zati handian hiri-industria paisaia nagusitu da; bertan, egoitza- eta industria-egiturak txandakatzen dira, eta horiek, noizean behin, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak dabiltzan lursailekin edo otalurrekin etenda gelditzen dira; horrek, haran irekia denez, Ibaizabalen igarobidea bereizi egiten du Gipuzkoako Debaren edo Oriaren industria-haranetatik.

Hirigintzak eta industrializazioak sakon aldatu dituzte igarobideko hiriguneen eta auzoen tamaina, egitura eta paisaia. Hala eta guztiz ere, prozesu honen ondorioak alubioi-lautadatik iparraldeko landazabaletara eta haranetara igaro dira, batik bat Berrizko, Garaiko, Iurretako eta Amorebieta-Etxanoko auzoetara, Mañaria ibaiaren barruko tartean daudenetara eta Elorrio iparraldeko landazabaletako auzoetara. Horietan guztietan, familia bateko (edo biko) etxebizitzak eraikitze eta baserri tradizionalak birgaitzeko nahiz handitzeko prozesuak ikusten dira, eta ezarkuntza-egitura tradizionalarekin zerikusirik ez duen hirigintza berriren bat ere ikusten da.

2.5.1. Hiriguneak eta landa-ezarkuntzak

Mapan eraikinen informazioa ere jasota dago; izan ere, batik bat auzoetako landa-ezarkuntzen kasuan, horrek aditzera ematen du bertako dentsitatea eta, horretan oinarrituz, kasu batzuetan gune bakoitzeko egoitza-lurzorua zehaztu da, eta beste talde handi batean ez da halakorik egin.

Lurzoruaren erabileren mapa batean, ezarkuntzak euren dimentsioak, egitura morfologikoa eta funtzioak aintzat hartuta aztertu behar dira. Horretarako, ondoko bereizketa egin da, eta hori, *Udalplan* deritzoneko informazioan oinarritu arren, ez da hirigintzakoa, eta ezarkuntzen identifikazioan oinarritzen da, landa-azterketan, fotointerpretazioan eta horiei buruzko informazio demografikoan nahiz sozioekonomikoan oinarrituz.

Adierazitako irizpideen arabera, Eskualde Egituraren barruan lau ezarkuntza mota bereizten dira:

- Hiriguneak
- Gune txikiak
- Landa-ezarkuntzak
- Sakabanaturiko baserriak

Iurretakoa kasu berezia da; izan ere, lurzoruaren erabileren ikuspegitik begiratuta, Durangokoarekiko hiri-hazkunde jarraitua dauka, eta, ikuspegi horretatik, hiriguneen taldearen barruan dago.



Durangoko multzoaren eta ondoan dagoen lurreta gunearen ikuspegia; azken hori San Migel elizako dorrearen bidez identifikatzen da. Atzealdean, Ibaizabalen hiri-industria igarobidea Abadiñon eta Apatamonasterion.



Elorrio Elgeta mendateko igoeratik ikusita. Zumelegiren haranaren inguruan bizkardun sorbaldak daude eta, horien atzean, Anbotoko kontrahormak ikusten dira.

Apatamonasterio (Atxondo) eta Mañaria Durangoko Eskualde Egituraren barruko gune txikiak dira, eta horien hazkunderik, ondoko errepideen ardatzen inguruan (BI-632/BI-4332 lehenengoaren kasuan, eta BI-623 bigarrenaren kasuan), guneko berezko egitura sortu dute, kaleekin eta plazekin osatua, eta garaierako nolabaiteko eraikuntza-garapena ere sortu dute.

Gune txiki horien azpitik, eta aintzat hartuta eskualde-eremua nagusitzen den ezarkuntza-egituran muga argia ezartzeko zailtasunak, landa-ezarkuntzak daude; multzo oso ugari hori Durangoko Eskualde Egitura osoan banaturik dago, lehen adierazitako kokaleku-jarraibideen arabera. Gehienak (gainera, aldaketa funtzional eta dentsitate-aldaketa nagusiak izan dituztenak), oro har, kokaleku topografikorik onenetan eta hiri-industriako igarobidearen ardatzekin erraz komunikatzeko lekuetan daude. Horietariko batzuk, izan ere, egoitza-lurzorutzat agertzen dira indarreko udal-planeamenduan.

Berrizen iparraldeko landazabaletan aipagarriak dira Olabe, San Lorentzo, Andikoa, Sarria eta Besoitia auzoak, eta horiek bat egiten dute Garaiko udalerrian daudenekin (Aiarza, Garai, Santa Katalina eta San Joan). Ibaizabalen iparraldeko landazabaleko auzo-multzo horren barruan daude honako hauek ere: Goiuria, Oromiño eta Artatza lurretan, edo Etxano, Boroa, Arrinda, Epaltza edo Altzibar Amorebieta-Etxanon. Hemen ezarkuntza tradizionalik gabeko hirigintzak ere badira, adibidez, Garaiko Milikua.

Halaber, kasu batzuetan, ugariak landatarragoak eta garapen urriagokoak diren auzoak, Zaldu-Zumelegi ibaiartean, bai Elorriko udal mugartean (Miota, Letz-Miñota, Ferrozabal-Araminio, Lekeriketa, Mendraka edo Gaztaineta) eta bai Berrizkoan.



Familia bateko etxebizitzaren hirigintza Milikuan (Garai), Ibaizabalen eskuineko ertzeko landazabaletan.



Familia bateko etxebizitzaren sustapena adierazten duen kartela.

Ibaizabalen hegoaldean, landazabalek iparraldean baino garapen txikiagoa dute, eta auzo gutxi batzuk baino ez daude Amorebieta-Etxanon (Arkotxa eta Bernagoitia) eta Iurretan (Orozqueta); hala ere, ugariagoak dira eta nekazaritza-funtzionaltasun handiagoa dute, nekazaritzakoak ez diren lehenengo eta bigarren egoitzak ere egon arren, Iturriotz-Mañariako haranean (Aldebaraita eta Urkuleta) eta Sagastako haranean (Lerrigan, Mendiola eta Sagasta) eta Atxondoko haranean (Arrazola, Santiago eta Axpe-Donibane).



Arrazolako harana, hegoaldetik ikusita; aurrealdean Arrazola auzoa eta atzean Santiago auzoa (Atxondo).

Azkenik, Ibaizabalen ibarreko auzo asko hiri-industriako hazkundeetan sartu eta galdu egin dituzte formak, eta, batik bat, landa-eginkizunak. Horixe gertatu da Amorebieta-Etxanoko Earleko-Etxeak, San Antoniño, Euba edo Bernabeiti auzoetan, lurretako Santa Apolinia auzoan, edo Abadiñoko Matiena eta Muntsaratz auzoetan.

2.5.2. Industria-lurzoruak eta erauzketa-jarduerak

Amorebieta-Etxanon industria-lurzoruak mendebalderantz garatzen dira, A-8 autobidearen eta N-634 errepidearen artean; baita hego-mendebalderantz ere, Ibaizabalen ondoan, Astepe eta Markesasti auzoetatik; eta Durangorantz ere bai, Inespal izenekoaren presentzia deigarriarekin, Ibaizabalen hegoaldean. lurretako udal mugartean, industriak N-634 errepidearen eta ibaiaren arteko ibarra okupatzen du, eta, dimentsioak aintzat hartuta, Celusosas del Nervión enpresaren multzoa nagusitzen da.

Durangon (industria-tradizio handiagoko gunea), hirigunearen ondoko industria-egitura dago, baita Mañariarako nahiz Gasteizerako (BI-623) eta Elorriorako (Zumelegi ibaiaren haranetik) errepideen ondokoa ere bai. Azken ardatz honetan hiri-industria jarraipen interesgarria garatu da, Abadiñotik eta Apatamonasteriotik, eta hori Elorrioraino bertaraino heltzen da; bertan Anboto mendiaren eszenatoki ikusgarria dago, eta gainera, landa-egiturak eta urbazterreko landaredi-orbanak kontserbatzen dira; horren ondorioz, lurzoru horiek ondo zaindu behar dira. Gainera, industria-ezarkuntza garbietarako ingurumen-baliabidea da, zona horretako baliabide tradizionalaren ezaugarriak ez dituenak.

Azkenik, industria-lurzoruaren beste orban lineal handia Zaldu ibaiko ibarrekoa (Durangoko jurisdikzioaren ekialdean eta Berrizko lurretan) eta Zaldibarko ezarkuntza txikiagoetan dagoena da; azken herri horretako industrialdea, hirigunearen ondokoa, Solozabal erreken alubioi-lautadatxoan dago, Saluden goi-ibarrean.



Zumelegi ibaiaren ibarreko industria eta hirigintza, Elorrioren ekialdean. Ibaiaren ondoko basotxoak eta alubioi-lautadako zelaiak ikusten dira.

Erauzketa-jarduera kareharri urgoniarrak ustiatzean gauzatzen da. Hala, bi harrobi daude elkarren ondoan, dagoeneko geldirik, Atxarte bailaran, Urkiolako Parke Naturalaren perimetroaren barruan; Zallobentakoaz gain (martxan dagoena eta hori ere babestutako gunearen barruan). Eta oso handiak diren bi, jardunean daudenak; horiek Mañariako erdigunetik gertu, BI-623 errepidearen alboan, aipaturiko Portu eta Parke Naturalerako sarreran

daude, eta beren ingurunean ikus- eta ingurumen-eragin handia dute babesturiko gunearen barruan zein horretatik kanpo. Aipaturiko ustategi horiek Markomin-Goikoa eta Mutxate harrobiak dira.

Bestalde, badira Eremu Funtzionalaren baitan dagoeneko geldirik dauden beste harrobi batzuk, eta inguruko natura-ingurunean aztarna garrantzitsua utzi dutenak. Hortaz, kokagune horietan ekintzak burutu behar dira ingurune fisikoa berreskuratu edo, gutxienez, hobetzeko egun duten egoeraren aldean.



Mañariko harrobi handietariko bat, BI-623 errepidearen ondoan, Urkiolako mendatearen igoeratik ikusita.



Bertan behera utzitako harrobia Atxarte haranean (Urkiolako P.N.).

2.6 Lurralde-unitateak eta lurzoruaren erabilerak

Durangoko Eskualde Egiturako espazio geografikoa sei unitatetan edo eremutan zatitu da; unitate horiek nolabaiteko homogeneotasun fisikoa eta funtzionala duten lurralde-piezak dira, eta, horrenbestez, nolabaiteko erregularitasunak dituzte erabileren eta dinamiken banaketan. Unitate horiek eratu egin dira lurzoruaren erabilerak dituen informazioaren mapan, bereizitako eremu bakoitzeko erabilerak eta antolamendu berezia identifikatzeko. Nolabait ere, unitate horiek paisaiaren lurralde-piezak ere badira; izan ere, erabilerak, lurraldearen antolamendu fisiografiko bereziarekin trabatuta, paisaiaren ezaugarriak eta bereizketa ezartzeko funtsezko gakoak dira.

2.6.1 Oiz mendiko gailurrak eta isurialdeak

Oiz mendiaren gailurraren eta goi-isurialdeen berezitasun fisiografikoaren, paisaia-berezitasunaren eta lurzoruaren erabilerek duten berezitasunaren eraginez mugatu da unitate hau; isurialde horiek Durangoko Eskualde Egitura eta Gernika-Markinakoa banatzen dituzte, eta azken hori iparraldean kokaturik dago.

Multzo honen ezaugarria ekialde-mendebalde kokalekua edukitzea da; izan ere, Bizkaiko sinklinorioak eta horren gailur luzangak, lauak nahiz isoaltitudinalak osaturiko elementu tektonikoaren norabideari jarraitzen dio; horrela, hesi antzeko bat sortu eta horrek argi eta garbi ixten du, iparraldetik, Ibaizabalen haraneko erdiko sektorea. Mendebaldeko isurialdea, gainera, zenbait errekaen eraginpean dago eta zelaiguneak edo mailak ditu, eta, horien eraginez, itxura apurtuagoa dauka iparraldeko isurialdean baino.

Oizen isurialdeetako goi-bazkaleku komunalen, ikazkintzaren eta suaren erabilera tradizionalaren ondorioz, txilarren, oteen eta iralekuen landak nagusitzen dira, albitzekin eta belardiekin batera, eta gainera, zuhaitz gutxi dago (haritzen eta ametzen unadatxoak goiko zonan).

Gero eta pinu gehiago dago, beste zona batzuetan gertatzen den bezala, eta horrek eragin handia sortzen du paisaian eta morfologian, urrunetik ikusten

diren goi-lur leun hauetan. Baserririk ez egoteak nabarmendu egiten du inguruaren mendi-izaera eta paisaiaren originaltasuna; hortaz, adierazitako zergati guztien eraginez, eta kontuan hartuta Durangalde osoko paisaia-lorpen aipagarria dela, babes maila handia behar du.

2.6.2 Ibaizabal-Zalduren alubioi-hondoa

Ibaizabal eta Zaldu ibaien haranetako alubioi-hondoa, ikuspegi guztietatik begiratuta, Durangoko Eskualde Egituraren ardatza da. Hidrogeomorfologiaren aldetik, Bizkaiko sinklinorioaren norabide eliptiko samarrari argi eta garbi jarraitzen dion eremu hori eskualde-egitura ia osoaren drainatze-ardatza da, horrek sortzen dituen ingurumen-eragin guztiekin.

Ageriko zergati topografikoak eta litoedafikoak aintzat hartuta, alubioi-hondo honek eremuko lurzorurik onenak ditu, bai belardien nahiz zuhainen produkziarako, bai nekazaritza-jarduerarako.

Lautasuneko eta nolabaiteko garaierako, Oizeko eta Urkiolako mendi-eremuen arteko jarraitasuneko, eta kontraste handiko bi mundu fisiografiko, historiko eta funtzionalen arteko (Bilboko itsasadarra eta Gipuzkoako industria-haranak) lotura fisikoko baldintza hauek eremuaren okupazio trinkoa eragin dute, baita hiri-, industria- eta azpiegitura-dinamika nabaria ere.

Horrek guztiak, bestalde, erabilerek unitatean duten egoera eta ingurumen-tentsio gogorrak (ez ekologikoak bakarrik) azaltzen ditu, okupazio trinkoko igarobide honetan. Mapan ikusten denez, hiri- eta industria-lurzoruko pieza handien (orain nagusiak bertako paisaian) eta bide-sarearen artean, oraindik ere landa-lurzuak ikusten dira, eta, horietan zelaiak, leku batzuetan nekazaritza trinkoa eta, zenbaitetan, otalurrak garatzen dira. Halaber, harrigarria da urbazterreko unadak dituen ibai-tarte batzuk mantentzea. Elementu horiek guztiak balio estrategiko handia dute, igarobidean zehar gutxieneko ingurumen-kalitatea edukitzeko, eta gainera, eginkizun garrantzitsua dute ureztatze-lautadako dinamika hidromorfologikoan (lurraldearen ikuspegitik kontu handiz tratatu beharreko espazioa).

2.6.3 Durango hegoaldeko mendiak eta haranak

Eskualde-egituraren hegoaldeko mendi-itxieraren ezaugarri morfologikoak, ekologikoak eta paisaia mailakoak oso desberdinak dira iparraldeko ertzekoetatik. Durangaldeko bi mendi-multzoen arteko desberdintasun horiek, bakoitzak berezko balioak edukitzeaz gain, balio handiko lurralde eta ekologia mailako aktiboa ere osatzen dute, batez ere irudia eta ekimenik gehienak Ibaizabalen hiri-industria igarobidearen inguruan dabiltzan eremuan.

Hegoaldeko multzo orografiko ikusgarria eta ederra, izan ere, banalerro atlantiko-mediterraneanreko euskal mendien berezko egitura geologikoen ondoriozkoa da. Kareharrien lodiera indartsuak euskarritzen duten paisaian, bestalde, mendilerroen nahiz muinoen bolumen masiboei loturiko formak, prozesuak eta landare-estaldurak nagusitzen dira; batez ere, Urkiolako multzoan. Horren kontrastea mendiarteko haranek sartzen dute (ezaugarri karstikoak), Ibaizabal hegoaldetik inguratzen duten landazabaletara ireki baino lehen.

Horrenbestez, unitate honetako lurzoruaren erabileren mapan harkaitzen, hartxingadien eta horri loturiko landarediaren orban handiak dira nagusi. Pagadiak ere presentzia handia dute, batez ere oinarritzko substratuan, eta artadiak ere bai, eguteretan eta kareharrizko nahiz harrizko lurzoru lehorretan. Basoko mundu harritsu hau oso interesgarria da eta Urkiolako Parke Naturalaren babes irudia eman zaio.

Haranek forma leunagoko mundua osatzen dute, baina kareharrizko unadak nagusitzen dira; bertan, zelaiek eta biztanleria-ezarkuntzek lurzoruaren eta lurralde osoaren erabilerak antolatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, panorama horri zenbait ñabardura egin behar zaio, eta, horrela, erabileren aldetik bi haran mota bereizten dira: alde batetik, Atxarteko eta Atxondoko haranak, landatarrak eta oso ederrak, komunikazio-ardatz nagusietatik kanpo, baina barreiatutako edo auzoen inguruko eraikuntza-garapenekin, inguruaren edertasunaren eraginez; bestetik, Mañariko harana, erdiko tartean, eta horrek, mendiarteko izaera eduki arren, nolabaiteko hiri- eta industria-hazkundera izan du, Durango-Gasteizeko bideak zeharkatzen baitu (gainera, haranaren sarrerako harrobi handien eragin kaltegarria dauka).

2.6.4 Ibaizabalen ezkerreko ertzeko landazabalak eta haranak

Bizkardun lurren zerrenda hau Ibaizabalen haraneko hondoaren eta hegoaldeko mendi-multzoaren artean kokaturik dago. Multzoak hegoaldeko kolektore nagusira jaisten diren erreka laburren eraginpean dago; horrela, gehiago edo gutxiago sartutako haranen bidez banandutako sorbaldekin edo zelaiguneekin osaturiko erliebea sortu da.

Oinarri topografiko horretan, lurzoruaren erabilerak jarraibide errazaren eta errepikakorraren arabera antolatzen dira; horrela, gelditzen diren zelai eta labore urriek harantxoaren hondoetan edo Ibaizabalen haranean esekitako zelaiguneetan daude. Zelaiei kontrajarrita, koniferoen birlandaketa handiak daude, eta horiek, batzuetan, haritz-unadek soilik apurtzen dituzte, gorengo aldeetan, eta haltzadi baliotsuek erreka batzuen inguruan.

Landa-ezarkuntzak urriak dira unitatearen mendebaldeko sektorean, Amorebieta-Etxanoko udalerriaren barruan, eta ugariak dira, bai auzotzat eta bai ezarkuntza sakabanatutzat, Atxarteko eta Arrazolako haranetako eremurik baxuenetan eta irekienetan.

2.6.5 Zumelegi ibaiaren arroa

Zumelegi ibaiaren arroa Elorrioren inguruko izaera nahiko itxia duelako bereizi dugu; dena den, ikuspegi fisiografikotik eta lurzoruaren erabileren ikuspegitik begiratuta, orain arte aztertutako gainerako unitateen ezaugarriak ditu.

Zumelegik drainaturiko arro izaera horren eraginez, eremu honen barruan haran-hondoko alubioi-lurrak (batez ere, Elorrioko hiri-industria garapenak okupatuta), landazabal atlantikoko lurrak (gehienbat, hirigunearen iparraldean, Zumelegi-Zaldu ibaiartean) eta mendi-lurrak daude, azken horietariko gehienak, ibaiaren ezkerreko ertzean, Elorriotik gorako uretan, Udalatz mendiaren isurialdeetan.

Alubioi-hondoak antzeko balio ekologikoak eta lurralde mailakoak ditu, eta antzeko ingurumen-arazoak ere bai, Ibaizabalekoei dagokienez. Zelaien eta laboreen aztarnak Elorriotik gorako uretan bilatu behar dira; bertan,

nekazaritza- eta abeltzaintza-alorrek bat egiten du landazabal atlantikoetakoarekin, eta azken horiek, berriz, Udalaitzen isurialdeetako beheengo aldeetan eta Elgeta mendateko gorengo maldetan daude. Elorriotik Berrizera bitarteko inguruak, bestalde, belardi ugari eta ezarkuntza-sare trinkoa duen igarobide batek okupatzen ditu, bi gune horien arteko landazabaletan, eta bertan, eraikuntza-dinamika nahiko aktiboa dago, Santamañazar mendia Elorriorantz erortzeko inguruan bezala; horrek indartu egiten du hiribilduak erabileren eta paisaiaren antolamenduan duen zentralitate-eginkizuna.

Baso-landaketen protagonismoa argia da arro osoan; hala ere, gorengo eremuetan, Udalaitzen oinean eta Kanpazar mendatearen jaitsieran, pagadi-unada interesgarriak daude eta horiek lurraldean lehiatu egiten dira birlandaketa batzuen aurrerakuntzarekin.

2.6.6. Ibaizabalen eskuineko ertzeko landazabalak eta haranak

Ibaizabalen haran-hondoa iparraldetik inguratuz, eta Oiz mendiaren oineko eskailera-maila balitz bezala, bizkardun eta gorabeheradun lur-zerrenda hau dago, Oizen goi-isurialdeetan trokak sortzen dituzten haranetatik zabaldua.

Unitateak landazabal euskal-atlantikoen ezaugarri fisiografikoak eduki arren (eskualde-egitura honetako 4. lurralde-unitaterako azaldu direnak), eremu hau nahiko originala da lurzorua erabileren banaketan, eta, gainera, landa-lurzoruan eraikuntza-dinamika trinkoa eta aipagarria dauka.

Landazabal hauek modu nahiko irekian erortzen dira haran-hondoan, Ibaizabalen ibaiadar laburrek (adibidez, Aiarza edo Arrua) sorturiko higadurari esker, batik bat Berrizko eta Garaiko udal mugarteetan. Malda nahiko leunetan, zelaiak zabaldu izan dira beti lurrotan, barreiaturiko baserri eta auzo ugarien inguruan egituratuta. Zelai eta ezarkuntza horiek erraz identifikatzen dira gaur egun, sektorearen inguruan, baina bi aldaketa garrantzitsu izan dituzte, erabileretan eta lurralde osoan eragina dutenak: alde batetik, zelaien murriztapena, pinudiak eta sastrakak hedatzearen eraginez, eta landa-lanean identifikatu diren higadura-prozesu larrien ondorioz; bestetik, eraikuntza-trinkotze nabaria landa-lurzoruan –eskualde-egitura osoan ikusitakorik



handiena—, eta horrek, leku batzuetan, nabarmen aldatu ditu landazabalen landa-paisaia horren ezaugarri bereizgarriak.



3. GARRAIOAK

3.1. Bide-sarea

Bide-sareak administrazio-hierarkizazioa dauka, honako kategoria hauen arabera: *Lehentasunezko Intereseko Sarea*: nazioarteko trafikoaren ibilbideak eta mugako igarobide nagusietara joateko ibilbideak, ibilbide luzeak eta autonomien arteko trafikoa dutenak, interes orokorreko portuetarako eta aireportuetarako sarbideak; *Oinarrizko Sarea*: Estatuko Interes Orokorreko Sarearen funtzioa galdu duten errepide nazionalak; *Eskualde Sarea*: Euskal Autonomia erkidegoaren barruko ibilbide osoak, barruko eskualdeak edo autonomia erkidego mugakideak lotzen dituztenak, eta, azkenik, *Toki Sarea*: lurralde osotik goi-hierarkiako sareetarako sarbidea edo eskualdeen arteko loturak ahalbidetzen dituzten errepideak.

Bide-sareen sailkapen hori (*Lehentasunezko Intereseko Sarea*, *Oinarrizko Sarea* eta *Eskualde Sarea*) Bizkaiko Errepideen Egitamuan erabilitakoa da.

3.1.1. Sarearen hierarkizazioa

Durangoko Eskualde Egiturako bide-sarea Lehentasunezko Intereseko Sareko ardatz bikoitz baten bidez egituratzen da, eta hori haranaren hondotik doa. Bertatik zenbait igarobide abiatzen dira, bai Oinarrizko Sareakoak eta bai Eskualde Sareakoak, eta horiek baliozkoak dira iparraldeko kostalde-eremuekin, Arabako haranekin eta, batik bat, Gipuzkoako hegoaldeko zein hego-mendebaldeko haranekin konektatzeko.

Ardatz hau A-8 autobideak eta N-634 errepideak osatzen dute (nahiko paraleloak); horiek Bilboren eta Donostiaren arteko trafikoak bideratzen dituzte, baita inguruko gunek euren artean, hiriburu horiekin eta hurbileko eskualde-eremuekin lotzen dituztenak ere.

Bide-sareen sailkapen hori (*Lehentasunezko Intereseko Sarea*, *Oinarrizko Sarea* eta *Eskualde Sarea*), lehen esan dugunez, Bizkaiko Errepideen Egitamuan erabilitakoa da. Bidearen funtzionaltasuna eta zeharkatzen duen lurraldeari ematen dion zerbitzua aintzat hartuta, honako sailkapen hau egin daiteke:

- a) Egitura-sarea, autobideek, autobiek eta errepideek osatzen dutena; sartzeko eta igarotzeko igarobideak dira; Lurralde Historikoko hiriburuak eta eskualde-egituretako toki nagusiak lotu eta EAEko oinarritzko garraio-sareak egituratzen dituzte.
- b) Banaketa-sarea, hiri- eta landa-inguruetan; garraioko linea nagusiak bildu eta eremu desberdinen arteko nahiz egitura-sarearekiko loturarako balio du.
- c) Barne-sarea, toki-irisgarritasuna ahalbidetzen duten kaleek eta errepideek osatzen dutena.

Sailkapen hau erreferentziatzat hartuta, A-8 autobidea egitura-sarea izango litzateke, N-634 eskualdeko banaketa-sarea, baina egitura-sarearen izaerarekin, A-8 autobidearekiko funtzionamendu osagarria aintzat hartuta, ordainlekua saihesteko; gainera, aintzat hartu behar da Bizkaiko Lurralde Historikoa egituratzeko ardatza izan dela beti. Halaber, bi bide horiek trafiko pilaketa handia dute eta, batez ere, hiri-inguruko arazo nabariak sortzen dituzte euren perimetroan dauden guneetan.

Gainera, honako hauek ere egitura-sarearen barruan daude:

- Urkiolako igarobidea (BI-623), Durangotik Gasteizerantz; horrek azpiegitura-arazoak eta ingurumen-baldintza garrantzitsuak ditu.
- Elorrioko igarobidea (BI-636), Kanpazar mendaterantz eta Arrasaterantz; gune horretatik aurrera banatu egiten da (BI-632) Pagatza mendaterantz, Elgetarantz eta Bergarantz; horrek guztiak zeharbide-arazoak sortzen ditu, eta, batez ere, gabezia geometrikoak, aipaturiko goi-tarte horietan.
- Artibairen igarobidea (BI-633), Berrizetik Ondarroarakoa; zatirik handienean ondoko Gernika-Markinako Eskualde Egituratik doa. Eremu honetan, ezaugarriak egokiak dira, Berriz-Markina bitartean hobekuntzak egin baitira oraintsu.

Errepide horietatik, eskualde-errepide banatzaileak abiatzen dira; horiek inguruko eremu guztiak lotzen dituzte eta zehatz aztertu behar dira, mendebaldetik ekialdetik antolatuta:

- Arratiaren igarobidea (N-240), ia Eskualde Egituratik kanpoko, iparraldeko tartean izan ezik (Zornotza-Lemoa), eta hori, nolabait ere, beste muturrean bat dator Urkiolako igarobidearekin; azken hori aurrerago aipatuko dugu. Hiri-arazoak (Zornotzako, Lemoako, Igorreko, Arantzazuko eta halako zeharbideak) eta azpiegitura mailakoak (Barazar mendatea) ditu.
- Gernikako igarobidea (BI-635, Lemoatik); trafikoaren eta ibilgailu astunen pilaketa larriak ditu, eta ezaugarri geometriko nahiko baxuak ditu, batik bat Autzagana mendatean. Igarobide hau, gainera, Urdaibaiko ezaugarrien baldintzapean dago erabat, eta BI-2235 errepidetik Bermeoraino iristen da.
- Azkenik, aipagarria da (aurrerago sakonago aztertuko baitugu) morfologiaren aldetik Learen haranekoa den sasi-igarobide bat; kategoria eta ezaugarri baxuko errepideek edo errepide-zatiek (BI-3332, BI-3222, BI-3231, BI-3447) osatzen dute (kategoria eta ezaugarri baxukoak); lurretako NWtik abiatu (Arriandi) eta, Muniketa mendatetik aurrera, Munitibar eta Gizaburuaga zeharkatzen ditu, Lekeitioraino. Jakina, horren hegoaldeko zatia bakarrik dago Eskualde Egitura honen barruan.

Durangoko Eskualde Egiturak EAE osoari dagokionez duen egitura-izaera aintzat hartuta (bai kokalekuaren eta bai bertako bide-sare garrantzitsuen eraginez), horiek nabarmen hobetu behar dira, eta kasuan kasuko ekintzekin igarobide bakoitzaren garrantzia hierarkikoa eman behar zaie, eremuaren eta ondoko lurren integrazio harmonikoa lortu ahal izateko.

3.1.2 Diagnostikoa

Oraingo egoeraren diagnostikoa egitean ikusten denez, gatazkak daude hiri-arloan eta azpiegituretan.

Izan ere, Bizkaiko Errepideen Egitamuan ere horixe dago adierazita, batik bat proiektaturiko eta planifikaturiko ekintzei dagokienez.

LZP honek, ondoren azaltzen diren estrategietan, gehienbat irizpide horiek erabiltzen ditu, eta gainera, igarobide bakoitzak eduki beharreko izaera gehiago nabarmentzeko ahalegina egiten du.

Estrategia horiek, bide-sareen kategorien arabera bereizgarriak, ondoren adierazitakoaren arabera zehaztu ahal dira:

Egiturako bide-trazatua:

Ezinbestekoa da A-8 eta N-634 bide-trazatuko ardatz nagusien jarioak eta gaitasunak handitzea eta integratzea, baina bide bakoitzaren funtzionaltasuna bereizita; lehenengoa igarotzen diren trafikoak bideratzeko egitura-ardatza izango da, eta bigarrena, berriz, lotura-ardatza, eta horixe izango da lehentasunezko intereseko igarobidea, Eskualde Egituraren barruko trafiko-arazoak konpontzeko.

Ez da beharrezkoa lotura-jarioen hazkundeetan sakontzea, kontuan hartuta irisgarritasunean egiten ari diren hobekuntzak eta indarreko planeamenduan jardueretarako ezarrita dauden etorkizuneko garapenak.

Oraingo pilaketak arazo handiak sortzen ditu muturreko orduetan; halakoak gero eta sarriago gertatu eta gero eta luzeagoak izaten dira; beraz, epe laburrean edo ertainean handitu egin behar dira zirkulazioaren gaitasunak, bai azpiegituretan hobekuntza geometrikoak eginda, bai hiri-inguruko arazoak ezabatuz. Aldi berean, beharrezko hobekuntzak egin behar dira A-8 eta N-634 bide-ardatzen ondoko gunetako sarbideetan, eta, horretarako, garraio publiko eraginkorra eta lehiakorra sortu behar da Eskualde Egituraren barruan, lekualdatze horietan ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu ahal izateko.

LZP honek argiago bereizi nahi ditu bi ardatzok, A.8 autobidea trafiko handietarako eta Durangoko Eskualde Egituratik kanpoko jatorria nahiz helmuga duten trafikoetarako, eta N-634 errepidea Eskualde Egituraren barruko hiriarteko trafikoetarako, LZP honen proposamenetan adierazitakoaren arabera.

Okaren edo Urdaibaiko igarobidea (BI-635), Zornotzatik Gernikara bertan, inguruaren ageriko kalitatea kontua hartuta, komenigarria da trafiko astunen zamak murriztea. Bilbo-Mungia-Bermeo igarobidea (eremutik kanpoko) hurbil dagoenez, batez ere aintzat hartuta Sollubeko tuneletako saihezbide garrantzitsua, badirudi zentzuzkoa dela Bermeorako eta bertako porturako trafiko astun handi horiek bertatik bideratzea; dena den, ekintza hori Gernika-Markinako Eskualde Egiturakoa da gehienbat, igarobidearen hasierako zatian izan ezik (Autzagana mendateraino).

Elorrioko igarobidea – Kanpazar-Arrasate mendatea; horrek, hobekuntza handiak eginez, mesede egingo die Gipuzkoako hego-mendebaldeko haranekin orain dauden lotura zailei.

Artibaiko igarobidea, haraneko produkzio- eta turismo-jardueren loturak errazteko, batez ere Ondarroari eta Lekeitiori dagokienez. Igarobidearen zatirik handiena Gernika-Markinako Eskualde Egituraren barruan dago.

Arratiako Pasabidea, Eremu Funtzional honetatik ia kanpo dagoena, iparralderagoko tartea —Zornotza-Lemoa— izan ezik. Arabarekiko harremanetarako funtsezkoa den pasabide hori sustatuz, Urkiolako Pasabidea hustu ahal izango da

Eskualdearen banaketako bide-trazatua:

Lehen esan dugunez, banaketa hau egiten da: alde batetik, Igarobide Nagusiak, Oinarrizko Sareko Eskualdeko Banatzaileak, hobetu egin nahi direnak; bestetik, Bigarren mailako Igarobideak, Tokiko Banatzaileak, eta horietan, zenbait zergatiren ondorioz (batik bat, ingurumenari lotutakoak),

hobekuntzak nahita egindakoak edo, beste modu batera esateko, kontrolatuak dira, hobekuntza horiek erabilera ezegokirik izan ez dezaten.

Oinarrizko Igarobideei edo Eskualdeko Banatzaileei dagokienez (guztiak A-8/N-634 ardatz bikoitzetik abiatuta), hauxe aukeratu da:

- Urkiolako Pasabidean ingurumena babesteko irizpideengatik bereziki Arratiako Pasabideak bere beste muturra ia bat etorrita duenean (Legution) eeta A-1 (Gasteiz-Eibar) zerbitzuan hasten denean gauza berbera gertatuko da ekialderago dauden eremuekin.

Tokiaren banaketako bide-trazatua landa-inguruetan:

Lehen esandakoaren arabera, igarobide horiek kategoria baxuagoa izan behar dute, eta, horrela, euren funtzionaltasuna bereizgarria izango da, gehiegizko erabilera ekiditeko.

Bigarren mailako igarobide horiek zerbitzu maila egokietara egokitu beharko dira, ondoko guneei dagokienez; hala ere, ez dira eskualdeen arteko ibilbidetzat erabili beharko, ondoren azaltzen diren zergatiak aintzat hartuta. Irizpide horien barruan, honako hauek sartzen dira.

- Learen sasi-igarobidea (BI-3332, BI-3222, BI-3231, BI-3447); irisgarritasunean egindako gehiegizko hobekuntzek bertako ingurumen-kalitateari kalterik egitea ekidindo da, batez ere kontuan hartuta ibilbide luzeak Okaren eta, batez ere, Artibairen igarobide paraleloetatik egin ahal izango direla.
- Elorrio-Bergatza lotzea Pagatza portutik

Toki-sarea:

Aurrekoen antzeko irizpideak erabiliko dira; sare horien zerbitzua jasotzen duten gune txikien irisgarritasun-beharrizanak maila onargarrietaraino bete

behar dira, landa-eremuen kasuan, eta gainera, udalerrien barruko bide-trazatuak sarbideak nahiz gaitasunak hobetu egin beharko dira.

3.2. Trenbide-sarea

3.2.1. Euskotrenen sarea

Behin eta berriro esan dugunez, eremuko oraingo trenbide-sare nagusia Bilbo-Donostia linea da; bide estukoa da (zabalera metrikoa) eta *Euskotren* enpresak kudeatzen du.

Linea hau nagusia da, baina Zornotzatik Bermeorako adarra (berau ere bide estukoa) ere aipagarria da; zatirik handienera Gernika-Markinako Eskualde Egituratik doa, hain zuzen ere, Oka ibaiaren bokalearen ezkerreko ertzetik (Urdaibaiko luzetarako ardatza). Horrenbestez, linea hori ia aipatu ere ez da egiten agiri honetan, etorkizunean merkantzien garraioan izango duen protagonismoagatik eta Zornotzako eremuarekiko loturagatik ez bada.

Bilbo-Donostia lineara itzulita, eremu honetan zortzi geltoki daude (Zornotza, Euba, Durango, Fauste, Landako, Traña, Berriz y Zaldibar) eta funtzionamendu-maiztasuna 30 minutukoa da egun osoan (6:00etatik 23:00etara).

Jakina da aztertutako eremuak metropoliaren erdigunetik hurbil egotearen eraginez duen ahalmena, garraio publikoari dagokionez.

Eta, Linea hori Zornotzatik Eibarreraino bikoiztu egingo dela aintzat hartuta, ahalmen hori nabarmen handituko da; izan ere, maiztasunetan bikoiztu egingo da eta abiaduretan hobekuntza oraindik ere handiagoa izango da.

Zornotzako eta Durangoko hiri-tarteetan trenbidea lurpetik joateak, gainera, hiri-berrikuntzako ekintza estrategikoak ahalbidetuko ditu, eta horiek eragin handia izaten dute guneeetan.

3.2.2. AHTren etorkizuneko sarea

Bestalde, lanetan dago Euskadin Abiadura Handiko Trena ezartzeko prozesua, *euskal Y* izenarekin; horrek EAEko zati handian ibilbide luzeko trenbide-tarteetan beti egon diren zailtasunak ekidingo ditu.

3.2.3. Diagnostikoa

LZP honek, jakina, ekintza horiek guztiak jasotzen ditu, EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Egitamu Sektorialean jasotakoak, eremuko garraio publikoaren arazoak konpontzeko, bai Eskualde Egitura osatzen duten udalerriak lotzeko elementutzat, bai Bilbo eta horren inguru metropolitarrarekiko lotura indartzeko baliabidetzat.

AHTren linearen garapenak erraztu egingo du Pirinioetatik harako lotura; hala eta guztiz ere, intermodalitatearen garapenerako zailtasunari (Eubako geltoki berriaren proposamenaren kasuan), Eskualde Egiturako gune nagusiak oso urrun kokaturik daudela gehitu behar zaio, eta Bilbo hiritik oso hurbil dagoela (geltoki nagusia).

3.3. Talde-garraioa

3.3.1. Trenbidea, bidaiarien berebiziko garraiobidea

Bidaiarien garraioari dagokionez, eremuaren eraketa, eskualde barruko kokalekua eta, batik bat, Trenbide Egitamuaren barruko proiektuak kontuan hartuta, badirudi bidaiari-jario nagusiak garraiobide honetarantz bideratuko direla, Bilboren nahiz horren inguru metropolitarraren eta Durangoko Eskualde Egituraren artean.

Bide-ardatz metropolitarren pilaketa gero eta handiagoa, trenbide-eskaintzaren bikoizketa, denboren nahiz erosotasunaren bermea eta halako ezaugarriak aintzat hartuta, komenigarria da garraiobide honen aldeko apustua egitea, batez ere Zornotza-Eibar eta Zornotza-Bermeo tarteak bikoiztuta.

Durangoko lurpeko geltoki berriak trukagailua ezartzeko aukera emango du, eta horrek trenbidea konbinatu egingo du autobusarekin. Zornotzako eta horren inguruko trenbide-birmoldaketari buruz ere (gehienbat lurpekoa) antzeko zerbait esan behar da. Garraioaren intermodalitatearen sustapen hau, bestalde, gainerako biztanlegune edota jarduera-eremu nagusietan ere bultzatu beharko da.

3.3.2. Autobuseko garraioa

Lehen esan dugunez, autobusaren bidezko garraio publikoa trenbidekoaren antzekoa da, eta horiek elkarren osagarriak izateko ahalegina egin beharko litzateke, honako hauek bezalako aukerak aintzat hartuta:

- Trenbidea Ibaizabalen ardatzeko bidaiari-garraiorako sustatzea, Bilbo Metropolitarrerako loturan.
- Autobusa Eskualde Egituraren barruko bidaiari-garraiorako erabiltzea, trenaren maiztasunekin eta geltokiekin koordinatuz.

3.3.3. Merkantzien garraioa

Merkantzien garraioari dagokionez, Zornotzaren eta Eibarren arteko trenbide-linea bikoizteak linea hori horretarako erabiltzeko aukera emango du, eta, egindako aurreikuspenen arabera, garraio hori gauez ez ezik, egunez ere egin daiteke, bidaiarien eguneko trenekin bateratuta.

Bermeo-Zornotza adarra bikoiztea garrantzitsuagoa da, kontuan hartuta bertako portuak mugimendu gero eta handiagoa izango duela eta Zornotzan *Portu Lehorra* ezarriko direla.

3.3.4. Diagnostikoa

Jakina, estrategia argia eta koherentea da trenbide-egitامuekin, eta garraibide horren aldeko apustua egiten da, bidaiarien garraiorako bide nagusitzat, Ibaizabalen ardatz osoan, Zornotza-Gernika-Bermeoko igarobiderantz eta, batik bat, Bilborantz eta horren inguru metropolitarrerantz.

Eremuaren gainerako inguruetako garraioa autobusean euskarritu beharko da, eta, kasu batzuetan, erabilera soileko plataformak eratuko dira, horiek trenarekin ondo koordinatuta; horretarako, kudeaketa-lan garrantzitsuak egin beharko dira.

Merkantzien garraioari dagokionez, trenbidearen erabilera sustatuko da, argi eta garbi, eta hori, era berean, errepideetako trafiko astunen oraingo protagonismoa murriztearekin koordinatuko da; horri dagokionez, Sollubeko tunelak irekita eta merkantzien garraioak igarobide horretatik bideratuta, Bermeo-Zornotza bidea gutxiago erabiliko litzateke merkantziak Bilbo Metropolitarrera eramateko.

4. OINARRIZKO AZPIEGITURAK

Durangoko eremuaren tamaina, Bilboren hurbiltasuna, lurraldearen ezaugarri morfologikoen edo dena delakoaren eraginez, Durangoko Eskualde Egiturak garrantzi oso handiko garraio-azpiegiturak ditu, baina oinarrizko azpiegituren kasuan ez da halakorik gertatzen.

Halaber, eremuaren tamaina aintzat hartuta (74.000 biztanle), ez da horri loturiko oinarrizko makroazpiegiturarik behar.

Tentsio altuko linea elektrikoak daude lurraldea zeharkatzen, baina horien kalifikazio funtzionala "igarotzeko lineak" izango litzateke.

Gas-bidea eta telekomunikazioen enbor-sareak oinarrizko azpiegitura-elementuak dira, eta garapen garrantzitsuak sustatzeko ahalmena dute.

Horrenbestez, oinarrizko azpiegiturak, antzeko ikerketetan garraiokoek baino eragin txikiagoa izaten dutenak, azterketa honetan oraindik ere desproporzionatuagoak dira euren partaidetza maila txikiagoan.

4.1. Hornidura

Ur-hornidura, lehenagoko lanetan esan denez, nahiko ondo egokitzen da zerbitzu mailetara, bai azpiegitura-zerbitzuei eta bai zerbitzu funtzionalei dagokienez, eremu guztietako biztanle kopuruaren eta enplegu mailaren arabera eskatu ahal direnak aintzat hartuta.

Baliabide hidraulikoak lortzeko baldintza onei eta lurralde-hedapen zabalei, berriz, gabezia txiki batzuk soilik kontrajarri ahal zaizkie, baina horien eskala ez da garrantzitsua azterketa hauetarako.

Bestalde, Bilboren eta horren hornidurako makroazpiegitura metropolitarraren hurbiltasuna kontuan hartuta, balizko garapenetarako ahalmenak nahikoak direla esan daiteke.

4.2. Saneamendua

Azpiegitura honi dagokionez, hornidura-azpiegituraren antzekoa denez, lehen adierazitakoa esan daiteke, baina zehatzago. Oraingo egoeraren diagnostikoa, orokorrean egokia da, eremurik garatuenetan ezarritako hustubideen eta araztegien Lurralde Sistemen eraginez.

Hala eta guztiz ere, ondo kontrolatu behar dira arazketa-errendimenduak, ibilgu hartzaileek berezko arazketarako duten zaurgarritasuna kontuan hartuta, eta gainera, hiri- eta landa-inguruko hurbileko efluenteak apurka-apurka integratzeko ahalegina egin behar da.

Alde batetik, aipagarriak dira uholdeek hiri-inguruetan eragiten dituzten kalte larriak, eta, hori ekiditeko, udalerrietan ekintza zuzentzaileak aplikatu beharko dira.

4.3. Hondakin solidoak

Azpiegitura honen ezaugarriak (maila handiko politikak eta kudeaketak albo batera utzita, gehienetan xehetasun-eskaletan gertatzen diren ekintzetara igarotzen da), oro har, oztopatu egiten dute lurralde-planifikazioko azterlanen proposamenak zehaztea.

Izan ere, lanen lehenagoko etapetan adierazitakoaren arabera, EAEn lan garrantzitsua egin da azpiegitura honetan, eta azpiegiturak Durangoren eremuan duen ezarkuntza zuzena da; aipagarriak dira Zornotzako Triaje Planta, Durangoko Transferentzia Estazioa eta Zaldibareko Hondakindegia, 2008 urtearen hasieran bukatuz Berrizen ziharduena

Ekonomiaren eta ingurumenaren arloan hobari itzelak ematen dituzten politika horien barruan, aipagarria da honako hauen arteko bereizketa egokia: Hiri Hondakin Solidoak, Industriakoak, Toxikoak edota Arriskutsuak, Ospitalekoak, Nekazaritzakoak nahiz Abeltzaintzakoak, Eraikuntzakoak, Araztegiak (lokatzak), etab. Halaber, bilketa selektiboa eta birziklapenak sustatzea ona da, eta horiek agiri honekin batera datozen planoetan jasota daude.

4.4. Energia (elektrizitatea eta gasa)

Jakina denez, EAEko energia-merkatuaren ezaugarrietariko bat erregai solidoen kontsumo altuak edukitzea da, Estatuko gainerako eskualdeei dagokienez; halaber, petrolioaren eratorrien kontsumo baxuak eta gas naturalaren kontsumo nahiko altuak daude. Era berean, elektrizitatearen gastu bateratua ere altua da, Estatuko edo Europar Batasuneko gastuarekin konparatuta.

Hori guztia, batik bat, Euskadiko ohiko industrializazio motaren eraginezkoa da, batez ere oinarrizko sektoreei eta intentsiboei dagokienez.

Energia-politikak gidatu behar dituzten jarraibide nagusiak, Lurralde Antolamenduaren Jarraibideekin (LAA) koordinazioan, honako hauek dira:

- Energia-iturriak dibertsifikatzea eta gas naturala nahiz aukerako energiak sustatzea.
- Gas naturala garraiatzeko eta banatzeko sareen garapena sustatzea, EAEn erabilera handiagoa edukitzeko.
- Banaketarako hiri-sareak inplementatzea, etxeko eta merkataritzako erabileretarako, eremurik egokienei lehentasuna emanez (biztanleria-edota enplegu-lerrunak eta gas-bideen hurbiltasuna).
- Bilboko eta horren inguru hurbileko Gas Sistema Orokorren hedapen metropolitarra sustatzea, batik bat Ibaizabalen ardatzetik.
- Fuel, ikatz eta halakoen instalazioak gas naturalera birmoldatzeko sustapena egitea, horrek ingurumen-hobekuntza ere badakarrelako.
- Energia aurrezteko ekintzak sustatzea, batez ere baterako sorkuntzak, gehienbat kontsumorik handieneko sektoreetan (papera, kautxua, sektore kimikoa, siderurgikoa, elikagaiak, etab.).
- Energia berriztagarriei loturiko proiektuak bultzatzea.

- Energia Azpiegiturak eta Lurralde Antolamendua koordinatzea.
- Energia-erakunde desberdinen politikak koordinatzea, ezarkuntza estrategikoenetarako dituzten espazioen erreserba ahalbidetzeko.
- Trazatuen aukera desberdinen artean, ingurumen-eraginik txikienak sortzen dituztenak aukeratzea.
- Interferentziak ahalik eta gehien murriztea eta energia-azpiegitura desberdinak bateratzea.
- Energiaren sektorean planifikazioa, ikerketa, prospekzioak eta halakoak sustatzea.

4.4.1. Elektrizitatea

Lehen esan dugunez, Eskualde Egiturako eragin nagusiak berori zeharkatzen duten Tentsio Altuko Lineak dira, batez ere 400 kV-ekoak (iparraldeko mugatik doazenak), 220 kV-ekoa (ibilbide ortogonal Urkiolarantz) eta 132 kV-eko beste batzuk.

Jakina, eragin handiak dituzte paisaian eta ingurumenean, eta, beste alde batetik, aztertutako inguruan ez dute hobaririk sortzen edota euren ahalmenak deusezak dira; izan ere, tentsio oso altuek eskualdez gaindiko eremuen artean garraiatzen dute energia elektrikoa.

Eremuko azpiegitura elektrikoa bertan ezarritako azpiestazio ugarietan oinarritzen da, eta, tentsioak hierarkikoki murriztuta, lurralde osoan banatzen da. Emandako zerbitzua egokia da, eta zerbitzu horren hierarkizazio egokiak berebiziko gaitasuna ematen dio eskarien aldaketei eta bilakaerei eraginkortasunez erantzuteko.

Arazo garrantzitsutzat, aipagarriak dira aireko lineek hiriarteko eta, batik bat, hiri-inguruko eremuetan sortzen dituzten eraginak; gainera, aspaldion,

baterako sorkuntzaren bidezko elektrizitate-produkzioak hartzeko arazoak egon dira, lineak beti ez daude prestatuta gaitasun-handitzeei loturiko beharrian horiek asimilatzeke.

Halaber, aipagarriak dira zabalkunde gero eta handiagoa duen energia eolikoak paisaian sor ditzakeen eraginak; izan ere, energia horrek erabiltzen dituen erroten ikusmen-eraginak ondo aztertu beharko dira, energia-hobekuntzekin konpentsatzen diren ikusi ahal izateko; horri dagokionez, kokalekurik egokienak bermatu beharko dira.

4.4.2. Gasa

Azpiegituren barruko elementu garrantzitsutzat, era berean, aipagarria Gasbide Orokorra, Ibaizabalen haranaren ardatzetik doana; dena den, horren eraginak murrizten dituen lurpeko instalazioa da eta ez zortasun handiak edukitzea, lehen aipatu diren gatazka elektrikoekin konparatuz.

Elektrizitate-azpiegituraren kasuan ez bezala, gas-azpiegiturak ia ez du eraginik sortzen, baina ezarkuntza urria dauka hiri- eta industria-eremuetan, nahiz eta gasbideak eta horren adar nagusiek Ibaizabalen ardatz osorako *altako* hornidura egin.

Bestalde, hornituriko eremuetan, zerbitzuaren kalitatea ona dela esan daiteke.

4.5. Telekomunikazioak

Azkenik, azpiegitura horri dagokionez, berriro esan behar da azpiegitura mailako inplikazio gutxiago duela, baina berak sortzen ditu desberdintasunik handienak, ezarritako azpiegitura nagusiaren kalitate desberdinen ondoriozko muturreko teknologiaren kalitate desberdinen eraginez.

LZP onek, jakina, teknologia aurreratuko enbor-azpiegiturak sustatzearen aldeko apustua egiten du, eremuko gune nagusietara heltzeko; horretarako,

oso ona da lotura-ardatz nagusi batean kokaturik egotea, adibidez, Bilbo-Donostia-Frantzia ardatzean.

Modu osagarrian, aipagarria da oraingo operadoreak hirietan ezartzeak (telekomunikazioen oraintsuko liberalizazioaren ostean) sortuko dituen aukerak; horien lubakiak aprobetxatu egin beharko dira oinarritzko gainerako azpiegituren hirigintza berriko nahiz inplementazioko edota berrikuntzako programa osagarrietan.

5. EKIPAMENDUAK

5.1 Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza-ekipamenduak

EAEko hezkuntza-sistemaren oraintsuko garapena (Durangoko Eskualde Egituran korrelatua duena) bi iritzi moten arabera ulertu behar da. Bata orokorra da eta Hezkuntza sistema Antolatzeari buruzko 1/1990 Lege Organiko Orokorretik dator (LOGSE), eta besteak bereziak dira, EAEko errealitatearen ezaugarri berezien eraginezkoak: ikasle kopurua gero eta txikiagoa izatea, ikasleria elkarrekin lehian ari diren bi saretan banatuta egotea (publikoa eta pribatu kontzertatua) eta irakaskuntza elebiduna apurka-apurka ezartzen joatea.

Ikasle kopuru gero eta urriagoa aintzat hartuta, berriro zehaztu beharko dira ezinbesteko baliabideak eta horien lurralde-ezarkuntza egokia. Fenomeno hori areagotzen duten elementuak honako hauek dira: aurreikusteko moduko eskaria hizkuntza-eredu desberdinetan zatikatzea (batez ere eskola publikoa eta pribatua) eta hori lurraldean banatuta egotea, biztanleria sakabanaturik duen eremu batean. Lurralde-planifikazioak udalerri-eskala gaintzeko gaitasuna duten eszenatokiak planteatu behar ditu, halako zuzkidurak aplikatzeko eremutzat, baita haur- eta lehen-hezkuntzan ere.


Horri dagokionez, Durangoko aglomerazioak funtsezko eginkizuna izan behar du pilaketa gunetzat, baina Eskualde Egituraren barruan lurralde-azpierreduak egoteko aukera ere aintzat hartu behar da; horretarako, irisgarritasun oneko lekuetan dauden ezarkuntzak aprobetxatuko dira. Eskualde Egiturako beste udalerri nagusiak (Amorebieta-Etxano), segurutik, Bilbo Metropolitarraren Eskualde Egiturako eskaintzarekin osatu beharko du bere eskaintza.

Bi hezkuntza-sare egotea (publikoa eta pribatu kontzertatua), bestalde, EAEko gizarteak erabat onarturiko errealitatetzat hartu behar da. Horretan oinarrituz, bi irakaskuntza mota horien arteko lotura osagarritasunean euskarrituta planteatu behar da. Egindako aurreikuspenen arabera, ikasleriak presio txikiagoa egingo du ikastetxe publikoetan, eta horrek aukera emango du irakaskuntza mota honen eskaintza beste modu batera kualifikatzeko, bete

gabeko eskariei aurre egiteko (bai irakasleen eskaintzaren eta bai lurralde-gabeziak egoteko aukeraren ikuspegitik); aldi berean, bertako baliabide didaktikoak hobetu egin beharko dira.

Euskalduntzeak derrigorrezko mailetan (haur- eta lehen-hezkuntza, batik bat) izandako aurrerakuntza nabariak desagokitzapena sortuko du, hezkuntza-eredu batzuen eskariaren eta oraingo eskaintzaren artean. Derrigorrezkoak ez diren mailetan, tratamenduari buruzko hausnarketa egin beharko da, eredu berezia sortzeko, eta eredu hori gauza izan behar da, gainera, EAEko landa-munduaren lurralde-errealitateari erantzun egokia emateko.

Haur-eta lehen-hezkuntzako ikastetxe publikoak




Bigarren hezkuntzako ikastetxeek pilaketa handiagoa dute Eskualde Egiturako erdialdeko aglomerazioan (Iurreta, Durango) eta Amorebieta-Etxanon, eta

derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza leku horietan baino ezin daiteke egin.


DBHko ikastetxe-sarea, izan ere, derrigorrezkoaren osteko irakaskuntzarena baino trinkoagoa da, batik bat sare publikoari esker. Ikastetxe pribatu kontzertatuak (gehienek haur- eta lehen-hezkuntza eskainita) pilaketa askoz ere handiagoa dute, biztanle-kopururik handieneko udalerrietan (Amorebieta-Etxano, Durango, Elorrio).

Hizkuntza-ereduari dagokionez, ikastetxeen eskaintza EAEko jarraibide orokorren arabera da. Hain zuzen ere, A eta B ereduaren presentzia handiagoa dago, haur- eta lehen-hezkuntzan baino (batez ere, irakaskuntza pribatu kontzertatuan); baina, aldi berean, D ereduak gero eta ezarkuntza handiagoa dauka.


Haur-eta lehen-hezkuntzako ikastetxe pribatuak



Bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoak



Bigarren hezkuntzako ikastetxe pribatuak



5.2. Osasun-ekipamenduak

Osasun-sistema, bere izaera unibertsala eta zuzena aintzat hartuta, lurraldea egituratzeko gaitasunik handien duen elementuetariko bat da. Horri dagokionez, berebiziko aukera ematen du Durangoko Eskualde Egitura sustatzeko, eta hori, EAEko osasun-mapan, oinarritzko hiru zonetan banatuta dago, oso-osorik Eskualde Egituraren barruan dauden hiru zonatan.

- *Abadiño-Berriz-Elorrioko oinarritzko osasun-zona.* Honen barruan Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai eta Zaldibar

sartzen dira, Eskualde Eremuaren barruan, eta Otxandio, bertatik kanpo.

- *Amorebieta-Etxanoko oinarrizko osasun-zona.* Honen barruan udalerri hori baino ez da sartzen.
- *Durangoko oinarrizko osasun-zona.* Honen barruan Durango, Iurreta, Izurtza eta Mañaria udalerriak sartzen dira.

Zona horiek lurralde-mugaketa funtzionalaosatzen dute, oinarrizko osasun-laguntzarako: medikuntza orokorra, pediatria, erizaintza eta emaginak. Eskualde Egitura, ospitaleko espezialitateetarako eta laguntzarako, Galdakaoko ospitalearen mende dago. Eskualde Egituraren barruan beste ospitale bat dago: Zaldibarreko ospitalea, laguntza psikiatrikoa eskaintzen duena; 203 ohe ditu eta osasun-eskualde osoari ematen dio zerbitzua.

Durangoko Eskualde Egiturako osasun-sistemaren baliabideak, horren arabera, oinarrizko osasun-zona bakoitzari dagozkion hiru osasun-zentrotan oinarrituz egituratzen dira, eta horiei Durangoko anbulatorioa gehitzen zaie, kanpoko arreta espezializaturako. Toki mailan, zuzkidura hori osasun-kontsultategien udal-sarearekinosatzen da, eta anbulatorio horiek Osakidetzaaren kudeaketan integraturik daude. Inbertsio garrantzitsuak egin dira oraintsu, udal-jabetzako kontsultategi horien egitura fisikoa osatzeko eta egokitzeko, toki korporazioei dirulaguntzak emanaz, bai eraikin zaharrak berriztatzeko eta bai kontsultategi berriak egiteko, horiek irisgarritasun-araudira egokitu behar izatearen edo beharrizan gero eta gehiago egotearen eraginez (Mañaria).

Oinarrizko osasun-zonen erabateko atxikipenak aukera ematen du lurralde eredu hierarkizatua eta muga fisiko zurrunekoa (ereduari gutxi egokituriko espazio- eta biztanleria errealtateari dagokionez) aplikatzearen eraginezko funtzionaltasunik eza gainditzeko. Oinarrizko laguntza osasun-zona horietatik antolatzeak aukera funtsezko elementua izango da, laguntzarik ohikoenak hiritarrei hurbiltzeko gauza diren osasun-zerbitzuak emateko formula egokiak

sustatzeko. Bestalde, laguntza espezializatua Durangon zentralizatzeak indartu egiten du gune horrek Eskualde Egituraren barrua egituratzeko orduan izan behar duen eginkizuna.

5.3. Kultura-ekipamendua

Kultura-jarduera protagonismoa hartzen doa, handituz baitoa aisialdi gero eta luzeagoa duen biztanleria-sektorea. Aisialdi horren erabilerari dagokionez, kultura-ekipamenduen erabilera funtsezko eskubidea da eta herri-administrazioek erantzun egokia eman behar diote horri. Kulturaren arloko ekipamenduen eskaintza zabala eta dibertsifikatua da, eta nahikoa da Eskualde Egiturako biztanle kopuruarentzat. Zuzkidura maila hori, neurri handian, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak oraintsu egindako inbertsio-lanaren eraginezkoa da, 20.000 biztanletik beherako Bizkaiko udalerrietako ekipamendu berriak sortzera bideratutako diru-laguntzei esker.

Eusko Jaurlaritza, Kultura Sailaren bidez, arlo honetan erantzukizunik handiena duen erakundea da, batez ere EAEko kultura-ondarea defendatzearen, aberastearen, babestearen, hedatzearen eta sustatzearen arloan. Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Kultura Sailaren bitartez, udaletan gero garatuko diren kultura-jardueren laguntza egituratzen du. Udalek kultura sustatzeko programak kudeatzen dituzte eta horiek bizia ematen diote bertako kultura-zuzkidurei. Horri dagokionez, kultura-etxeek (guztiak titulartasun publikokoak) eginkizun garrantzitsua dute kultura sustatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko lanean. Gizarte-egiturak eskatzen dituen kultura-ekimenak bertan euskarritzen dira, eta, horretarako, baliabide materialak eta ekonomikoak euren aukeren arabera eskaintzen dituzte.

Udal nagusiek, adibidez, Durangok, gaitasun nahikoa dute kultura-ekintzako proiektuak (ondo zehaztutakoak) bultzatzeko. Hiribildu horrek gizarte-ekimenak sustatzeko kultura-politika dauka, baita kultura-arloko ikaskuntzak eta sormenak sustatzeko eta dinamizatzeko politika ere.


Ekipamendu horien kudeaketaren eraginez (gehienbat, toki-ekipamendua), gerta daiteke zuzkiduradun udalerrietan bizi ez diren biztanleek halako zuzkidurak eskuratu ezin izatea. Aldiz, hiritarrendandik hurbilago dagoen kudeaketa honen eraginez, kultura-eskaintza oso ondo integraturik dago tokiko bizitzan. Nolanahi ere, ekipamendurik garrantzitsuenen (kultura-etxeak) funtzionamendu mankomunatua lortu behar da, kasuan kasuko udal eremua gainditu ahal izateko.

Liburutegien kudeaketa bateratua, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren bidezkoa, formula egokia izan daiteke oraingo baliabideak hobeto aprobetxatzeko.

Nolanahi ere, ez da ahaztu behar arlo pribatuak kultura-jardueren zabalkundean eta produkzioan duen eginkizuna. Elkarre-egitura aberats batek, dirulaguntza publikoetan ere euskarrituta, kultura-adierazpen asko sor ditzake eta horiek eskaintza publikoa osatuko dute.

a) Kultura-etxeak.

Eskualde Egituraren udalerri gehienetan, zuzkidura egokiko kultura-espazioak daude, horien eragin-aldeetan kultura-ekintzako lan egokia sustatzeko. Erabilera anitzeko espazioak dira eta, horietan, bizikidetza bultzatzen da, era askotako jardueren bitartez: erakusketa-aretoak, liburutegiak, tailerrak, heziketa-zentroak, proiektzio-aretoak, antzerki-jarduerak, etab.



b) Liburutegiak

Udal-liburutegiek sare osoa osatzen dute eta horrek presentzia dauka eremuko udalerrri guztietan. Inprimaturiko informazioaren erabilerari loturiko jarduerak sustatzeko eta hedatzeko berezko helburua edukitzeaz gain, harremanak izateko eta sustapen sozio-kulturaleko lekuak ere badira.

c) Euskaltegiak

Euskaren erabileraren eta normalizazioaren sustapenak, helduak euskaldunduz eta alfabetatuz, zentro-sarea dauka eta horiek presentzia dute udalerririk gehienetan, bai udal-zentroen bidez (Amorebieta-Etxano, Durango) edo bai zentro homologatuak dituzten erakunde pribatuen bitartez (Abadiño, Elorrio, Iurreta, Zaldibar).

Kultura-eskaintza bakarra eta berezia esleitu ahal zaion gune bakarra Durango da, eta horrek toki-mugak eta, halaber, eskualde-egitura gainditzen duen eragin-eremua dauka. Esan daiteke bigarren mailakoa dela, Bizkaiko hiriek euren kultura-interesaren arabera hierarkian duten posizioaren arabera. Hirigune historiko interesgarria dauka, eraikin eta eraikuntza interesgarri askorekin, bai erlijiosoak (Uribarriko Andre Maria, Santa Ana parrokia, Tabirako San Pedro eliza,...) bai zibilak (Zabalatarren jauregia, Etxezarreta jauregia, Olalde jauregia). Era berean, garrantzi handiko ikuskizuna antolatzen du (Euskal liburu eta disko azoka) eta horren eragin-eremua EAE osora heltzen da. Gainera, Etxezarreta Jauregian dagoen Arte eta Historia Museoa ere badu. Eskualde-egituraren barruko gainerako udalerrien artean, benetako hirigunea duen bakarra Elorrio da, eta hori monumentu-multzo interesgarritzat kalifikaturik dago, Durangokoaren kasuan bezala.

Durangoko kultura-eskaintza berezia, izan ere, sustatu beharreko elementua da, herriak erdigune funtzionaltzat duen eragina indartzeko eta, aldi berean, zonaren kanpoalderako atetzat sustatzeko.

5.4. Kirol-ekipamenduak

Halako jarduerak sektore publikoak eta sektore pribatuak sustatzen dituzte. Kirolaren antolamendua bi sektore horien (publikoa eta pribatua) arteko lankidetzaren sisteman oinarritzen da; sektoreek erantzukizunak partekatzen dituzten jarduera fisiko-kirolekoak sustatzearen, bultzatzearen eta garatzearen arloan. Sektore publikoaren erantzukizuna administrazio maila desberdinetan ordezkaturik dago.

Kultura Sailburuordetzaren eta, horren barruan, Kirol Zuzendaritzaren helburu nagusia, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan kirola arautzea, sustatzea eta planifikatzea da, baita profesional gaituak trebatzea ere, euskal kirolarien lehiaketa maila hobetu ahal izateko. Lurralde Historikoek kirol-jarduera sustatzeko ardura dute, guztientzako kirolaren eta eskola-kirolaren arloan.

Udalerriek laguntza ematen dute kirola sustatzeko politika horretan, eta horren helburu nagusia aisialdiari eta jolasaldiari loturiko jarduerak sustatzea da,

lehiaketa-jarduerak sustatzea baino gehiago, eta hori udal-titulartasuneko ekipamenduen bidez egiten da. Udal handi batzuek, esate baterako, Durangok (Garapen eta Ekintza Komunitarioko Udal Erakundea), halako jarduerak kudeatzeko elkargo autonomoak izaten dituzte.

Durangoko Eskualde Egituran, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren helburuen artean, kirol-instalazio batzuen kudeaketa sartzen da eta horien erabilera zenbait udalerriren artean partekatzen da (Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar): Berrizeko eskualde belodromoa da, baita atletismo pista eta trinketa ere.

Durangoko Eskualde Egiturako kirol-instalazioek gehienbat zuzkidura-izaera dute, eta zonako biztanle ia guztiengana zuzenduta daude. Horri dagokionez, aipagarria da ikuskizun-kirolaren praktika Durangoko frontoira mugatzen dela, eta, frontoi hori, Gernika-Lumokoarekin eta Bilbokoarekin batera, kirol horrek Bizkaian duen jarduera profesionalaren lehenengo postuan dago. Instalazio batzuek, halaber, beharrezko maila teknikoa dute kiroleko goi-lehiaketan jarduteko (adibidez, Berrizeko udal-belodromoa). Durangoko Eskualde Egiturako kirol-eskaintzaren multzo nagusia, hala eta guztiz ere, batik bat jolas-izaerako kirol-jarduera sustatzen duten instalazioek osatzen dute (beste jarduera sozio-kultura batzuei asimilatzeko moduko instalazioak), edo eskola-instalazioek, eta horiek ikastetxeen hezkuntza-programaren barruan sartzen dira.


Kirol-instalazioen zuzkidura, gehienbat udal-titulartasuneko ekipamenduetan euskarritua, oso egokia da. Zentro horien kudeaketak (batez ere, garrantzitsuenen kasuan) euren erabilera intentsiboa bermatzen du. Erabilera anitzeko polikiroldegien sareak banaketa egokia dauka. Eskualde Egiturako gunen nagusietan daude (batik bat, Amorebieta-Etxano, Durango eta Elorrio), eta hori baliozkoa da gunen horiek eskualdeko toki nagusitzat edo azpinagusitzat indartzeko (batez ere, Durangoren eta, neurri txikiagoan, Elorrioren kasuan).

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren ekimena, kirol-ekipamendu berezi batzuen udalerriz gaindiko kudeaketari lotutakoa (eskualde-belodromoa), biderik egokiena da udalerririk txikien zuzkidura kualifikatu ahal izateko.

Euskal Herriko herri-kirolen instalazioak, batzuetan oinarrizkoegiak izan arren, ezarkuntza maila bikaina dute lurraldean.

Instalazio bereziak, bai ikuskizun-kiroleko bokazioa dutenak (Durangoko frontoia) edo bai lehiaketarako erabiltzen direnak (belodromoa), Eskualde Egiturak kanpora begira duen erakarpen-elementu interesgarriak dira.

Udalerriz gaindiko polikiroldegiak edo instalazio bereziak



5.5. Gizarte-ongizateko ekipamenduak

Azken urteotan antolamendu-koherentziaren, garapen materialaren eta baliabidearen zehaztapenaren arloan gehien aurreratu den zuzkidura-

sektorea gizarte-zerbitzuena da, eta gizarteak eta demografiak azken urteotan izandako aldaketekin bat dator.

Gizarte-zerbitzuen sistemaren antolamenduak behin betiko finkatu du doktrinan eta praktikan eraginkorrena izan den sailkapena: gizarte-zerbitzu espezializatuak eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak. Gainera, talde bakoitzaren eginkizunak azaldu eta eskumena, berriz, lurralde historikoetako udalen eta foru-organoen artean eratziki da; halaber, arautu egin da ekimen pribatuak gizarte-zerbitzuan ematearen arloan izan dezakeen esku-hartzea.

Hurbiltasun-printzipioa kontuan hartuta, gizarte-zerbitzuak deszentralizazio ahalik eta handieneko irizpideetan (biztanleengandik hurbilago dauden organoak eta erakundeak) eta laguntza pertsonalizatuko irizpideetan (laguntza-unitate txikiak) oinarrituz emango dira.

Finkatzeko prozesuan dagoen zuzkidura-zerbitzua izatean, halako ekipamenduen garapenaren beraren eraginez, oraintsu arte halakotzat hartu ez diren beharrian berriak sortu eta kalitate nahiz erabilgarritasun maila gero eta handiagoak eskatzen dira. Halako establezimenduen eskaria, gabezia-egoerei loturiko alarma-seinalea baino gehiago, kasu askotan horien arrakastaren ondoriozkoa da.

Oinarritzko gizarte-zerbitzuei dagokienez, biztanleei eskainitako laguntza mailak albo batera utzita (profesional kopurua, erabilitako baliabide materialak nahiz ekonomikoak, etab.), eta ekipamenduaren lurralde-ezarkuntza soilik aintzat hartuz, egoera ona dela esan daiteke. Oinarritzko gizarte-unitateen irisgarritasun-baldintzak egokiak dira, biztanleria sakabanatuta egoteak edo mugikortasun-arazoak dituzten adineko pertsona kopuru handiak oztopoak sortu arren. Nolanahi ere, arazo horiek gehienbat lan egiteko moduak beste modu batera orientatuta konpondu behar dira batez ere, zentroak beste kokaleku batzuetan jarrita baino gehiago.

Hirugarren adinerako zentroei dagokienez, egoera oso desberdina da elkarteen, etxeen nahiz klubien eta egoitzen artean. Lehenengoak bizikidetza-zentroak dira eta, gehienez, etxebizitzatik 500/600 metroko distantzian egon

behar dute, zerbitzu-egokia eskaini ahal izateko; beraz, zaila da biztanleria sakabanatuko landa-inguruan halakoak egotea, soluzioak zerbitzuaren berrantolaketatik soilik etor daitezke (garraioko formulen ikerketa), zentroen gaineko esku-hartzetik baino gehiago.


Egoitzei dagokienez, sare publikoa bera bakarrik agian ez da nahikoa, baina eskaintza pribatuak (neurri batean erakundeek egindakoa) ondo osatzen du, alderdi kuantitatibotik. Eskualde Egiturak halako zerbitzuak lurraldean antolatzeke eremuaren eginkizuna izan dezake, zerbitzuok gutxieneko tamaina behar baitute ondo administratzeko.

Ezinduentzako zentro espezializatuak edo premiazko egoeretan dauden taldeentzako (toxikomanoak, batez ere) zentroei buruz ere antzekoa esan daiteke, eta, kasu honetan, zerbitzua emateko eremua udalerriz gaindikoa izan behar da nahitaez.

Eskualde Egiturarekin ia guztiz bat datorren gizarte-zerbitzuen Amankomunazgo bat egoteak sendotu egiten du udalerraren eta Lurralde Historikoaren arteko eremu funtzionala planteatzeko helburua, eta eremu horrek gaintitu egingo du udalerrri maila, hau da, halako zerbitzuak ematearen arloan gaur egun protagonismorik handiena duen maila.

Elkartegintzak gizarte zibilean duen eginkizun garrantzitsuak ere indartu egiten du sistema, eta gainera, tokiarekiko lotura oso ona ematen dio. Bien arteko koordinazio egokia (Amankomunazgoa eta elkartegintza), Aldundiaren laguntza teknikoarekin eta finantza-laguntzarekin, bide egokia izan daiteke gizarte-ongizateko maila hobekuntza lortzeko.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak



III. AZTERKETA SOZIOEKONOMIKOA

1. DINAMIKA GEOGRAFIKOA

1.1 1986-2001 aldia

Durangoko Eskualde Egiturako biztanleriak joera positibo samarra dauka; Durangoko Eskualde Egiturako biztanleriak joera positibo samarra dauka; dena den, egonkortasun demografikoa adierazten du, aldaketa oso txikiekin, bai adiera absolutuetan eta bai erlatiboetan; 2006ko urtarrilaren 1ean 72.314 biztanle ditu (Iturria: EIN) gutxi gorabehera %5eko hazkuntza 2001 urtearen aldean

Durangoko Eskualde Egituraren barruko udalerrien dinamika geografikoak, oraintsu arte, ohiko eredu egonkorrari jarraitu dio. 2001-2006 aldian izandako udal-aldaketarik gehien-gehienak ehuneko bostetik gorakoak dira, eta, Durangorekin eta Amorebieta-Etxanorekin batera, Abadiño, Berriz eta Garai udalerriek ere biztanleria-hazkunde nabaria dute.


Hazkundearen adierazleak (1986 =100)

	1991	1996	2001	2006
<i>EAE</i>	98,5	98,2	97,5	99,8
<i>Bizkaia</i>	98,0	96,7	95,2	96,7
<i>Durangoko E.E.</i>	99,8	100,6	101,5	106,2
<i>Abadiño</i>	99,1	96,7	95,9	100,4
<i>Amorebieta-Etxano</i>	100,1	101,6	102,4	108,2
<i>Atxondo</i>	101,4	99,1	94,9	95,8
<i>Berriz</i>	100,5	97,7	102,7	111,4
<i>Durango</i>	103,1	108,9	113,9	125,0
<i>Elorrio</i>	95,7	94,5	92,1	91,6
<i>Garai</i>	104,5	99,6	102,9	113,9
<i>Iurreta</i>	94,3	86,2	79,7	73,6
<i>Izurtza</i>	97,5	100,4	96,4	90,9
<i>Mañaria</i>	96,0	90,1	86,3	87,4
<i>Zaldibar</i>	95,3	92,2	87,0	86,9

Iturria: EUSTAT. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak. 1986.1991.1996. 2001eko zentsua. Geuk landuta.
Iturria: INE. 2006ko urtarrilaren 1eko zentsua.

Datuak ikusita ondorioztatzen denez, Eskualde Egiturako biztanleria-hazkundearen ezaugarri nagusia urritasuna da. Urtean 650 biztanle gehiago baino ez dira. Durangoko Eskualde Eremuan tamaina demografiko oso desberdineko udalerriak sartzen dira. Horietariko hiru ez dira 500 biztanleetara heltzen, beste lau ez dira 5.000 biztanleetara heltzen eta bi baino ez dira hiri-izaerakoak eta hamar mila biztanletik gorakoak, eta horiexetan handitu da gehien biztanleria, 1986ari eta 2001ari dagokienez.

Durangoko Eskualde Egiturako biztanleriaren dinamikaren konparazioa.



Hiriko biztanleria guztizkoaren ehuneko 55ekoa da, eta goranzko joera dauka; *landa*-biztanleriak, berriz, beheranzko joera dauka. Hiriko biztanleriaren zatirik handiena Durango eta Amorebieta-Etxanoko udalerrietan dago.

Barreiatutako biztanleria ehuneko hamarrekoa baino ez da eta beheranzko joera dauka. Egoera horiek dentsitate baxuei gehituta, larriagotu egiten da egoera, eskariaren gutxieneko atariak egoteari dagokionez.


Durangoko Eskualde Egiturak EAEko azalera osoaren ehuneko 3,53 dauka, eta biztanleria osoaren ehuneko 3,39. Bizkaiari dagokionez, biztanleriaren ehuneko 6,34 dauka eta lurraldeko azaleraren ehuneko 11,52 (Bilbok banaketa horretan duen garrantzi handia gogoratu behar da).

Biztanleriaren eredua pilatua da eta A-8 autobidearen igarobidean pilatzeko joera dauka, batez ere Durangoko udalerrian; gainera, biztanlerik gutxieneko zonetako demografiak beheranzko joera dauka. Ezinbestekoa da eremua egituratzea, udalerri guztien eta horien hirugarren sektoreen arteko lotura sustatuz; horretarako, komenigarria da Durangoren zentralitatea aprobetxatzea.

Azken hogeitun urteotan motorizazio-indizeek gora egin dute eta, gainera, aintzat hartu behar da zentro metropolitarrak handi bat hurbil dagoela; horren ondorioz, enpleguaren eta bizilekuaren espazio-disoziazioari loturiko egoerak oso ohikoak dira. Pendulu-mugimendu horiek eta beste mota bateko beste batzuek, berriz, interesa kentzen diote bizilekuaren eremu geografikoaren azaleraren eta eskubideko biztanleriaren arteko zenbaki-erlazioen esangura teorikoegiari. Zonako loturetan proiektaturiko hobekuntzek, zalantzarik gabe, sustatu egingo dute pendulu-mugikortasunaren fenomeno hori, eta horrek eragina izan dezake egoitza-dinamikan.

Hazkundeko osagaiei buruzko zifra erlatiboek ez dute arazorik edo itxaropenik adierazten, lurralde-ereduari dagokionez. Panorama sozio-demografikoan edo dinamika ekonomikoan ez dago aldaketa nabaririk aurreikusteko aukerarik ematen duen ezaugarriarik, azken bosturteko hauetan ikusitako joerei dagokienez. Beste gauza bat, izan ere, adin-piramidearen egitura hartzen ari den forma da.


Hazkundearen osagaien bilakaera



Iturriak: EUSTAT: EAEko Jaiotza Estatistika. 1997. EAEko Heriotza Estatistika. 1987. Euskarri digitaleko estatistikak. Geuk landuta.

Durangoko Eskualde Egiturara iritsitako immigranteen piramidearen profila, izan ere, lanaren edo emantzipazioaren eta etxebizitzaren eraginezko jarioen ohiko profila da. 25-34 urte bitarteko pertsonak nagusitzen dira eta sexuaren arabeko egiturak agerian jartzen du bikoteen edo ezkontideen migrazioak direla, gehienetan seme-alabarik eduki baino lehenagokoak, familia handitzeko fasean egon arren.

1996 Aurreko bost urteetako migratzaileen piramidea. 1991-1996




Iturria: EUSTAT. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak. 1986, 1991, 1996, 2001.

Eskualde Egiturako udalerrietako biztanleriek adinen eta sexuaren arabera duten egiturak zahartzeko joera nabaria dauka. Ugalkortasunak 1976tik izandako beherakadaren ondorioz, “oinarriak” estutu eta 0-20 urte bitarteko taldeetan galera handiak egon dira. Aldiz, hortik gorako adin taldeek gora egin dute, bai kasuan kasuko balioetan eta bai biztanle kopuruan. Horrek “gailurreko” zahartzea islatzen du eta hori bizi-itxaropenak gora egitearen eraginezkoa da.

Zahartze-zeinu nabariak dituen irudia edukitzeaz gain, profilak oraindik ere agerian jartzen ditu hirurogeiko hamarkadan Bizkaira egondako migrazio-jario handiak. Azken hamarkadotako piramideak konparatuta ikusten denez, 50-59 urte bitarteko adin taldekoen kopuruak behera egin du, eta talde horretan, 1986an, jario horietan parte hartu zuten belaunaldiak zeuden.

Durangoko Eskualde Egiturako piramidearen bilakaera.



Iturria: EUSTAT. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak. 1986, 1991, 1996. Geuk landuta.

Zahartze-indizeak gorakada nabaria izan du eta ehuneko 14,9koa da, Espainiako estatuko, Europar Batasuneko eta EAEko (%17,0) biztanleriei dagokiena baino txikiagoa.

Gazteria-indizeak, izandako beheraka handiarekin (ia 15 puntu galdu ditu), argi eta garbi adierazten du biztanlerian egon den aldaketa.

Mendekotasun-tasak behera egin du, eta 1986ko 100 pertsona nagusiko 69,0tik 2001eko 51,7ra igaro da.

Ahalezko amen taldeek adinaren arabera duten egiturak ugalketa-gaitasunaren murriztapena iragartzen du.

Biztanleriaren dinamikak berriztapen demografikorako gaitasuna galtzea jartzen du agerian. 1986an jarduera uzteko adineko pertsona bakoitzeko bertan hasteko adineko 1,7 zeuden, eta 1996an 1,6 baino ez. Erlazio hori Espainiako estatukoaren berbera da, baina Europar Batasunekoa (1,3) baino askoz ere handiagoa.

Familien batez besteko tamainaren balio handiak, Eskualde Egiturako udalerrietan erregistratu direnak, bizikidetza-modu tradizionalen nagusitasunari lotu behar zaizkio.

Laburtzeko, dinamika demografikoak zahartzeko joera nabaria adierazten du, piramidearen oinarritik eta gailurretik, baita mendekotasun ekonomikoaren tasaren murriztapena (oraingoz) eta zaharren mendekotasun-tasaren hazkundea ere; beraz, gizarte- eta osasun-ekipamendu gero eta gehiago beharko dira. Tamaina txikiko halako ezarkuntzetan, adineko biztanleriaren mendekotasun-egoeraren eraginezko eskakizunak, neurri handian, familiaren edo auzotartasun-harremanen bidez bete ahal izango dira. Adinaren eta sexuaren arabera egituren dauden aldaketek lotura estua daukate egitura sozio-demografikoarekin eta ekonomikoarekin.

Alderdirik garrantzitsuenetariko bat, zalantzarik gabe, eskola-adineko efektiboen galera nabarmena da. Dinamika geografikoak agerian jarri duenez, biztanleria aktiboaren berriztapen demografikorako ahalmena galdu egingo da nahitaez, baita ugalketa-gaitasuna ere.

Dirudienez, etorkizunean ugalkortasunak gora egin dezake, oraingo balioak oso baxuak baitira, eta zentzuzkoa izango litzateke EBko balioekin bat egitea.

Egituraren adierazleen bilakaera

	Zahartze-indizea (P_{65+}/P_{050a})*100			Gazteria-indizea (P_{0-19}/P_{050a})*100		
	1986	1996	2001	1986	1996	2001
EAE	10,2	14,9	17,0	30,3	21,2	18,1
Durangoko E.E.	8,9	13,4	14,9	31,9	22,5	19,2
Abadiño	6,3	10,0	12,0	36,0	25,4	18,8
Amorebieta-Etxano	8,4	18,7	16,4	32,3	22,0	17,7
Atxondo	11,2	13,6	15,2	30,4	26,8	21,1
Berriz	9,7	14,4	16,6	31,5	21,7	17,0
Durango	9,4	13,5	16,2	31,0	22,7	19,3
Elorrio	9,7	15,8	18,7	30,4	20,9	17,3
Garai	16,3	18,4	19,0	26,1	17,6	14,7
Iurreta	7,6	12,6	17,4	33,6	22,6	16,8
Izurtza	17,4	21,7	26,3	26,8	19,1	10,9
Mañaria	16,4	20,7	19,9	24,8	19,9	15,7
Zaldibar	9,4	13,8	16,9	32,0	21,8	16,5

Iturria: EUSTAT. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak. 1986, 1991, 1996, 2001. Geuk landuta.

Egituraren adierazleen egitura

	Mendekotasun- tasa $((P_{0-19}+P_{65+})/P_{20-64})*100$			Adinekoen mendekotasun-tasa $(P_{65+}/P_{20-64})*100$			Gazteen mendekotasun- tasa $(P_{0-19}/P_{20-64})*100$		
	1986	1996	2001	1986	1996	2001	1986	1996	2001
EAE	68,2	56,5	54,1	17,2	23,4	26,2	51,0	33,2	27,9
Durangoko E.E.	69,0	56,1	51,7	15,0	20,9	22,6	53,9	35,2	29,1
Abadiño	73,2	54,8	46,1	10,9	15,5	16,5	62,3	39,3	29,6
Amorebieta-Etxano	68,6	53,9	52,2	14,1	20,1	23,6	54,4	33,8	28,6
Atxondo	71,1	67,6	58,2	19,1	22,7	22,6	52,0	44,9	35,6
Berriz	69,9	56,5	51,3	16,4	22,5	23,4	53,5	34,0	27,9
Durango	67,7	56,7	55,5	15,8	21,2	23,9	52,0	35,5	31,6
Elorrio	66,8	57,9	56,3	16,2	24,9	27,7	50,7	33,0	28,6
Garai	73,8	56,4	48,3	28,4	28,8	25,3	45,4	27,6	23,0
Iurreta	70,1	54,2	51,9	12,9	19,4	24,3	57,2	34,8	27,6
Izurtza	79,2	68,9	62,2	31,2	36,6	41,5	48,1	32,3	20,7
Mañaria	69,9	68,3	54,1	27,8	34,9	28,2	42,1	33,5	25,9
Zaldibar	70,6	55,2	50,4	16,0	21,4	23,8	54,6	33,8	26,6

Iturria: EUSTAT. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak.
1986, 1991, 1996, 2001. Geuk landuta.

Joera demografikoaren adierazleen bilakaera

	Erregistraturiko jaiotza-tasa			Ahalezko jaiotza-tasa			Biztanleria aktiboaren ordezipena		
	(P ₀₋₄ /P ₅₋₉)			(P ₁₅₋₂₄ /P ₂₅₋₃₄)			(P ₂₀₋₂₉ /P ₅₅₋₆₄)		
	1986	1996	2006	1986	1996	2006	1986	1996	2006
EAE	0.7	0.7	1.2	1.1	1.0	0.6	1.6	1.5	1.0
Durangoko E.E.	0.8	0.9		1.1	0.9		1.7	1.6	
Abadiño	0.8	0.8		0.8	1.2		2.2	1.9	
Amorebieta-Etxano	0.7	0.9		1.1	1.0		1.6	1.6	
Atxondo	1.2	0.6		0.7	0.8		1.9	1.5	
Berriz	0.8	0.8		1.1	0.9		1.7	1.3	
Durango	0.8	1.0		1.2	0.8		1.6	1.6	
Elorrio	0.8	1.0		1.3	0.9		1.6	1.4	
Garai	1.3	1.5		0.9	0.5		1.5	1.5	
Iurreta	0.8	0.8		1.3	1.0		1.9	1.5	
Izurtza	0.6	0.7		0.8	1.4		1.0	1.6	
Mañaria	0.9	0.8		1.4	0.5		1.3	1.5	
Zaldibar	0.8	0.9		0.9	1.1		1.6	1.5	


Iturria: EUSTAT. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak. 1986, 1991, 1996, 2006. Geuk landuta.

2 EGITURA EKONOMIKOA

2.1 Espezializazio ekonomikoaren eredua

Durangoko Eskualde Egiturak EAEren barruan duen kokaleku estrategikoak (Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egiturak jasaten duen ingurumen-narriadurari eta trafiko-pilaketari esker sortutakoa), bertako inbertsio-dinamikak, okupaturiko biztanleriaren bilakaerak, produkzio-egituraren tertziarizazioa eta sektore horrek ikuspegi estrategikotik begiratuta duen garrantziak eratzten duten eszenatokia lagungarria da lurralde-eremu horren dinamika ekonomikoaren zabalkunderako.

Durangoko Eskualde Egiturak aberastasunaren %7,5ko ekarpena egiten dio Bizkaiko Lurralde Historikoari, eta %3,8koa EAE osoari, barne produktu gordinari (BPG) dagokionez. Biztanle bakoitzeko batez besteko errenta Bizkaikorik eta EAEkorik altuena zen, eta horretan Durangoko Eskualde Egiturako herririk gehienek hartzen dute parte, batez ere Izurtzak, bertako eskubideko biztanle kopuru urriaren eta industria mekanikoa nahiz kimikoa udal mugarte horretan biltzearen eraginez itxuragabetu egiten da PBG per capita deritzonaren igoera.




Jarduera ekonomikoaren dinamikaren eta industriako nahiz hirugarren sektoreko jarduerak Eskualde Egituran duten kokalekuaren ondorioz, erreferentziako hiru udalerri dituen toki-produkzioko egitura sortu da: Durango, Amorebieta-Etxano eta Abadiño, garrantziaren arabera antolatuta. Udalerriok zonako BPG osoaren bi herena baino apur bat gehiago sortzen dute.

Durangoko Eskualde Egiturako garapen ekonomikoaren historian industria-jarduerak nagusitu dira, zerbitzuek baino askoz ere protagonismo handiagoa izan dutelarik. Azken bi hamarkadotan tertziarizazio-prozesu nabarmena egon den arren, EAEko batez bestekoarekin alderatuz Eskualde Egituran sektore honek duen garrantzia nahiko txikia da. Prozesu horren ondorioz, krisiaren eraginik handiena izan duten industrietako lanaren soberakina hirugarren sektoreko jardueretara bideratu ahal izan da.

Herrietako produkzioaren espezializazioa, izan ere, industria-eremuak hurbil egotearen eta Eskualde Egiturako udalerri garrantzitsuena izatearen eraginezkoa izan da. Horrela, industriako espezializazio maila oso altua da Amorebieta-Etxanon, Atxondon, Abadiñon eta Berrizen. Bestalde, hirugarren sektoreko jarduerak protagonistak dira Durangon, Iurretan eta Elorrion, batik bat. Lehenengo herri horrek, Eskualde Egiturako herri nagusiak, garapen handiko hirugarren sektoreko jarduera multzoa biltzen du, merkataritzaren, herri zerbitzuen, garraioen, bankuen eta aseguruaren arloan.

BALIO ERANTSI GORDINAREN EGITURA (1996)


(Ehunekoa)



Iturria: Eustat


2.2 Nekazaritza-sektorea

Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, lehen sektoreak (nekazaritza, abeltzaintza eta basoak) oso garrantzi urria dauka Durangoko Eskualde Egiturako produkzio-egituran, eta Bizkaiko Lurralde Historiko eta EAE osoaren batezbestekoaren oso azpitik dago.



Azken urteotan gora egin du murriztapenerako joerak, eta gainera, lehen sektorearen garrantzia gehiago urritzeko joera sortu da; hain zuzen ere, %35eko murriztapena egon da nekazaritzan 1986tik 1996ra bitartean okupaturiko biztanlerian, hau da, kopurua 1986ko 458 pertsonetatik oraingo 295 pertsonetara igaro da. Datu horiek, neurri batean, EAEko landa-munduaren egitura sozioekonomikoen multzoaren berezko dinamiken eraginezkoak dira, hain zuzen ere, nekazaritza-biztanleria zahartzearen, belaunaldien arteko txandarik ez egotearen eta lanaldi partzialeko nekazaritza orokortzearen eraginezkoak.

Nekazaritza-sektorearen garrantzi ekonomiko urria paraleloa da horrek lurraldean, paisaian eta ingurumenean duen eragin handiarekin; izan ere, bertara lotutako erabilerek Eskualde Egiturako lurraldearen %88 okupatzen dute. Zelaiak eta baso-azalerak, horien barruan zuhaitzak dituzten eremuak eta sastrakez nahiz belardiz okupaturikoak sartuta (beste lur batzuk grafikoan), baso-erabileren barruan jasota gelditzen dira, euren ezaugarri topografikoak eta fisiografikoak aintzat hartuta.




Hala eta guztiz ere, lurzoru erabileren ehunekoen banaketak ez du landare estaldura, laborantza eta baso landaketen mosaikoagatik bereizten den lurraldearen errealitatea isladatzen.

Hala eta guztiz ere, lurzoruaren erabileren ehuneko-banaketak ez ditu adierazten lurraldearen ezaugarriak, bertako ezaugarri nagusia landare-estaldurak, laboreak eta baso-landaketak dituzten tesela txikiek osaturiko mosaikoa edukitzea baita.

Nekazaritza-zonak lurraldearen %1ekoak dira, eta Ibaizabalen eta horren ibaiadar nagusien haran estuetan kokaturik daude; zona horiek Bizkaiko garraio-azpiegitura nagusiak trazatzeko erabili izan dira beti, baita industrialde kopuru handia instalatzeko ere, industrialde horiek Bilbo bertatik hurbil egotea eta Durangoko industria-tradizioa aprobetxatzen baitituzte. Igarobide horietan, nekazaritza-erabilerak bazterturik gelditu dira, hirigintza-aprobetxamenduen eta azpiegituren artean dauden zirrikitueta, baita alubioi-lautada inguratzen duten mendietako maldetara ere.

Hurrengo urteotan, segurutik, hiri-, industria- eta azpiegitura-erabilerak nekazaritza-produktibitate handieneko lurzoruak okupatzen jarraituko dute; izan ere, Ibaizabalen igarobidean garrantzi handiko jarduketa kopuru handia garatu beharko da (AHT, industrialdeen hedapena, hirigintza-hazkundeak, etab.). Horrenbestez, Eskualde Egituran laboraturiko azalera oraindik ere gehiago murriztu eta landa-paisaia mendi-lerrokaduretara baztertuta geldituko da.

Durangoko Eskualde Egiturako nekazaritza-espazioaren erabilera ia zati berdinetan banaturik dago, belar-aprobetxamenduen (baratzeak eta artoa, batik bat) eta fruta-aprobetxamenduen (madariak eta sagarrak) artean; horiek, guztira, laboraturiko azalera osoaren %96 okupatzen dute, baina azaleraren zatirik handienean, dena den, baratzeak eta frutak daude, eta horiek laboraturiko azalera osoaren %68 okupatzen dute.



Ikerturiko eremuko beste elementu garrantzitsu bat, izan ere, negutegi-azalera handia izatea da, eta horiek 7 hektareako azalera betetzen dute (azalera garrantzitsua, datu ekonomikoen aldetik). Babesturiko laborerik gehienak baratzeak dira, baina loreen eta apaindurako landareen ustiapenak ere instalatu dira; aprobetxamendu horrek ahalezko errentagarritasun handia dauka.

Durangoko Eskualde Egituran, beraz, nekazaritza-labore intentsiboak nagusitzen dira, batez ere eskulanari dagokionez, baina baita, neurri txikiagoan, kapitalari dagokionez ere; dena den, oro har, nekazaritza-sektorea ezin daiteke sartu merkatuko nekazaritzen barruan; izan ere, ustiapenen ehuneko handia familiek ustiatzen dute eta bertako produkzioa autokontsumorako da, hau da, produkzioaren zati txikia baino ez da erabiltzen toki- nahiz eskualde-merkatuetan saltzeko. Halako ustiapenetan, baratze-nahiz fruta-produkzioen lan-eskakizun handiak familiako kideen lanaldi partzialaren bidez ordeztzen dituzte; horrela, nabarmen murrizten dira lan-kostuak, eta, gainera, zonako ustiapen askok bizirik irauteko aukera dute.

Zona honetan, nekazaritzako espazioa eta jarduera *baserrietan* antolatuturik daude; halako produkzio mistoetan nekazaritzako, basoko eta abeltzaintzako produkzioak sartzten dira, eta horiek, lurralde nahiz ekonomia mailan, elkarren osagarri dira; hain zuzen ere, sektore bakoitzaren garrantzia ustiapen bakoitzaren baldintza geografikoen araberakoa da.

Eskualde Egitura Bilbo Metropolitarretik hurbil egotearen, nekazaritza-jarduerak errentagarritasuna galtzearen eta eskulan handia behar izatearen ondorioz (besteak beste), *baserri* horietariko askok aldatu egin dute euren

betiko lurralde-eginkizuna. Horrela, horietariko asko bigarren egoitzak dira orain, eta, nekazaritza-eginkizuna guztiz galdu ez duten arren, nekazaritza-, baso- eta abeltzaintza-ustiapenak ustiapenaren titularren jarduera nagusiaren osagarriak baino ez dira; izan ere, titular horietariko askok diotenez, nekazaritza-espazioaren narriadura ekiditeko soilik egiten dituzte jarduera horiek.


Prozesu horren garrantzia agerian gelditu da Euskal Herriko landa-espazio osoan, eta, horrenbestez, ikertzen ari garen eremuan ere bai. Hala eta guztiz ere, eta prozesuak lurralde mailan duen garrantzia handia izan arren, ikerturiko nekazaritza-ustiapenen titularren %65,6k aditzera eman dute nekazaritza-jardueran erabateko arduraldia dutela, eta %34,1ek esan dute beste jarduera ekonomiko garrantzitsuagoren bat egiten dutela. Datu horiek agerian jartzen dute nekazaritzako ekoizle eta ustiapen askoren kasuan nekazaritza-sektorearen produkzio-eginkizuna euren helburu nagusia dela. Hortaz, finkatzen diren estrategiak, nekazaritza-jardueraren ingurumen- eta lurralde-eginkizun garrantzitsua sustatzeaz gain, lagungarriak izan behar dira lehen sektoreak ikuspegi ekonomikotik begiratuta dituen mugak gainditzeko.

Ustiapen ia guztiak pertsona fisikoek ustiatzen dituzte, eta horrela, enpresek ia ez dute presentziarik, produkzio-unitateen multzo osoan. Kooperatibismoa ere ez dago jasota errealitate ekonomiko honen antolamenduan, eta horrek nekazaritza-sektorearen arazo larrienetariko bat jartzen du agerian: ekoizleen elkartegintza maila baxua izatea eta lankidetza mekanismorik ez egotea, eskalako ekonomiak handitu ahal izateko eta administrazioekiko nahiz eragile ekonomikoekiko solaskidetza ahalbidetzeko.

Datu horiek lehen sektoreak adinaren arabera duen egiturarekin konparatuta ikusten denez, nekazaritza-jardueraren arazo nagusienetariko bat biztanleria gero eta zaharragoa izatea da; prozesu hori oso larria da ustiapenetako titularrek sektorean arduraldi osoa dutenean. Izan ere, halako kasuetan, hurrengo belaunaldia ez dago prest *baserrien* ardura hartzeko, zenbait zergatiren ondorioz: beste jarduera-sektore batzuek lanbide- eta ekonomia-itxaropen handiagoa eskaintzea, ustiapenak aurrera ateratzeko arduraldi eta esfortzu handia egin behar izatea, eta ustiapenen errentagarritasuna murrizteko arriskuak gero eta handiagoak izatea, Europako laguntzen arloan egon daitezkeen aldaketen ondorioz.

Durangoko Eskualde Egiturako nekazaritza-ustiapenen ezaugarri nagusiak neurri txikiagoak izatea da, bai maila absolutuetan eta bai Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden balioekin konparatuta; horrela, Eskualde Egiturako nekazaritza-azaleraren %76 10 hektareatik beherako unitateetan ustiatzen da.

Ustiapenen tamaina txikia paraleloa da horien partzelazio nahiko altuarekin; izan ere, batez beste, produkzio-unitateak 5,2 lursailetan zatituta daude eta horrek ez-eraginkortasun nabariak sartzen ditu funtzionamenduan.



Hala eta guztiz ere, zonako ustiapenen zati handi batean, autokontsumo hutseko jokabidea dago eta ustiapenok ez dute euren jokabidea enpresa-logikara egokitzen, eta gainera, ez dute kanpoko produkzioen lehiarik jasaten. Halako ustiapenek lanaldi partziala egiten duten nekazariak erabiltzen dituzte, eta bertan, eskulana familiakoa da; produkzioa, gainera, familiaren kontsumora bideratzen da eta zati txiki bat baino ez da saltzen toki-merkatuetan. Ustiapen horiek bizirik iraun dezakete, baldin eta lursailen tamaina txikia bada eta laborantza-teknikek espezializazio maila handiegirik eskatzen ez badute, kasu horretan ez baita inbertsio handiegirik eta iraunkorregirik egin behar izaten.

2.3 Abeltzaintza: teknifikatze- eta modernatze-prozesuan murgildutako sektorea

Abereak dituzten 900 (gutxi gorabehera) ustiapenek 7.000 hektareatik gorako azalera okupatzen dute, hau da, Eskualde Egituraren azalera osoaren %36; ehuneko hori eskualdeko eta probintziako batez bestekoa baino apur bat handiagoa da, eta hori, neurri handian, ikerturiko eremuaren zati handi baten mendi-izaeraren eraginezkoa da.


Aziendarik garrantzitsuena, abelburu kopurua aintzat hartuta, ardiek osatzen dute; hala eta guztiz ere, ekonomiaren eta lurralde-eraginaren aldetik garrantzitsua izan daiteke behien abeltzaintza, eta horren aprobetxamendua esnearen produkziara bideratu da gehienbat; dena den, esnearen prezioaren ondoriozko arazoak eta Europar Batasuneko kuotek eragindako murriztapenen eraginez, apurka-apurka, okelatarako behiak nagusitzen ari dira.

Behi ustiapenen tamaina txikia da; izan ere, batez beste, 8,8 abelburu dituzte eta ia %75ean 40 behi baino gutxiago daude. Egoera hori Bizkaiko esne-sektorekoaren nahiko antzekoa da, eta beraz, esan daiteke ustiapenen dimentsio txikia sektorearen lehiakortasuna murrizten duen faktorea dela, azken urteotan batez besteko tamainak gora egin arren. Gainera, ez dago elkartegintzarik eta kooperatibarik, eta, horrela, ekoizle atomizatuak zaurgarritasun egoeran daude, euren baldintzak ezartzeko arazo gutxiago duten esne-industriei dagokienez.

Ardi- eta behi-aziendaren zati bat erdi-ukuiluratuta dago, eta ikerturiko zonako zati handia betetzen duten zelaiak eta belardiak aprobetxatzen dituzte; horrela, lurralde-baliabide garrantzitsu baten mantenamendua ahalbidetzen dute: paisaia anitza. Hala eta guztiz ere, jarduera nahiz produkzioa merkatura bideratzen dituzten ustiapen profesionalen eta produkzioa familien errentaren osagarritzat erabiltzen dituzten ustiapenen arteko bereizketa nabarmendu behar da.

Ustiapen profesionalizatueta abereak gero eta gehiago ukuiluratzen dira, produkzio mota horrek ustiapen tradizionalak baino kostu txikiagoa duelako eta ustiapen tradizionaletako zelai-azalerak handitzeko inbertsio handia egin

behar delako. Ukuiluratzearekin batera, teknifikazioa ere gero eta handiagoa da, administrazioek laguntzak ematen baitituzte, bai jezteari eta bai arrazen genetikarekin lotutako guztiari dagokionez. Prozesu horien ondorioz, azken urteotan Eskualde Egiturako esne-ustiapenen produktibitateak hazkunde oso handia izan du, EAEko gainerako eskualdeetan gertatu den bezala.




Abeltzaintza-ustiapenak modernatzeko eta teknifikatzeko prozesua, sarritan, betiko produkzio-unitate txikien kaltetan egiten ari da, horiei esne-kuotak erosita, dimentsioak eta produkzioa handitu ahal izateko, Prozesu horren eraginez, ustiapenen produktibitateak gora egin du (lurralde osoan, produkzioak %32ko hazkundea izan zuen 10 urtean, 1989tik 1999ra), eta, joera horri eutsiz gero, laster Estatuko eta Europar Batasuneko produkzioerik handieneko eremuetatik hurbileko mailan egongo da.

Abeltzaintza teknifikatzeko prozesuaren ageriko hobari ekonomikoek ondorio txarrak ere badituzte; horien artean, aipagarria da familia-ustiapen txikien kopuru handia desagertzea. Dinamika horrek ez-eraginkortasun ekonomikoak murrizten ditu sektore osoan, baina ondorio larriak eta agerikoak ditu lurraldean, mugatu egiten baitu landa-espazioaren ehuneko oso altuaren aprobetxamendua, landako espazioaren eta paisaiaren dibertsitatea nahiz kalitatea murriztuz.

2.4 Baso-sektorea


Baso-espazioek (horien barruan *menditzat* hartu diren lurrak ere sartuta), gutxi gorabehera, ikerturiko eremuaren %67 okupatzen dute; gehienak, egotez ere, Ibaizabalen harana inguratzen duten isurialdeetan eta barrualdeko mendi eremuetan kokaturik daude. Batez ere, espazio pribatuak dira, mendi publikoek azalera txikia okupatzen baitute, eta elementu hori lurralde-arazo garrantzitsutzat hartu behar da, nabarmen mugatzen baitu administrazioak baso-espazioetan esku-hartzeko duen gaitasuna. Baso-politika publikoa aprobetxatzeko zailtasunek garrantzi handia hartzen dute espazio honetan; izan ere, baso-azaleraren ehuneko handiari, ahalezko higaduraren tasa altuak eta horri loturiko arrisku geomorfologikoak gehitzen zaizkie.

Baso-espazioaren zatirik handienean intsinis pinuak daude, eta, neurri txikiagoan, birlandaturiko eukaliptoak eta beste pinu batzuk; hostozabal autoktonoek eta pinudien masa mistoek, berriz, azalera oso txikia okupatzen dute. Errealitate hori, izan ere, Eskualde Egiturako baso-espazioen zatirik handiena produkzio-ustiapena izatearen eraginezkoa da. Horrela, hostozabalen masa nahiko handiak zona jakinetan soilik kontserbatzen dira; hain zuzen ere, dena delakoagatik produkzio-ustiapenetik kanpo gelditu diren zonetan, adibidez, mendi publikoetan eta malda handiko nahiz irisgarritasun zaileko beste espazio batzuetan.



Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, espezie garrantzitsu bakarrak *Pinus radiata* eta, neurri txikiagoan, *Pinus nigra* dira. Horien garrantzia euren zuren lehia urriaren eraginezkoa da, Espainiako estatuan eta Europan espezie horrek garapen urria baitauka. Espezie hau oso ondo egokitzen da ikerturiko eremuko bioklimatologiara, eta bere mozte-aldia 35-40 urtera murrizten da; horrela, horren ustiapena jarduera oso errentagarria da eremu honetan. Horren ondorioz, zonako baso espaziorik gehienak ez dira basoak, 1.340 ustiapenetan zatitutako baso-laboreak baizik.

Produkzio-unitate hauen muga nagusienetarikoa bat tamaina txikikoak izatea da; horrela, sektoreko jabetzaren egitura minifundista dela esan daiteke; baso-ustiapenen %92, izan ere, 20 hektareatik beherakoak dira eta euren batez besteko azalera 5-6 hektareakoa da. Egitura horrek nabarmen murrizten ditu baso-masa handiak ustiatuta lor daitezkeen irabazi ekonomikoak, aintzat hartuta landaketaren, erauzketaren eta produkzioa garraiatzearen kostuak, baita hazkuntza-aldian egin behar diren tratamendu guztien kostuak ere.



Baso-ustiapenaren tamainak sortzen duen arazoa nabarmenduta gelditzen da, ekoizleen elkartegintzarik eta lankidetzarik ez egotearen ondorioz; horrela, kostuak oso handiak dira eta horrek eragina dauka ustiapenaren errentagarritasunean eta sektorearen lehiakortasunean. Gainera, landa-espazioko erabileren izaera osagarria ere kontuan hartu behar da; hain zuzen ere, ustiapen kopuru handia lanaldi partziala duten basozainek edo baso-kudeaketan profesionalak ez diren *baserrien* jabeek kudeatzen dituzte, eta horiek ez dute kanpoko laguntza tekniko nahikorik.

Horrela, kudeaketa egokirik ezaren eraginezko ondorio ekonomiko txarrei, lurralde-izaerako arazo batzuk gehitzen zaizkie; esate baterako, basoko bide eta zura ateratzeko bide kopuru handiegia egin behar izatea, malda handiko lurretan, eta horrek arrisku geomorfologikoak sortzen ditu. Halaber, kudeaketa ez da profesionala eta, horren ondorioz, *Pinus radiata* espezieko masak erabiltzen baso-soilketak erabiltzen dira ia beti, eta horiek, ikuspegi ekonomikotik begiratuta egokienak izan arren, beharrezkoak ez diren arriskuak sortzen dituzte isurialdeen egonkortasunean. Horrek arazoak sor ditzake baso-ustiapenak denboran jarraipena izateko, edo behintzat, nabarmen murrizten du ustiapenaren produktibitatea, ikuspegi naturaletik begiratuta.

2.5. Industria-jarduera, dinamika ekonomikoaren bizkarrezurra

Euskadiko industria-sektorean bi hamarkadako arazoak eta egokitzapenak izan ondoren, EAEko berrindustrializatzeko-prozesuak ezaugarri bereizgarriak izan ditu, batez ere industria-espezializazioari eta azken 20 urteotako birmoldaketa-prozesuari lotuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan eta, hain zuzen ere, Durangoko Eskualde Egituran, industriak ahalmen handia dauka oraindik. Gobernuak berrindustrializazioa sustatzearen alde egindako apustuaren, jarduera berri lehiakorragoak sustatzeko lanaren eta garraioen nahiz komunikazioen sareak hobetzearen ondorioz (lurraldea ardatz dinamikoenen bidez egituratzeko eta inbertsioetarako erakargarriagoak izateko), teknologia-eduki handiko industria-kluster berriak sortu dira eta horiek industria-egitura tradizionalarekin batera bizi dira; horrek apurka-apurkako eraldaketa- eta modernatze-prozesua izan du, produkzio-sektore askotan.

Beraz, Durangoko Eskualde Egiturak industria-izaera nabaria mantentzen du eta sektore horrek ere funtsezko eginkizuna dauka harreman ekonomikoetan eta errentaren sorreran. Izan ere, 1996an industria-adarrek ikerketa eremuan zuten garrantzia, eremuan sortutako produkzio osoaren %55,6koa zen,

Euskadiko %35,9 eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren %35,9arekin alderatuz. Eskualde Egituran kokaturiko industriek, 1996an, Lurralde Historikokoan sorturiko BEG osoaren %13,9 sortzen zuten.

Industria-produkzioa mailarik handiena duen gunea Amorebieta-Etxano da. Udalerrri horretan produkzioa oso dibertsifikaturik dago: metalezko eraldatuak, industria kimikoa, zuraren industria, makinaren nahiz tresnen fabrikazioa, etab. Durangoko toki-sektoreko industria-adar nagusiak metalurgiako eta erreminten fabrikazioko jarduerak dira.


EUSTATen arabera, Durangoko Eskualde Egiturako industria-enplegua 3.034 langilekoa zen 1996an. Eskualde Egituran sektorearen krisiaren eraginpeko industria adarretan (gehiegizko mendekotasun azpisektoriala) 1.215 lanpostu galdu ziren 1986tik 1996ra. Jarduera-adar handien arabera, aipagarria da metalurgiak eta industria kimikoak galdutako garrantzi erlatiboa, enpleguari dagokionez, Durangoko Eskualde Egituraren barruan.

Industria-jardueretako espezializazioa¹, lurraldeari dagokionez, industria handiak udalerrri txikietan kokatuta egoteak eta Eskualde Egiturako herri nagusietan industria-eremuak eta industrialdeak egoteak azaltzen du. Horrela, aipatzekoa da Abadiñon dimentsio nahiko handiko enpresak egotea; horiek metalurgian eta industria kimikoan espezializaturik daude, batez ere. Era berean, Atxondoko paperaren, metalezko eraldatuen eta erreminten klusterra aipa daiteke.

¹ Industriako BEGek BEG osoaren gainean duen garrantziaren ehunekoa udalerrian, Eskualde Egituran duen ehunekoari dagokionez.

INDUSTRIA SEKTOREAREN ESPEZIALIZAZIO INDIZEA


(Inizea. Eskualde Egitamua=1)



Iturria: Eustat

Eskualde Egiturako industria-espezializazioa balio erantsi handirik gabeko jardueretan pilatzen da, baina jarduera horiek intentsiboak dira eskulanean, eta, funtsean, zonako giza baliabideak erabiltzen dituzte; horrela, lagungarriak dira biztanleria euren jatorrizko lekuetan mantentzeko. Hala eta guztiz ere, jarduera horien lehiakortasuna gero eta handiagoa izatearen ondorioz, ezinbestekoa da produktibitatea handitzea eta, horretarako, sarritan, giza baliabideak ordeztzen dituzten teknologia aurreratuak sartu behar izaten dira, eta horrek lanpostuak suntsitzen ditu.

Hain zuzen ere, Durangon kokatutako industria-ezarkuntzen erdia baino gehiago metalurgiaren eta metal eraldaketaren klusterrekoak dira. Horri dagokionez, zonak industria-jarduera mota horretan duen espezializazioa handia da, eta jarduera-adar honetako produkzioguneen ehunekoa %51,4koa zen (EAEkoa %31,6). Aldi berean, aipagarria da makinerian, ekipo mekanikoan eta era askotako manufakturetan diharduten establezimenduen ehunekoa.



Eskualde Egiturako industria-enpresa ertaina ETEa da, eta hori hurbilago dago ETE txikitik (0-10 langile) enpresa ertainetik baino (50 langiletik gora). Izan ere, zonako enpresen %10ek soilik zuten 50 enplegatu baino gehiago, 2000. urtean. Enpresa txikien nagusitasuna, izan ere, lehiatzeko hobaria da zona horretan, halako enpresen malgutasun handiagoari (inguru-aldaketetarako egokitzapen azkarragoa) eta enplegua sortzeko gaitasunari esker. Dena den, beste muturrean, finantziarioa lortzeko zailtasuna oztopo handia da halako enpresak garatzeko proiektuetarako, baina hori enpresen arteko lankidetzaren bidez gainditu ahal da.

Nolanahi ere, metalurgian, metalezko eraldatuetan eta garraio materialean duen produkzio-espezializazio handiaren ondorioz, zonako batez besteko enpresa-tamaina Bizkaiko Lurralde Historikokoa eta EAEkoa baino handiagoa da. Hain zuzen ere, Eskualde Egituran 50 langiletik gora duten enpresen ehunekoa Bizkaikoa eta EAEkoa baino bi aldiz handiagoa da: eremu horretan, Lurralde Historikoan dauden neurri horretako produkzio-zentroen %21 Durangon daude.

Eskualde Egiturako jarduera ekonomikoak mendebaldetik ekialdera doan Bilbo-Behobiako A-63 autobidean zehar hedatzen dira, eta horixe da zonako jarduera ekonomikoa egituratzen duen ardatz nagusia. Ardatz horretako

udalerrietan daude industria-establezimendurik gehienak, eta okupaturiko langile gehienek bertan egiten dute lan.

Horri dagokionez, Amorebieta-Etxano, Durango, Abadiño, Berriz eta Elorrio udalerriek, Ermuarekin eta Galdakao batera, tailerrez eta hirigunez beteriko komunikazio-igarobidea osatzen dute, bertan landa-jarduerak industriakoekin eta hirikoekin batera bizi direlarik.

Bestalde, Durangoko Eskualde Egituran industria-egitura sortzeko eta eraldatzeko prozesuak industria-paisaia berezia sortu du: alde batetik, kokaleku jakineko instalazioen pilaketa edo horien justaposizio lausoagoa, baina espazio-eremu jakinekoa, "industria-eremuen" sorrerarekin; bestetik, fabrika-instalazioen polarizazioa landa-inguruan, "industriaguneak" sortuta.

Testuinguru honetan, eta Amorebieta-Etxano – Durango ardatzari industria-jarduerako benetako eremu-izaera emateko, industria-hazkundearen eskaria ardatz horretarantz bideratu behar da.



Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erreserbei dagokienez, Udalplan deritzonak emandako datuen arabera (2008ko abenduan gaurkoturiko datuak), Durangoko Eskualde Egiturak kalifikaturiko 748,74 Ha. lurzoru ditu, eta horietatik %73 okupaturik daude. Eskualde Egituran hutsik dagoen lurzorua 201 Ha.koa da eta okupatu gabeko lurzoru-erreserbarik handiena Amorebieta-Etxanon dago (.) Jarduera ekonomikoetarako lurzorurik ez duen udalerri bakarra Garai da.

Eskualde Egiturako guneko ekonomiko nagusietako lurzoru-erreserbak (adibidez, Durangon, Berrizen, Elorrion eta Abadiñon) nahikoak dira epe laburreko eta ertaineko barne-eskariari erantzuna emateko. Dena den, Eskualde Egiturak Bilbo Metropolitarrako pilaketa arintzeko duen eginkizuna aintzat hartuta, beharrezkoa izan daiteke epe ertainean lurzoru gehiago kalifikatzea.

2.6. Turismo-sektorea: kalitatearen aldeko apustua


Durangoko Eskualde Egitura turismo-garapen ahalmen handidun eskualdea da; izan ere, paisaia-kalitate handia, baliabide naturalen kontserbazio maila ona eta kultura-ondare garrantzitsua ditu, eta horrek guztiak aukera ematen dio turismo-sektoreari loturiko jarduerak garatzeko.

Eskualde Egiturako turismo-ereduaren historiaren ezaugarri nagusiak industria-izaera edukitzea eta EAEko barrualdean kokatuta egotea izan dira. Horrela, turismo-eskaintzaren jarraibidea gastu-gaitasun handiko negozio-turismo tradizionalari lotutako kategoria ertain-altuko establezimenduetan oinarritzen da. Denboran zehar finkatuago dagoen negozio-turismoa aisialdi edo oporretako turismoaren osagarritzat aprobetxatu behar da, betiere zonako turismo-garapenean indarrean egon den parametro nagusia aintzat hartuz: kalitatea eta lehiakortasuna.

Aisialdi turismoa inguruan indarrez agertzeak (Guggenheim museoaren fenomenoari lotuta) Durangoko Eskualde Egituran turismo-sektorea finkatzeko gabezia batzuk agerian utzi ditu. Gabezia horiek, ondo merkaturaturiko produktuetan eta eskaintza faltan gauzatzen dira. Izan ere, Turismo-

eskaintzaren Durangoko Eskualde Egiturako hotel-azpiegitura urria da. Horrela, zenbait urtarotan arazoak daude eskariari erantzuna emateko, adibidez, udan.

Turismo-ostatuaren azpiegitura eta turismo-informazio lekuak Durangoko Eskualde Egituran



Azken urteotan merkatu segmentu berriak erakartzeko asmoz ostatu tipologiaren dibertsifikaziorako joera sumatzen da. Testuinguru honetan, hotelak, nekazaritza-turismoa eta landetxeak jasotzen dituen establezimendu sareak protagonismoa hartzen du. Ildo horretatik, nekazaritza-turismoak garapen handia izan du Durangoko Eskualde Egituran, eta gero eta garrantzi handiagoa duen aisialdiko eta oporretako turismo-eskariaren barruko sektore berrira zuzendutako eskaintza osatzen du. Horrela, nekazaritza-turismoko bisitaririk gehienak estatus ekonomiko ertaina-altua duten bikote gazteak edo seme-alabak dituzten bikoteak dira eta asteburuetan, zubietan eta oporretan gelditzen dira; batez ere, Kataluniatik, Madriletik (hurrenez hurren, %25 eta %16) eta EAetik datoz. Bisitari-tipologia horrek nekazaritza-turismoko ostatuak aukeratzen ditu, eta gehien atsegin dituzten gauzak paisaia eta lasaitasuna, jasotako tratu pertsonal ona eta harremanak dira.

Durangoko Eskualde Egiturak, katalogaturiko ia bost mila mahai-tresnarekin, honako hau ondo konbinatzen jakin du: kalitate bikaineko lehengaiak eta zonako gastronomia-tradizioa nahiz prestakuntza zaindua.

Eskualde Egiturako ingurune fisikoaren eta naturalaren kalitatea, bestalde, aisialdiko, kiroleko nahiz turismoko ekipamenduekin, hiriguneekin eta museoekin osatzen da. Eskualde Egitura lurralde pribilegiatua da aire zabaleko kirol asko egiteko, Urkiolako Parke Naturala berebiziko lekua da mendi-ibilak, mendiko bizikleta, eskalada edo zonako turismo aktiboko enpresek eskainitako beste hainbat jarduera egiteko (espeleologia eta rappela, besteak beste).

Halako jardueren aukerak ez dira Urkiolako Parke Naturalera mugatzen. Izan ere, zona honetan mendi-ibiliko eta bizikletako ibilbideak eskaintzen dira; horietan udalerrien bisitaldiak, panoramikak, paisaia eta kultura- nahiz historia-ondarearen bisitaldiak konbinatzen dira. Gaur egun, proiektu handi bat garatzen ari dira; hain zuzen ere, Eskualde Egituran Ibilbide Luzeko (GR) zidor bat zehazten, seinaleztatzen eta balizatzen ari dira.

Durangoko Eskualde Egiturako turismo-eskaria ondo zehazturiko bi profilek egituratzen dute. Alde batetik, enpresa-jarduerari loturiko negozio-turismoa nagusitu da beti. Horri dagokionez, zonara laneko bileretara doazen bisitarien kategoria ertain-altuko hoteletan hartzen dute ostatua, eta eguneroko batez besteko gastu handia dute; gastu horren barruko partida nagusienetariko bat gastronomia da. Gehienek bi egun baino gutxiago egiten dituzte bisitaturiko lekuan, eta egonaldia luzatzeko joera dute, lanaren eraginezko bisitaldia zonako leku berriak ezagutzeko aukerarekin konbinatuz. Horri dagokionez, zonako turismo-eskaintza dibertsifikatzen ari da gaur egun, eta agerikoa da profesional horiek aisialdiko turismoko bezeroak ere izan daitezkeela.

Eskualde Egiturako ohiko bisitariaren ezaugarriak, aisialdiaren eta oporren segmentuan, ondo zehaztuta daude. Izan ere, turismoa maila ertain-altuko bikoteek edo familiekin osatzen dute; gehienak Kataluniatik, Madriletik, Valentziako Erkidegotik eta EAeko gainerako eskualdeetatik datoz.

Turismoa Eskualde Egiturako hazkunde ekonomikorako iturri iraunkorra izateko gakoetariko bat, horri dagokionez, zonara datorren eskariaren tipologia dibertsifikatzea da, turismoa urtaroen arabera ez izateko, eta, horretarako, Eskualde Egituraren gaitasunak lehentasun handiagoko eskari-segmentuetara bideratu behar dira. Alderdi horretatik, funtsezkoa da turismo-produktu bereziak zehaztea, horien ezaugarriak eredu adostuaren mendeko merkaturatzera egokitzea, turismo-ostatuaren azpiegiturak egokitzea eta produktuen nahiz helmugen arabera sustapen-politika garatzea (eskaintzara eta eskarira egokituta); horretarako, beharrezkoa da teknologia berriak erabiltzea, zuzeneko eta zeharreko merkaturatze-bide berriak errazteko aktibo estrategikotzat.

2.7. Txikizkako merkataritza susperraldia

Durangoko Eskualde Egituran, merkataritza-sektorearen ezaugarri nagusiak merkataritza-formak eraldatzeko prozesua zehazten duten elementuak edukitzea da, eta gainera, aipagarriak dira biztanleriaren erosketa-ohiturak ere, horiek aldaketak sartu baitituzte merkataritza-banaketa-sektorean; horrela, eragina izan dute kudeaketa- nahiz salmenta-moduetan eta merkataritzako jardueren zein tipologia kokaleku espazialean.

Txikizkako merkataritzaren mehatxuez jabetuta, kudeaketa-baliabideak erabiltzeko heziketa, informazioaren teknologien erabilera, bezeroaren arretan, marketinga eta euroa sartzearen inplikazioei nahiz aukerei buruzko informazioa sustatzeko ekintzak inplementatu behar dira, hori guztia funtsezkoa baita sektorearen etorkizuneko iraunkortasunerako eta sustapenerako. Horri dagokionez, Durangoko Eskualde Egiturako txikizkako merkataritza proiektuen dinamikan mugitzen ari da, berori indartzeko eta etorkizunean lehiakorragoa izateko, sektoreko enpresaburuak hazteko eta zabalkundeko estrategien bidez. Egindako proiektuek eta abiatzen ari direnek (adibidez, Durangoko alde zaharreko kaleak oinezkoentzat izatea) aukera emango dute orain narriaturik dauden eremuak epe ertainean finkatzeko.

Eskualde Egituraren barruan, Durangoko udal mugartea eremu osoaren hornitzaile da. Merkataritzaren ikuspegitik, lurralde-kokaleku estrategikoa dauka, eta horrela, erreferentziako guneetariko bat da; eskualde-azpierzemuko leku nagusia da.

Eskualde Egiturako gainerako udalerriek Durangoren inguruan grabitatzen dute, merkataritza-eraginari dagokionez, eta azken urteotan dinamismo garrantzitsua gelditu da agerian. Kontsumoko produktuen merkatuaren kokalekuaren ezaugarriak, izan ere, txikizkako merkataritza-eskaintzaren ezaugarri bereizgarrien arabekoak dira; hain zuzen ere, honako hauek aipa daitezke:

1. Merkataritza-dentsitate handia; bertan, merkataritza txikia nagusitzen da eta merkataritza-azalera handien presentzia oso urria da. Eskualde Egituran dentsitatea 1,7koa da (EAEkoa eta Bizkaikoa baino handiagoa).

**TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN DENTSITATEA
DURANGOKO ESKUALDE EGITURAN
(m²/bizanleko)**



Iturria: Eustat eta La Caixa-ren Ekonomia Urteak (2001)

2. Durangoko Eskualde Eremuan establezimendu kopuruak izandako beherakada iraunkorra izan da azken bost urte hauetan; hori Lurralde Historiko osoan gertatu da eta sektoreak bizi duen egitura-dinamikaren ondoriozkoa da.
3. Tamainako txikizkako establezimenduek presentzia urria dute eta hori agerian gelditzen da merkataritzak enplegu kopuruaren arabera duen egiturari erreparatuta. Izan ere, establezimendu guztien %79,5ek 1-2 enplegatu dituzte, eta ia %95ek 10 enplegatu baino gutxiago dituzte.
4. Establezimendu-sareko batez besteko enplegu kopurua EAEn eta Bizkaian baino txikiagoa da. Nolanahi ere, desberdintasunak daude jardueraren adar batetik bestera; horrela, elikadura-sektoreko batez besteko enplegua txikizkako merkataritzako gainerako segmentuetakoa baino handiagoa da.

2.8. Lan-merkatua

Durango Eskualde Egiturako lan-merkatuan, bildu ere, dimentsioaren, ezaugarrien, prozesu demografikoen eta produkzio-espezializazioaren ezaugarrien ondoriozko elementuak biltzen dira, eta horiek, jardueraren joera onarekin konbinatuta, bere ezaugarri nagusiak zehazten dituzte.

Langabezia maila nahiko kezkagarria izan arren, lan-merkatuaren egitura-ezaugarriak oinarritzekoak izan daitezke epe luzerako hazkunde-gaitasuna handitzeko, ezagupenen pilaketa sustatzen duen pizgarri-sistema erabiltzen baitute. EAEn eta, hain zuzen ere, Durangoko Eskualde Egituran, ahalegina egiten ari dira hezkuntza-sistema eta produkzio-sistema ahalik eta gehien hurbiltzeko, eta, horrela, giza baliabideen trebakuntzaren eta laneskuaren oraingo eskarien arteko egokitzapen handiagoa bermatu ahal izateko. Lanbide Heziketako Euskadiko Plana, berori aplikatzen duten eremuko zentroekin batera, hobetzen ari da enpresetako ikaskuntza praktikoko prozesu estrukturuak eta sistematikoak eskuratu ahal dituen pertsona kopurua eta horien gaitasuna; prozesu horiek okupazioko lanbide-trebakuntzako

ibilbideetan jasota daude, okupazio-heziketako ikastaroetan egindako praktiken, LHlen (Lanbide Hasierako Ikastaroak) eta unibertsitateko praktiken bidez.

Lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren hazkunde handiaren ondorioz, enplegu-eskaintza handiagoa dago. Horrela, eskualdeko biztanleria aktiboaren batez besteko hazkundera, 1986tik 1996ra, %12,4koa izan zen (EAEkoa %11,6koa); 2001ean jarduera-tasa %47koa izan zen. Durangoko enplegu-eskaintzaren ezaugarri horiek agerian jartzen dute faktore positiboak daudela, biztanleria lan-merkatuan sartu ahal izateko; hain zuzen ere, Eskualde Egituraren tertziarizazioa, lan-itxaropen hobeak eta giza kapitalaren zuzkidurak izandako hobekuntza nabaria.

	1991/1986	Hazkundera 1996/1991	1996/1986
EAE			
Biztanleria	-1,5%	-0,3%	-1,8%
> 16 urteko biztanleria	4,3%	4,7%	9,3%
Biztanleria aktiboa	8,2%	3,1%	11,6%
Okupatuak	13,5%	-2,1%	11,1%
Lehenengo enpleguko langabetuak	-25,6%	21,9%	-9,3%
Lan egin duten langabetuak	6,2%	27,8%	35,8%
Biztanleria ez-aktiboa	-7,3%	-2,4%	-9,5%
Zatika zenbaturiko biztanleria	-21,1%	-41,1%	-53,5%
DURANGOKO ESKUALDE EGITURA			
Biztanleria	-0,2%	0,8%	0,6%
> 16 urteko biztanleria	5,7%	6,4%	12,4%
Biztanleria aktiboa	7,8%	4,3%	12,4%
Okupatuak	9,9%	1,5%	11,5%
Lehenengo enpleguko langabetuak	-21,4%	30,1%	2,3%
Lan egin duten langabetuak	26,5%	14,9%	45,3%
Biztanleria ez-aktiboa	-5,1%	-1,6%	-6,6%
Zatika zenbaturiko biztanleria	-14,4%	-52,2%	-59,1%

Iturria: Eustat

Jarduera-tasaren aurrerakuntza garrantzitsua izan da 1986-1996 hamarkadan, eta 2008. urtera arte jarraitu du gorantz, %56,9ko tasarekin; handiagoa izan da emakumeen kasuan, baina gizonen jarduera-tasarekiko aldea oraindik ere handia da, alderantzizko bidea egin arren. Hain zuzen ere,

gizonen kasuan ratio hori Europako batez bestekotik hurbil dago, eta emakumeen kasuan, berriz, nekez gainditzen du %35.

Durangoko Eskualde Egiturako biztanleria aktiboaren heziketa maila ertain-altua da, eta 1986tik aurrera okupatuaren trebakuntzan aurrerapen handia egon da. Izan ere, 1986an ikasketarik gabeko biztanleria okupatuaren ehunekoa %40tik gorakoa zen (EAEn %12), eta 1996an ehuneko hori EAEkoaren antzekoa izan zen (%20), baina oraindik ere apur bat handiagoa da. Halaber, Eskualde Egitamuan, goi-ikasketak dituzten langileen ehunekoa oraindik ere EAEkoa baino txikiagoa da, lurraldean giza kapitala zuzkitzeko esfortzu handia egin den arren.

HEZIKETA MAILAREN EGITURA (Ehunekoak)



Iturria: Eustat

Durangoko produkzio-egituraren ezaugarrietariko bat enplegua sortzeko gaitasun handia edukitzea izan da. EAEko enplegu-eskariarekin konparatuta,

1986-1996ko aldian Durangoko Eskualde Egituran okupatuaren hazkunde-tasak Autonomia Erkidegokoak baino apur bat handiagoak izan dira.

Okupazio osoaren %80 bost udalerritan pilatzen da, eta horiek, jakina, jarduera ekonomikoaren guneak dituzte. Beraz, Eskualde Egituran lan-merkatuaren ezaugarri nagusia Abadiñoko, Elorrioko (Eroskik duen egoitzaren eragin nabaria), Amorebieta-Etxanoko eta Durangoko enplegu-egitura da.

Okupatuaren mugikortasunak ere horixe jartzen du agerian. Aipagarria da lau udalerririk horietan Eskualde Egiturako beste udalerririk batzuetan bizi diren pertsonen %30-40k egiten dutela lan. Hori argi eta garbi ikusten da Durangoren eta Amorebieta-Etxanoren kasuan; izan ere, bi udalerririk horiek erraz gainditzen dute Eskualde Egituratik Bilbora lanera doazen langileen kopurua. Horrela, esan daiteke Eskualde Egituraren produkzio-egitura eremuko giza baliabideekin elikatzen dela; gainera, okupaturiko biztanleriaren irteera txikia dago hurbileko beste udalerririk batzuetara, adibidez, Bilbora eta Arrasatera, bi udalerririk horiek ekonomia-erakarpenerako gune garrantzitsuak izan arren.

Durangoko Eskualde Egituran aldatu egin da lan-merkatuaren egituraren osaketa. Lehenengo eta behin, industria sektorean enpleguaren galera handia izan da, eta hori metalen industrietan pilatzen da. Bigarren sektoreko adar honetan izandako berregituratze-prozesuak ondorioak izan ditu Eskualde Egituraren okupazioaren egitura.

Prozesu hori, neurri handian, zerbitzu-adarren okupazioak konpentsatu du. Izan ere, jarduera ekonomikoaren tertziarizazioaren aurrerakuntza EAEn baino handiagoa izan da, eta hori agerian gelditu da okupazioak zerbitzurik gehienetan hartu duen garrantzia, Bankaren eta Aseguruen kasuan izan ezik. Hain zuzen ere, lan-merkatuaren eginkizunik dinamizatzailena merkataritzak eta hotelek izan dute, beste zerbitzu batzuekin batera, Durangon enpleguen arloko aberastasunik handiena sortzen duen sektorea industria izan arren.

Lehen esan dugunez, Durangok enplegua sortzeko erakutsitako gaitasunarekin batera, biztanleria aktiboaren hazkundera egon da. Bi faktore horiek biltzearen ondorioz, langabezia-tasak gora egin du 1986tik 1996ra.



Langabezia-tasaren mailen gorakada, bestalde, lehenago lan egin duten langabetuen taldeak izandako jokabide txarraren eraginezkoa da. Industria-adarrek (batez ere, metalarenak) izandako birmoldaketak lanpostuak galarazi dituzte. Gainera, EAE osoan ez bezala, oraindik lan-merkatuan sartu ez diren langabetuen kopuruak gora egin du, eta hori, neurri batean, lan-merkatuan lan egiteko adinean dauden pertsona gehiago sartzeak azaldu ahal du.

Langabezia-arazo nagusiak emakumeen taldean daude (emakume langabetuen kopurua langabetu guztien %55 ingurukoa), batez ere emakume gazteen artean, heziketa maila gehien hobetu duen taldea izan arren.



IV. HIRIGINTZA AZTERKETA

1. HIRIGINTZA PLANEAMENDUA

1.1 Sarrera

Udal-planeamenduaren ikerketa funtsezko elementua da Eskualde Egiturako lurralde-errealitatea zein den jakiteko. Bertako hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak zer azalera duen, zein motatakoa den, non dagoen eta zein baldintza dituen jakin beharra benetako eta ezinbesteko tresna da lurraldeen gobernurako. Horrenbestez, jarraipen iraunkorra egin behar da, gutxieneko datu-base orokorra sortuta eta ikerketa nahiko zehatza eginez, Lurraldearen Zati Plana betetzeko fasean erabaki egokiak hartu ahal izateko; dena den, planeamenduaren betearazpen maila aldagarria izango da, denboraren joanaren eta sektore desberdinen garapenaren eraginez, baina hori oinarrizko elementutzat hartzen da, LZPko erabakiak euskarritzeko eredua landu ahal izateko. Planeamendua betearazteak zuzeneko eragina dauka lurraldearen kudeaketan, eta kudeaketa hori udal-planeamendutik egin behar da.

Industria-instalazioetako (egoitzakoak edo aisialdikoak) produkzio-inbertsioari buruzko erabakiak hartzeko, hirigintza prozesuen bilakaera aztertzeko, administrazioen artean edo inbertitzaile pribatuekin egindako hitzartze-jarduketetarako, etxebizitza-egitamu autonomikoak garatzeko eta halakoak egiteko, ondo jakin behar dira udalerri bakoitzak eskainitako erabilgarritasunak eta zerbitzuak, lehia gogorreko egoeran erabaki eraginkorrak hartu ahal izateko.

Ondoren jasotako eta aztertutako informazioaren barruan, Durangoko Eskualde Egituraren barruko udalerri guztien lurzorua aztertzen da, EAEko Lurralde Antolamenduaren Artezpideetan ezarritakoaren arabera.

Horrela, indarreko planeamenduaren dokumentazio homogeneoa lortu nahi da, eta hori objektibatuta egongo da honako puntu hauetan:

- LZPa garatzeko prozesu osoan datu-base bat prestatzea eta mantentzea, planeamenduaren egoerari buruz; bertan, Eskualde Egituraren barruko udalerrien okupazio eta hirigintza maila adieraziko dira.
- Indarreko plangintzaren datuak eguneratzea eta ordutik LZP garatu arte plangintzan egin diren aldaketek gorabehera garrantzitsurik eragin duten aztertzea.
- Udalerrri mailan dauden moda desberdineko lurzoru-erreserbak kuantifikatzea.
- Etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren oraingo hondakin-gaitasuna ebaluatzea, udal mugarte bakoitzean eta Eskualde Egitura osoan.
- Udalerrietan egon daitezkeen gatazkak ikertzea, bai lurraldearen maila fisikoari eta bai planeamenduko indarreko irudien legeko mailari dagokionez.

Horrela, Lurraldearen Zati Planaren Azterketaren eta Diagnostikoaren hasierako faseetatik jasota gelditu da Eskualde Egituraren barruko udalerri guztien udal-planeamenduari buruzko informazio guztia. Udal-planeamendua aldakorra da eta urterik urtera aldaketa, etete edo ikuskapen berri asko egiten zaizkio, baina errealitatea zehatz ezagutzeko aukera ematen du eta hori ezinbestekoa da erabakiak hartzeko.

1.2 Eremua

Durangoko Eskualde Egitamuaaren barruan, Durangaldeko hamaika udalerri sartzen dira, eta horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko bihotzean daude. Gernika-Markinak (iparraldean), Bilbo Metropolitarrak eta Igorrek (mendebaldean), Arrasate-Bergarak (hegoaldean nahiz ekialdean) eta Eibarrek (ekialdean) inguratzen dute. Eremu osoak 25.550 ha.ko azalera dauka.

Dimentsiorik handieneko udalerria Amorebieta-Etxano da. Ia 6.000 ha.rekin eremu osoaren bostena gainditzen du. Luzetarako egitura dauka eta A-8 autobidearen, N-634 errepidearen eta Bilbotik Donostiarako trenbide-linearen garapenak zeharkatzen du; horrela, kokaleku garrantzitsua dauka Eskualde Egituraren garapenerako. Era berean, lurreta, Durango, Izurtza, Abadiño eta Elorrio udalerriak ere eraginpean daude, baina horien dimentsioak txikiagoak dira. Zaldibarrek, Berrizek nahiz Garaik (komunikazio-ardatzaren iparraldean) eta Mañariak (hegoaldean) osatzen dute eremuaren multzoa.

Udalerriok antzeko errealitatea dute, baina bertako lurzoruen sailkapenaren eta kalifikazioaren kasuan ez da gauza bera gertatzen, neurri handian komunikazio- eta garraio-linea handiek (errepideak eta trenbideak) zeharkaturiko udalerrietan industriak presentzia handia izatearen ondorioz. Udalerri horiek (Abadiño, Amorebieta-Etxano, Durango, lurreta eta Elorrio) industria-izaera handia dute, hirigune handiagoak dituzte eta aipaturiko bide-ardatzaren inguruan hazten diren industrialdeei lotuta daude.

Aldiz, Garai osoa eta Berrizen zati bat ez dira hain industria-izaerakoak. Lurraldearen kolonizazio historikoa etxebizitzaren eta nekazaritza- nahiz abeltzaintza-ustiapenen pilaketa txikien bidez egin da, eta landaguneak eratu dira, eskualdeko industria-garapenetik aldenduta.



Durango Eskualde Egituraren barruko udalerriak. Iturria: Geuk landuta.

Hiri-erabilerek Eskualde Egitura osoan okupatu dute lurraldea, bertako topografiari estu lotuta. Hamaika udalerrien jatorriko hiriguneak txikiak ziren; baina, aurreko hamarkadetako garapenaren eta egoitza erabileren nahiz jarduera ekonomikoek lurraldea modu masiboan okupatzearen ondorioz, hiriguneak aldatzen joan dira.

Hiri-garapenak haranetako igarobide estuetakoak baino eremu horizontalagoetan eta luzetara gertatu dira, eta, denborarekin, egoitza- zein industria-hazkundera dituzten hiri-erabileren egitura linealak sortu dituzte.

Z.	Udalerria	Azalera (ha.)
1	Abadiño	3.610
2	Amorebieta-Etxano	5.830
3	Atxondo	2.320
4	Berriz	3.010
5	Durango	657
6	Elorrio	3.720
7	Garai	710
8	Iurreta	2.323
9	Izurtza	430
10	Mañaria	1.760
11	Zaldibar	1.180
GUZTIRA		25.550

Durangoko Eskualde Egiturako Udalerriak. Azalerak

Iturria: Geuk landuta.

Iturri desberdinetan jasotako informazio guztia ikertu eta agirian jaso da; gainera, gaurkotzen joango da, LZParen tramitazioaren fase desberdinetan, eta, Lurralde Eredua eta, horren barruan, Ezarkuntza Sistema azaltzen duen epigrafean, agiri honen Antolamendu Memoria osatzen duten epigrafeak jasoko dira.

2. Durangoko Eskualde Egituran indarrean dagoen udal-planeamendua.

2.1 Indarreko udal-planeamendua

Indarreko planen multzoak eratzen duen hiri-garapeneko ereduan, hamaika udalerritan banaturiko lurralde txikia izatearen eraginezko ohiko desberdintasunak egoteaz gain, antzekotasun eta berdintasun oso interesgarriak daude, xedapenak antolamendu orokor bateratu batean hitzartu ahal izateko.

Lehenengo eta behin, Eskualde Egituraren barruko hamaika udalerrien multzorako ez dago udalerriz gaindiko planeamendu-irudirik, eta LZP hau aplikatuko da lehenengoz, berori garatzeko eta onesteko prozesu osoa amaitu ondoren. Hala eta guztiz ere, EAEko Lurralde Antolamenduko Artezpideen arabera, planeamendu integratua egin behar da Eskualde Egituraren barruko lau udalerritarako: Abadiño, Izurtza, Iurreta eta Durango. Udalerrri horien hiri-garapenak jarraipen urbanizatua osatzen dute. Planeamendu integratuaren helburua, izan ere, udalerrri horietarako Planeamendu Orokorraren Aurrerapen Fasea batera idaztea da, baina hori ez da gauzatu, LAAak onetsi ostean planeamendu orokorraren ikuskapenak eta egokitzapenak egon arren.

Z. Udalerrria	Planeamendu-irudia	Behin betiko on.	Ebazpena BAOn	Araudia BAOn
1 Abadiño	AASS b	1987/02/06	1987/06/06	1989/05/29
2 Amorebieta-Etxano	AASS b	1999/07/15	1999/08/19	2001/01/29
3 Atxondo	AASS b	1998/11/18	1998/12/14	1999/05/10
4 Berriz	AASS b	1997/09/16	1997/10/08	1998/06/30
5 Durango	AASS b			1998/02/02
6 Elorrio	AASS b	2003/09/12	2003/09/25	2005/04/25
7 Garai	AASS b	1991/12/20	1992/01/17	1993/02/01
8 Iurreta	AASS b	1992/08/05	1992/09/01	1992/11/02
9 Izurtza	AASS b	1999/11/29	2000/01/26	2001/12/03
10 Mañaria	AASS b	1995/01/17	1995/02/14	1996/09/23
11 Zaldibar	AASS b	1995/12/22	1996/01/25	2002/10/23

Indarreko planeamenduaren irudia.

Iturria: Geuk landuta. GISen datuak.

Eskualde Eremuaren barruko hamaika udalerriek B motako Arau Subsidiarioak dituzte, udal-planeamenduan ageri denez. Arau horiek udalerririk guztietan behin betiko idatzita eta onetsita daude, azken hamarkadan, eta Durangoko eta Iurretako udal-planeamenduak nahiko berriak dira, baita Amorebieta-Etxanokoak, Atxondokoak eta Berrizekoak ere.

Mañariko Arau Subsidiarioak tramitazio-fasean daude, eta horien onespenez partziala 1996an izan zen. Arau Subsidiariorik antzinakoenak dituen udalerrria Abadiño da (1989koak), baina Arau Subsidiario horien berrikuspenean lan egiten ari dira. 1989tik gaur egunera arte aldaketa asko egon dira udal mugarte horretan: beste 10 udalerrietan guztira egon den aldaketen antzeko kopurua.

Beste muturrean Amorebieta-Etxano dago eta udalerririk horretako Arau Subsidiarioak 1999an onetsi dira.

Egitamurik gehienek helburua hiriaren berrikuntza da, 80ko hamarkadako garapen handiaren ostean. Hori argi eta garbi ikusten da udalerririk handienetan; adibidez, Abadiñon, Durangon edo Amorebieta-Etxanon. Berrikuntza hori, bestalde, udalerrirako eta garapen berrietarako egokia den bide-egitura orokorraren zehaztapenean, ekipamenduetarako lurzorua

lortzean (espazio berdeak, ekipamenduak edo ikastetxeak) eta garapen berriak proposatzean (eraikitako gunearekiko jarraipena) oinarritzen da.

2.2 Lurzoruaren sailkapena indarreko planeamenduan

Udalerri guztietan, planeamenduak jatorrizko hirigunea finkatzeko eta indartzeko joera dauka, eta, horren inguruan, egoitza-hazkunde berriak ezartzen ditu, bai topografian euskarrituz edo bai komunikazio-bide nagusira lotutako auzoak batuz. Jatorrizko guneari lotu gabeko egoitzako lurzoru urbanizagarria duten bi udalerri bakarrak Garai eta Iurreta dira.

Lurzoruaren sailkapenaren mapan, jatorrizko guneen inguruan finkaturiko hiri-lurzoruko azalerak ikusten dira, baita bide-ardatzari lotutako lurzoru urbanizagarriko azalerak ere; horrela, jatorrizko gune-ezarkuntzaren jarraibidea lineala da orain, eta harana betetzeko joera duten komunikazio-sareei lotuta dago.

B motako Arau Subsidiarioetan, 1976ko Testu Bateginean ezarritakoaren arabera, Hiri Lurzorua, Urbanizatzeko gai den Lurzorua edo Lurzoru Urbanizagarria eta Lurzoru Urbanizaezina bereizten dituzte. Udalerriek gehienek Urbanizatzeko gai den Lurzorutzat sailkaturiko lurzoruaren aurreikuspenak dituzte, bai egoitza-erabileraren kalifikazioan eta bai jarduera ekonomikoen kalifikazioan.


Hala eta guztiz ere, udalerri guztiek ez dute lurzoru urbanizagarririk bi kalifikazio horietan. Esate baterako, Atxondon, industria-garapena aurreikusi eta, horretarako, lurzoru urbanizagarriaren erreserba eduki arren, egoitza-lurzorurako ez dago sailkapen hori ezarrita. Aldiz, Zaldibarren eta Garain ez dago jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriaren aurreikuspenik.

2.3 Egoitza-lurzorua

Durangoko Eskualde Egiturako egoitza-lurzoruaren mapan, hiru hirigune handiren presentzia nabarmentzen da: Amorebieta-Etxano, Durango eta Elorrio. Azken hamarkadotako industria-garapenak aldatu egin du lurralde-ezarkuntzaren eredua, eta haran-hondoko ohiko okupazio lineala sortu du, baina horrek ez du aldatu hiriguneen errealitatea. Izan ere, guneezarkuntzak mantendu eta egoitza-garapen berririk gehienak horien inguruan agertu dira.

Amorebieta-Etxanoko planeamendua oraintsukoa da; bertan, hirigunea berriro marrazten da, aurreko hamarkadetan garaturiko urbanizazioekin sortutako zirrikitu-espazioek okupatzen duten lurzoru urbanizagarriko sektoreen bidez. Durangok planeamendurik antzinakoena dauka eta horrek hiri-jarraipena sortzeko ahalegina egin du, bertako Arauen berrikuspenean; gainera, hirigintza-garapenerako gai diren lurzoruak ia guztiz agortu ditu. Elorrioko planeamendu orokorrean hamaika aldaketak egin dira, eta orain horren berrikuspenean ari dira lanean; bertatik abiatutako bideek jarraitutako hiri-hazkundearen eraginez lausotutako gunea indartzeko aukera ematen duten zirrikitu-espazioak okupatzeko joerarekin jarraitzen du.

Landaguneak jatorrizko baserriaren edo baserrien inguruan garaturiko ezarkuntza txikak dira, eta horien ondoan, kasu batzuetan, auzotxoak eratu dira. Landagune horiek biztanleriaren ezarkuntza mota nagusiak dira industrializaziorik urrieneko udalerrietan; adibidez, Garain edo Atxondon. Udalerriak industrializatuak (esaterako, Durango edo Abadiño), berriz, garrantzia galdu dute. Garain 10 landagune daude eta horien lurzoruaren azalera osoa hiri-lurzortzat eta urbanizagarritzat sailkatutako lurzoruaren azalera baino lau aldiz handiagoa da.



Udalerrietan dagoen Egoitzako Lurzoru Urbanizagarria

Iturria: Geuk landuta

Atxondoko planeamenduan ez dago egoitzako lurzoru urbanizagarriko aurreikuspenik, baina udal mugartearen barruko landaguneetan etxebizitza berrien kopuru handia dago aurreikusita.

Hiriguneari lotu gabeko egoitza garapenak dituzten udalerri bakarrak Iurreta eta Garai dira. Garairen udal mugartean hamar landagune daude eta aurreikusitako garapenak finkatu egiten du lurraldea okupatzeko modu hori (lurraldean barreiatu eta toki-errepideen bidez lotutako gunek txiki bidezko okupazioa). Iurretan aurreikusitako garapena salbuespenezkoa da udalerrian, bertako egoitza- eta industria-lurzorua bide-komunikazioaren ardatzari lotuta egon baita beti.

Egoitza Lurzoruko aurreikuspenak

Egoitzako hiri lurzoruaren aurreikuspenei dagokienez, plangintzan 7.530 etxebizitza aurreikusi dira (hiri lurzoru osoaren %25, gutxi gorabehera), eta horien %40 eraiki da. Hiri lurzoru ia osoa lohiz beteta dago (%85 inguru). Garai da hiri lurzoru gehien okupatu duen udalerria (%100). Abadiñon, aurreikusitakoaren %77 inguru eraiki da; eta Durango da denen artean hiri lurzoru gutxien okupatu duen udalerria (%20 inguru).

Egoitzako hiri-lurzoruaren aurreikuspenak.

Z	Udalerria	Plangintzan aurreikusitako etxeb.	Eraikitzeke dauden etxeb.	Aurreikusitako etxeb. aintzat hartuta okupatu dena (%)
1	Abadiño	350	80	%77,14
2	Amorebieta-Etxano	1713	781	%54,41
3	Atxondo	203	117	%42,36
4	Berriz	414	264	%36,23
5	Durango	3117	2.512	%19,41
6	Elorrio	648	228	%64,81
7	Garai	27	0	%100,00
8	Iurreta	367	265	%27,79
9	Izurtza	50	34	%32,00
10	Mañaria	68	40	%41,18
11	Zaldibar	573	258	%54,97
GUZTIRA		7.530	4.579	%39,19

Geuk landuta, 2008ko abendua erreferentziazat hartuta. Iturria: plangintzaren GIS.

Lurzoru urbanizagarriaren okupazioa txikia da, baina lurzoru oso modu ezberdinean garatu da aztertutako udalerri bakoitzean. Durango, Mañaria, Izurtza eta Iurreta udalerrietan oraindik garatzeko dago lurzoru urbanizagarri guztia. Berrizen, ordea, lurzoru urbanizagarrian ia %100ean bete da egoitza garapena.

Egoitzako hiri-lurzoru urbanizagarriko aurreikuspenak.


z	UDALERRIA	Plangintzan aurreikusitako etxeb.	Eraikitze dauden etxeb.	Aurreikusitako etxeb. aintzat hartuta okupatu dena (%)
1	Abadiño	953	412	%56,77
2	Amorebieta-Etxano	2414	1.388	%42,50
3	Atxondo	-	-	-
4	Berriz	347	5	%98,67
5	Durango	635	635	%0,00
6	Elorrio	486	358	%26,34
7	Garai	20	12	%40,00
8	Iurreta	411	409	%0,49
9	Izurtza	14	14	%0,00
10	Mañaria	21	21	%0,00
11	Zaldibar	231	31	%86,58
GUZTIRA		5.532	3.285	%40,62

Geuk landuta, 2008ko abendua erreferentziazat hartuta. Iturria: plangintzaren GIS.

Arlo funtzional osoan oraindik zortzi mila etxebizitza inguru eraiki behar dira, erdia baino gehiago Amorebieta-Etxanoko eta Durangoko udal mugarteetan.

2.4 Jarduera ekonomikoetarako lurzorua

Durangoko Eskualde Egiturak batez ere industria-izaera dauka eta indarreko planeamendu-irudiek horixe adierazten dute. Lurralde Antolamenduko Artezpideetan (LAA) Jarduera Ekonomikorako eremuak aipatzen dira, eta, horien artean, Amorebieta-Etxano-Durango dago.



Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Urbanizagarria Udalerrika.

Iturria: Geuk landuta

Egoitza-erabilerako lurzoruaren okupazioaren kasuan ez bezala, industriak azalera handiak behar ditu industrialdeak eta faktoriak garatzeko; beraz, Durangaldetik doan komunikazio oneko azalera lau osoa okupatzen joan da.

Industrialderik handienak Amorebieta-Etxanon, Iurretan, Durangon eta Abadiñon daude. Horrek aldatu egin du lurraldea okupatzeko eredu tradizionala, eta, horrela, lurralde modu linealean okupaturik gelditu eta industria-jardueraren igarobide bat sortu da.

Jarduera Ekonomikoetarako kalifikaturiko lurzorua

Z. Udalerria	Kalifikatuta	Okupatuta	Hutsik
1 Abadiño	112,28	102,80	9,48
2 Amorebieta-Etxano	294,79	205,72	89,07
3 Atxondo	26,61	19,48	7,13
4 Berriz	42,56	36,74	5,82
5 Durango	90,13	41,53	48,60
6 Elorrio	53,88	49,44	4,44
7 Garai	0	0	0
8 Iurreta	83,91	61,11	22,80
9 Izurtza	17,57	9,57	8,00
10 Mañaria	5,80	1,63	4,17
11 Zaldibar	21,21	19,68	1,53
GUZTIRA	748,74	547,70	201,04

Iturria: 2008ko Udalplan

Udalerri hauetan, baita komunikazio-bide handiei (trena eta errepidea) loturiko gainerako udalerri guztietan ere, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren aurreikuspen handia egiten da. Indarreko planeamendu-irudirik gehienek neurri handiko industrialdeak dituzte aurreikusita; horiek bide-ardatzeko bi ertzak okupatzen dituzte eta betearazpena, berriz, planeamendua onetsi denetik gaur egunera artekoa, antzeko erritmoan egin da.

Eskualde Egituran zazpiehun hektarea baino gehiago bideratzen dira Jarduera Ekonomikoetarako lurzorura, eta orain hutsik dagoen azalera 200 ha.koa da.

Hutsik dagoen lurzoruaren zatirik handienean, lurzoru urbanizagarrian dauden industrialde handiak daude. Jarduera Ekonomikoetarako lurzoruaren aurreikuspenak, berriz, %73 soilik okupatuta garatu dira; beraz, okupatu gabeko kalifikaturiko industria-lurzoruaren eskaintza handia da oraindik, baina lurzoru hori merkatuan sartzeko faktore erabakigarrienerako bat espekulazioa da (lurzoruaren atxikipena).

2.5 Lurzoru urbanizaezina

Indarreko udal-planeamendu osoaren xedapenetan, eskari anitzeko eta garrantzitsuko egoera eta horri aurre egiteko baliabideen urritasuna adierazten da. Hiri-espazioek barne-egiturarik nahiz kalitaterik ez edukitzeari eta garapen berrien aurreikuspenak kontrolatzeari loturiko arazoen tratamenduari lehentasuna ematen zaie, eta, horren eraginez sortu diren egitamuek hiru-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren antolamenduan dihardute; horrela, oso urria da espazio zein jarduera landatarrei, ingurune fisikoa kudeatzeari eta udalerriz gaindiko politika sektorialen hirigintza-integrazioari eskainitako edukia.

Udalerririk gehienetan, lurzoru urbanizaezinean dagoen bereizketa bakarra landa-lurzoru arrunta eta babesturikoa banantzen dituen da. Indarreko planeamenduetan, ingurune fisikoa eta landa-egiturak lurzoru urbanizaezineko osagai pasiboak balira bezala hartzen dira. Udal-errealitatearen funtsezko zatitzat duten balioa onartu arren, euren loturiko jardueren arauketa murriztapen batzuetara mugatzen da.

Halaber, Lurzoru Urbanizaezintzat sailkaturik daude Eskualde Egitura osoan sakabanaturiko landagune guztiak. Landa inguruneetako araubide berezia Lurzoruaren 2/2006 Legeko 29. artikuluan arautu da.

ONDASUN HIGIEZINAK						
Z.	Udalerria	Kalifikaturiko ondasuna	Kalifikaturiko monumentu-multzoa	Kalifikaturiko monumentu-multzoa. Oinarrizko babesak	Kalifikaturiko monumentu-multzoa. Babes ertaina	Kalifikaturiko monumentu-multzoa. Babes berezia
1	Abadiño	Muntxaraz dorrea Udal-hilerria (hasiera emanekoa)				
2	Amorebieta-Etxano					
3	Atxondo					
4	Berriz					
5	Durango	Kurutziaga gurutzea	Durangoko hirigune historikoa	Gainerakoak	Santa Ana zubia Agustinalde zubia Arkuaren errota Santa Ana 6 etxea Eklektika etxea Kalebarria 2 etxea Kurutziaga 4 etxea Zabala etxea Lejarza jauregia Andra Mari 8 etxea Santa Maria 16 etxea Goienkale 18 etxea Kalebarri 14 etxea Antzinako liburutegia Andra Mari zubia	Udaletxea Arribi jauregia Laritz dorrea Uribarriko Andra Mari eliza Quemada etxea Garbitegiak (Andra Mari kalea) Santa Ana eliza Santa Anako arkua Garbitegiak (Zeharkale) Garbitegiak (Barrenkale) Mañaria ibaiko eskailera-mailak Fatxada eklektikoa (Barrenkale 42)
6	Elorrio	Arguiñetako hilobiak	Elorrioko hirigune historikoa	Gainerakoak	Errenacentista etxearen hondakinak Urkizu Aldatzekua Jauregia Don Tello 3 etxea Igarza etxea Garniz Jauregia Valentín de Berriotxo 10 etxea Quintana Jauregia Otsa Jauregia Berrio Ategortua etxea Goiko-Errota etxea Lariz Jauregia Urandarraga Jauregia Maruri-Calvo Jauregia San Pio X 13 etxea San Pio X 14 etxea Iturbe Jauregia Aldasoro-Gerrikabeitia Jauregia Urarka 6 etxea Berrio Jauregia Arespakotxaga-Urkizu Jauregia Dominigontar konbentu Arespakotxaga-Askarraga Jauregia	Jara Etxea jauregia Arespakotxaga jauregia Dohatsu etxea Elorrioko Erdi Aroko hirigunearen sarbidea Udaletxea Lekerika-Otsa jauregirako sarbidea Ibarguen-Urkizu jauregia Arriola Jauregia Urkizu Dorrea jauregia Arabio jauregia Esteibar-Arauna jauregia Tola jauregia San Joanen gurutzea Aldapebeitia jauregia Santa Ana gurutzea Arrosarioaren atea Kurutziaga gurutzea Iturri jauregia (aurreko eta atzeko fatxadak) Hiribilduan sartzeko atea Sortzez Garbia Eliza
7	Garai					
8	Iurreta		Goiuria auzoa (hasiera emanekoa)			
9	Izurtza					
10	Mañaria					
11	Zaldibar					

ARKEOLOGIA ONDAREA		
Z.	Udalerria	Kalifikaturiko ondasuna
1	Abadiño	
2	Amorebieta-Etxano	
3	Atxondo	
4	Berriz	
5	Durango	Durango Hiribilduko Arkeologia Zona San Agustin komentua San Francisco komentua Santa Susana komentua Vera Cruz basiliza Magdalena basiliza- ospitalea Santanoste dorretxea 8 zenb.
6	Elorrio	Erdi Aroan sortutako hiribildua Etxebarriako San Agustin eliza Sortzez Garbia eliza Berriotxoako Balentin, 5. zenb. (Urkizu jauregia)
7	Garai	
8	Iurreta	
9	Izurtza	
10	Mañaria	
11	Zaldibar	

3. KULTURA ONDAREA

Durangoko Eskualde Egiturak Arkitektura eta Arkeologia Ondarearen lagin oso aberatsa dauka, eta ondare hori LZPk bere xedapenetan jaso du, EAEko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko eta EAEko Kultura Ondareari buruzko Lurralde Arloko Planeko irizpideen arabera.

Kultura Ondarearen LAPek EAEko Higiezinaren Kultura Ondarearen barruan bi talde nagusi bereizten ditu:

- a) Arkitektura Ondarea: eraikinak, espazioak eta lan arkitektonikoak, eta balio historikoen, artistikoen, antropologikoen, hirigintzakoen, tipologiakoen edo teknikoen eraginez nabarmentzen diren eraikuntzak.
- b) Arkeologia Ondarea: babeserako arkeologia-diziplinaren metodologia behar duten ondasunak. Honen barruan, ustezkotasuneko eremuak eta ondasun sorberriak sartzen dira.

Ondasun batek bi taldeetako balioak ditutenean (arkitektonikoa eta arkeologikoa), bateragarritasun-irizpidea aplikatuko da ahalik eta zorrotzen.

EAEko Kultura Ondarearen LAPen, ondoren adierazitakoaren arabera identifikatzen dira ondasun higiezinak:

- a) Eraikin eta Espazio Monumentalak: Arkitektura Ondarearen barruko higiezinak eta, banan-banan hartuta, kultura-interesa duten espazioak (hiri-espazioak eta bestelakoak).
- b) Eraikitako Monumentu Multzoak: Arkitektura Ondarearen barruko ondasun higiezinaren multzoa, kultura-unitatea osatzen duena.
- c) Arkeologia Ustezkotasuneko Zonak: arkeologia-aztarnak izan ditzaketen eremuak, orubeak edo eraikinak, kasuan kasuko dekretuen edo ebazpenen bidez halakotzat hartzen direnak.

- d) Arkeologia Zonak: ikertzeko arkeologia-metodologia aplikatu beharra duten ondasun higiezinak dituzten eremuak edo lekuak; horien barruan, honako talde hauek sartzen dira:
 - a) Haitzuloetako historiaurreko santutegiak
 - b) Hiribilduak
 - c) Beste aztarnategi edo leku batzuk, tipologia-irizpideen arabera bereizteko modukoak; esaterako, zibilak, militarrek, erlijiosoak, etab.
- e) 7/1990 Legean, kultura-espazioak, hirigintza- eta lurralde-antolamenduari begira, arkitektura-ondarearen barruko goiko kategoriaren batean sartuko dira; dena den, bidezko arauketa sektoriala edo diziplinakoa aplikatu ahal izango zaie.

Abadiñoko Muntzaratz dorrea, Durangoko Kurutziaga gurutzea eta Elorrioko Arguiñetako hilobiak monumentu izendatu dira, uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren bidez, baina horien babesaren ez da egokitzen 7/1990 Legeak babesaren mugari eta araubideari buruz dituen xedapenetara, eta horietan egiteko moduko esku-hartzeak zientzia-berrikuntzakoak eta kontserbazio-berriztapenekoak izango dira, Abadiñoko udal hilerriaren kasuan bezala (San Trokaz), eta hori monumentua da, 1980ko urriaren 31ko EAOn adierazitakoaren arabera.

Azkenik, "Kultura Intereseko Ondasunen Zerrenda" jasotako elementuetan egiteko moduko eraikuntza-esku-hartzeak, Urbanizaturiko Ondarea birgaitzeko babes-jarduketei buruzko 317/2002 Dekretuan jasotako "Birgaitze Esku-hartzeak" deritzon I. eranskinean jasotako irizpideen eta jarduketan arabera, honako hauek izango dira:

- Gaur egun Euskadiko monumentu (kalifikaturikoak edo inbentarioan jasotakoak) izendatzeko proposaturik dauden ondasunetan egin beharreko obrak zientzia-berrikuntzako edo kontserbazio-berriztapeneko eraikuntza esku-hartzeetara egokituko dira.
- Toki-babeserako proposaturik dauden elementuetan berrikuntza motako eraikuntza esku-hartzeak egin daitezke.

Ondoren, Durangoko Eskualde Egituraren barruko arkeologia-ustezkotasuneko zonen zerrendak sartzen dira:

Arkeologia Ustezkotasuneko Zonen zerrenda

Babes-eremuen tipologiak.

A gakoa: Eraikineko horma barruko eremua.

B gakoa: Eraikineko horma barruko eremua + horren inguruko 15 metro, kanpoaldeko ertzetatik hasita.

C gakoa: Elementuak okupatzen duen eremua + horren inguruko 5 metro, kanpoaldeko ertzetatik hasita.

D gakoa: Eraikinak eta erantsitako instalazioek okupatzen duten eremua.

E gakoa: Planoan adierazitako eremua.

1. Abadiño

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko maiatzaren 27ko EHAA.

1. Albiztei haitzuloa (C)
2. Urkiolako San Anton basiliza (A)
3. Olaetxe burdinola (orain, baserria) (D)
4. Zelaikoa baserria (A)
5. Bengoa baserria (A)
6. Ormaetxe baserria (A)
7. San Lorenzo basiliza (ageriko egitura barik)
8. Santa Ageda basiliza (ageriko egitura barik) (E)
9. San Vicente tenplua eta nekropolia (B)
10. Betosolo baserria (A)
11. Arbetxe baserria (A)
12. Irazolako Santa Eufemia tenplua eta nekropolia (B)
13. Irureko San Miguel tenplua eta nekropolia (ageriko egitura barik) (D)
14. Muntzaraz dorretxea (D)
15. Olakua burdinola (A)
16. San Torcaz eliza (B)
17. Abadiñoko dorrea (A)

18. Gazteluako San Martin tenplua eta nekropolia (B)
19. Lebario burdinola (D)
20. Esterripaola burdinola (D)
21. Gerediagako San Salvador basiliza (B)
22. Murueta burdinola (ageriko egitura barik) (E)

2. Amorebieta-Etxano

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko ekainaren 16ko 113. zenbakiko EHAA.

1. Belatzikietako haitzuloa (C)
2. Bernako dorrea (A)
3. Bernako burdinola (D)
4. Bernagoitiako dorrea (A)
5. Zugaza Goikoa baserria (A)
6. Saratzuko San Pedro tenplua eta nekropolia (B)
7. Santa Gurutze basiliza (A)
8. Belaustegiko dorretxea (E)
9. Goiti baserria (A)
10. Zamalloa Erdikoa baserria (A)
11. Aranoko San Martin basiliza (B)
12. Dudeako San Miguel tenplua eta nekropolia (B)
13. Ibarrako dorretxea (orain baserria) (A)
14. Ibarrako burdinola (ageriko egitura barik) (E)
15. Jauregizaharra orube-etxea (ageriko egitura barik) (E)
16. Andrandegi dorrea (baserria) (A)
17. Legarribai burdinola (D)
18. Jasokundearen Andre Maria tenplua eta nekropolia (B)
19. Alakano Menkoa baserria (A)
20. Gizetxe Goikoa baserria (A)
21. Sabuen errota (D)
22. Ugarte burdinola (ageriko egitura barik) (D)
23. Larreako dorretxea (ageriko egitura barik) (E)
24. Larreako San Joan Bataiatzailea basiliza (komentua) (A)
25. Ospitalea (ageriko egitura barik) (E)

26. Etxakosinaga burdinola (ageriko egitura barik) (D)
27. Olabarria burdinola (ageriko egitura barik) (D)
28. Solagureneko San Joan Bataiatzailea basiliza (B)
29. Zabala Goikoa baserria (A)
30. Boroako San Pedro tenplua eta nekropolia (B)
31. Garai baserria (A)
32. Elexagako San Pelaio basiliza (ageriko egitura barik) (E)
33. Gumuzioko San Joan basiliza (orain korta) (A)
34. Astepe burdinola (ageriko egitura barik) (E)
35. Amorebietako burdinola (ageriko egitura barik) (E)
36. Jasokundeko Andre Maria eliza (B)
37. Amorebietako dorretxea (ageriko egitura barik) (orain Cancelada jauregia) (E)
38. Zornotzako errota (ageriko egitura barik) (E)
39. Leginetxeko Santa Luzia basiliza (ageriko egitura barik) (E)
40. San Vicente Martiria tenplua eta nekropolia (B)
41. Nafarroa errota (ageriko egitura barik) (E)
42. Beaskoetxea baserriko zeramika-labea (D)

3. Atxondo

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez izendatuta 1997ko maiatzaren 29ko EHAA.

1. Ziarreta baserria (A)
2. San Pedro eliza eta nekropolia (B)
3. Marzanako San Martin eliza (A)
4. Marzanako dorrea (A)
5. Santa Luzia tenplua eta nekropolia (B)
6. Olazarrako burdinola (ageriko egitura barik) (E)
7. Santiago basiliza (B)
8. Urrutia baserria (A)
9. San Miguel goiaingerua eliza (A)
10. Ollargane baserria (A)
11. San Roke baselizatik hurbileko burdinola (ageriko egitura barik) (E)
12. Olabarriako dorretxea/burdinola (A/D)

13. Arrazolako dorretxea (orain baserria) (A)

4. Berriz

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko urriaren 27ko Ebazpenaren bidez izendatuta.

1. Jainkoaren Jasokundea basiliza (B)
2. Arriako dorretxea (A)
3. Arriako burdinola (E)
4. Zalduene baserria (A)
5. Andikonako Andre Maria tenplua eta nekropolia (E)
6. Andikona baserria (A)
7. Beaskoetxea burdinola (D)
8. Larizko dorrea (A)
9. Abaitua burdinola (D)
10. Lasueneko San Martin basiliza (E)
11. Berrizeko dorrea (E)
12. San Joan Ebanjelaria eliza (B)
13. Berrizko San Pedro basiliza (B)
14. Murgoitiko San Joan tenplua eta nekropolia (E)
15. Zubiazpikoa burdinola (D)
16. Abaro burdinola (ageriko egitura barik) (D)
17. Arangurenko San Fausto basiliza (ageriko egitura barik) (E)
18. Amezuko San Jorge basiliza (ageriko egitura barik) (E)
19. Isuntzako San Pedro tenplua eta nekropolia (B)
20. Argizuri baserria (A)
21. Olabarri burdinola (E)
22. Olazarra burdinola (D)
23. Erroteta burdinola (D)

5. Durango

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez izendatuta.

1. Zumardiko Atariko errota (ageriko egitura barik) (E)
2. Murueta dorrea (orain baserria) (A)
3. Mikeldi burdinola (D)
4. Tabirako San Pedro (A)
5. Aranekola burdinola (D)
6. Zuazolakoa Santa Gurutze baseliza (orain baserria) (A)
7. Santa Luzia baseliza (orain baserria) (A)

6. Elorrio

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez izendatuta.

1. Ossako errotak (ageriko egitura barik) (E)
2. San Fausto baseliza (A)
3. Santa Elena baseliza (ageriko egitura barik) (E)
4. Ibarako dorretxea/errota (A/D)
5. Ibargueneko dorretxea (orain baserria) (A)
6. Aldekonagusi baserria (A)
7. San Vicente baseliza (ageriko egitura barik) (E)
8. Urbelekua baserria (A)
9. Isuarte baserria (A)
10. Berrio baserria (A)
11. San Esteban baseliza (B)
12. Urigarai baserria (A)
13. Santiago baseliza (B)
14. Azkarraga burdinola (orain baserria) (D)
15. Errotatxiki /Aretzaga errota (D)
16. Arregi baserria (A)
17. Zuizar baserria (A)
18. Igartua baserria (A)
19. Zabalekua baserria (A)
20. Santa Luzia baseliza (A)
21. Santa Catalina tenplua eta nekropolia (B)
22. Santa Eufemia tenplua eta nekropolia (B)

23. Arabio Goikoa dorretxea (A)

7. Garai

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko ekainaren 4ko EHAA.

1. Etxeita baserria (A)
2. Bekoetxea dorretxea (A)

8. Iurreta

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko ekainaren 4ko EHAA.

1. Olabarri burdinola (D)
2. Galarza baserria (A)
3. Orobio Goikoa baserria (A)
4. Artaza baserria (A)
5. Erdikola burdinola (D)
6. Trazaola baserria (A)
7. Etxebarria burdinola (D)
8. Gastañazako San Cristobal edo San Antonio tenplua eta nekropolia (B)
9. Jasokundeko Andre Mariaren tenplua eta nekropolia (B)
10. Amatzako San Martin tenplua eta nekropolia (B)
11. Garaizarreko San Mames tenplua eta nekropolia (B)
12. San Miguel eliza (A)
13. Bekolea burdinola (ageriko egitura barik) (E)
14. Goikolea burdinola (ageriko egitura barik) (E)
15. Zubiko errota (D)
16. Santa Apolonia basiliza (B)
17. Arandia dorrea (orain baserria) (A)
18. Arandia burdinola (D)
19. Orozketa-Bekoa baserria (A)
20. Orozketako Santiago tenplua eta nekropolia (B)

21. Gaztañaza dorrea (ageriko egitura barik) (E)

9. Izurtza

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez izendatuta.

1. Izurtzako burdinola (orain baserria) (D)
2. Izurtzako dorrea (A)
3. San Nikolas eliza (A)
5. Lejarza dorrea (A)
5. Errota burdinola (D)
7. Albizola burdinola (ageriko egitura barik) (E)
8. Albizola errota (orain baserria) (D)
10. San Jorge tenplua eta nekropolia (ageriko egitura barik) (E)
11. Urretxa baseliza (ageriko egitura barik) (E)

10. Mañaria

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko ekainaren 6ko EHAA.

1. Silibranka harpea/haitzuloa (C)
6. Kobazar-II haitzuloa (C)
9. Iturretako haitzuloa (C)
10. Markue Goiko baserria (A)
11. Markue-Beko baserria (A)
12. Markue burdinola (orain harrobiaren bulegoak) (D)
13. Jasokundeko Andre Maria eliza (A)
14. San Vicente Ferrer baseliza (hilerria) (A)
15. Arria baserria (A)
16. Garaitorreko San Joan baseliza (A)
17. Garaiko dorretxea (orain baserria) (A)

11. Zaldibar

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko ekainaren 10eko EHAA.


1. Santa Marina baseliza (E)
2. Gatika baserria (A)
3. Zaldibar dorrea (A)
4. San Martin baseliza (A)
5. San Andres Apostolua eliza (A)
6. Zaldua dorrea (A)
7. Eizaga dorrea (A)
8. Eizaga Barrenengua baserria (A)
9. Olaetxea burdinola (D)
10. Olarreaga burdinola (D)

4. ETXEBIZITZA ETA HIGIEZINEN MERKATUA

Eskualde Egituraren barruko etxebizitza kopuru osoak urteko ehuneko 1,78eko erritmoan egin du gora, 1991tik 2001era, eta erritmo hori familia kopuruaren bilakaerak izandako 2,20koa baino apur bat txikiagoa da. Parametro horiek udalerrien artean konparatuta, desberdintasun nabariak ikusten dira, eta aipagarria da familien bilakaeraren aldeko diferentziala handiagoa dela udalerri handietan.

Etxebizitza kopuruak familia kopuruarekiko zuen superabita 3.961ekoa zen 1991n, eta 4.229koa 1996an, Durangoko Eskualde Egitura osorako. Erlazio horrek beherakadaxoa dauka eremu osorako eta, udalerririk gehienetan, familia bakoitzeko 1,2 etxebizitza inguruko balioak ditu.

Familia bakoitzeko etxebizitza-kopurua



Iturria: Geuk landuta EUSTATen oinarrituz. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak. 1986. 1991. 1996

Durangoko Eskualde Egituran 2001ean zeuden 27.168 etxebizitzetatik %86 etxebizitza nagusiak dira. Etxebizitza nagusiaren parkearen bilakaeran jokabide oso desberdinak ikusten dira eta ezin dira joera argien


erreferentziatzen hartu. Izan ere, udalerri askoren tamaina aintzat hartuta, hori abagunearen arabera gorabeheren eraginezkoa izaten da. Etxebizitza mota horri dagokionez, dinamismorik handiena udalerri handienek dute.

1996-2001 bosturtekoaren barruko bilakaerak agerian jarri duenez, Durangoko Eskualde Egituran 1.899 etxebizitzako eta 2.236 etxebizitza nagusiko hazkundera egon da; etxebizitza kopuru osoak hazkundera izan du, familia kopuruak baino txikiagoa, eta udalerri batetik bestera desberdintasun handiak daude, huts dauden artean 709 etxebizitzak murriztea sortuz.

Etxebizitza kopuruaren bilakaera espazialak agerian jartzen duenez, ezarkuntzen lurralde-eskema indartu egin da. Etxebizitza berri guztien erdia baino gehiago Durangon dago, eta, horri Amorebieta-Etxanokoak eta Elorriokoak gehituz gero, guztizkoaren ehuneko 90era hurbiltzen gara.

Etxebizitza nagusien %60 hiri-zonan daude, eta bigarren etxebizitzak %85, berriz, landa-inguruetan daude. Eremuko bigarren etxebizitza urriak gehienak landa-inguruetan kokaturik daude.

Etxebizitza kopuruaren hazkundera, egoitza zonen eta moten arabera. 1991-2001



1991tik 2001erako aldaketek agerian jartzen dute aldaketa nagusi bakarra talde-etxebizitza orokortzea dela. Izan ere, 3-20 etxebizitza bitarteko eraikinetan Durangoko Eskualde Egiturako etxebizitza guztien bi heren baino gehiago biltzen dira, eta tipologiarik dinamikoena osatzen dute.


Etxebizitzek eraikitze-dataren arabera duten banaketak berretsi egiten ditu Eskualde Egiturako dinamikaren alderdiak, azterketa demografikoan egiaztaturikoak. Eskualdeko dinamismorik handiena 1960ko eta 1970eko hamarkadetan izan zen, eta gero, baina askoz ere dinamismo txikiagoarekin, berrogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan. Euskal Autonomia Erkidego osoan gertatzen denez, banaketa hori Bilbo metropolitarraren fenomenoaren garatzearen eraginezkoa izan daiteke. Eremuko etxebizitza guztien ehuneko ia hirurogei 1960tik 1980ra bitartean eraiki ziren. Udalerrri batzuetan proportzio hori hiru laurdenetara heltzen da; adibidez, Abadiñon, Atxondon edo Iurretan. Durangoko udalerriak, garapen endogenorako gaitasun handiagoari esker, dinamika egonkorragoa eta eutsiagoa mantentzen du.

Etxebizitza-parkearen antzintasunean eta horien erabileran ez dago desberdintasun handirik. Orintsu eraiki eta hutsik dauden etxebizitzaren ehuneko handiak, agian, gehiegizko eskaintza jartzen du agerian, edo eskariaren atzerakada, proportzio hori EAEkoarekin konparatuz gero. Zentzuzkoa da oraintsu eraikitako etxebizitzetariko batzuk okupazio prozesuan egotea, eta, beraz, oraindik *hutsik* egotea.

Desberdintasun handirik gabe, Durangoko Eskualde Egiturako etxebizitzaren batez besteko antzintasuna Bizkaikoa edo EAEkoa baino apur bat txikiagoa da.

Etxebizitzaren antzintasuna erabilerekin konparatuta ikusten denez, bigarren etxebizitza ez da sustapen berrien eraginezkoa, antzinako etxebizitzak aldi baterako erabiltzearen eraginezkoa baizik.

EAEko eta Durangoko Eskualde Egiturako etxebizitzaren banaketa, eraikitze-urtearen arabera (2001)



Iturria: EUSTAT. Auzotik Erkidegora. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Erroldak. 1986. 1991. 1996. 2001. Geuk landuta.

Etxebizitzaren ia bi herenak 61-90 m²-koak dira, eta horrek agerian jartzen du etxebizitzaren tamaina modala EAEkoena baino nabariagoa dela. 91-120 m²-ko etxebizitzaren ehunekoak egoitza-egoera lasaiagoa adierazten du, batez ere Durangoko udalerrian, beste udalerri batzuetako kasuekin batera, eta horietan landa-izaera geratzen da berriro agerian. Batez besteko azalera eta desbideratze estandarra aintzat hartuta, homogeneousagoak dira, hirikoak baitira, Durangoko eta Amorebieta-Etxanoko etxebizitza-parkeak.

91-120 m²-ko etxebizitzaren ehunekoak handiagoak dira eta, gainera, azalera handiagokoen ehunekoek gora egin dute. Eskakizun handiagoko prozesu hau errenta maila handiagolari lotuta dago nahitaez, eta orokorra da Durangoko Eskualde Egiturako udalerri guztietan.

Etxebizitzarik berrien enregistrorik onenak, bestalde, azalera handiagoaren eta familien batez besteko tamaina txikiagoen eraginezkoak dira, eta ezaugarri horiek ohikoak dira oraingo dinamika soziodemografikoan eta etxebizitza berriak okupatzen dituzten familia berrien oraingo hedapen-fasean.

Pilaketa-indizeek gelako 0,7 pertsonako batez besteko balioa adierazten dute (dentsitatearen adierazle ona), eta horrek Bizkaikoaren eta EAEkoaren antzeko balioak adierazten ditu. 1991ko eta 1996ko datuek konparatuta ikusten denez, lasaiera handiagorako joera dago.

Etxebizitzetako zerbitzuen zuzkiduraren batez besteko maila oso altua da, baina udalerri batzuek egoera azpiestandarrek adierazten dituzte; horrela, komenigarria da birgaitze- edo hobetze-jarduketak garatzea.

Salbuespen urri eta garrantzi txikiko batzuk albo batera utzita, denbora-aldaketak etxebizitzetako erosotasun maila handiagorako joera adierazten du. Ikerturiko eremuko udalerrien balioak, EAEko eta Bizkaiko udalerrien balioen kasuan bezala, *batez besteko* erosotasun mailan daude, baina 1991tik 1996rako progresioa handiagoa da. Aipagarriak dira Durango, Elorrio eta Amorebieta-Etxano udalerrietako balorazio handiak.

Aurri-egoeran dauden eraikinen proportzioa ehuneko 1,1ekoa da; EAEkoa baino handiagoa eta ia Bizkaikoaren bikoitza da.


Eraikitzen ari diren etxebizitzaren proportzioa, izan ere, Bizkaikoa baino ehuneko 50 handiagoa da.

Durango (EAEko proportzioa baino ia bi aldiz handiagoa) eta Amorebieta-Etxano izan ezik, udalerri guztiek lau altueratik beherako eraikinen erabateko nagusitasuna dute. Lau altueratik beherako eraikinen tipologiaren nagusitasuna elementu garrantzitsua da Eskualde Egiturako udalerri askoren paisaian.

Udalerririk gehienetan, lokaltzat erabilitako hutsuneen ehunekoa EAEkoa, Bizkaikoa edo Eskualde Egiturakoa baino nahiko handiagoa da, eta azken horretan, Durangoko udalerriko ehunekoak egiten du konpentsazioa.

Hutsik dauden lokalen proportzioa Bizkaikoa baino ia zortzi puntu handiagoa eta EAEkoa baino hamabi puntu handiagoa da, eta proportzio horiek nahiko handiagoak izaten dira udalerri askotan. Izurtzaren kasuan izan ezik, Eskualde Egiturako gainerako udalerrietan gutxienez lokalen laurdenak hutsik daude.

Lokalek kokalekuaren arabera duten banaketa




*Iturria: EUSTAT. Eraikinen eta lokalen 2000 zentsua. Behin-behineko datuak.
Gauk landuta*

Durangoko Eskualde Egituran etxebizitza Bilbo Metropolitarran baino nahiko merkeagoa da; dena den, horren bilakaeraren ondorioz, aldeak murriztu egin dira, prezioek ehuneko 40ko hazkundea izan baitute azken bost urteotan (Bilbo Metropolitarran ehuneko 25 baino ez).

Inguruko beste Eskualde Egitura batzuei dagokienez, Durangoko Eskualde Egiturako merkatua maila ertainekoa da, bai prezioan eta bai dinamismoan.


Etxebizitza berri askearen prezioek izandako bilakaera (pezetak milatan/m²)



Iturria: Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta.

Erabilitako etxebizitzaren prezioei dagokienez, Bilbo Metropolitarrean prezioek beheranzko joera dute, baina etxebizitzaren merkatuak oraindik ere biztanleria eta jarduerak etorkizunean kokatzeko faktoretzat jarduten du; izan ere, etorkizun hurbil horretan distantzia funtzionalak gero eta laburragoak izango dira, garraioetan eta komunikazioetan egongo diren hobekuntzei esker. Durango prezioen hazkunderik handieneko bigarren Eskualde Egitura da.

Erabilitako etxebizitzaren prezioek izandako bilakaera (milaka pezeta/m²)



Iturria: Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta.

Etxebizitza lortzeko beharrianaren indizea aztertutako eremu guztien artekorik baxuena da eta hori atonia-joeratzat interpretatu ahal da, eskari endogenoari dagokionez.

Aldi honetan babeseko 526 etxebizitza hasi dira, Durangoko Eskualde Egituran; horietatik ia bi heren BOE dira eta gainerakoak zuzeneko sustapeneko Etxebizitza Sozialak.

Aldi horretan babesturiko etxebizitzaren eta 2000ko inkestan adierazitako beharrian subjektiboen arteko erlazioak 0,76ko koefizientea ematen du, eta horrek EAEko batez bestekotik beherako posizioa adierazten du; hori, nolabait ere, bat dator Euskadiko Etxebizitza Zerbitzuan Eskualde Egiturarako dagoen eskabide kopuru urriarekin.

Amaituriko etxebizitzaren zifrak hasitakoenak baino handiagoak dira, eta horrek beheranzko bilakaera adierazten du, halako etxebizitzaren sustapenean. Hori, bestalde, bat dator AAEE guztietan azken hogeitaz gertatutakoarekin.

Merkatuak epe ertainean edo luzean Eskualde Egituran (dimentsio handiko eremua) izango duen joera ezarri nahi izatea ez da zentzuzkoa; izan ere, alderdi ekonomiko orokorrek ez ezik, udalerrien garapen endogenoak ere eragina izango du horretan. Joera, batez ere, eskualde Egitamuk EAEko lurralde-egitura etorkizunean duen eginkizunaren arabera izango da; hain zuzen ere, komunikazio-ardatz nagusien egitura duen posizioaren arabera.

Dinamika demografiko endogenoek ez dute hazkunde handiagorik aurreikusten, etxebizitzaren eskarian, aintzat hartuta horren egituraren bilakaera; dena den, Lurraldea Antolamenduaren Jarraibideetan adierazitakoaren arabera, dirudenez etxebizitza-eskariak gora egingo du, batik bat bizikidetzaren moduetan gertatzen ari diren aldaketan ondorioz. Izan ere, familien batez besteko neurria gero eta txikiagoa izango da, eta, horrekin batera, neurri txikiko tipologia batzuk sortu edo ugaitu egingo dira.

Horrela, segurutzat, biztanleria zahartzearen eta gizartearen jokabide berrien eraginez, pertsona bakarreko etxebizitza kopurua gero eta handiagoa izango da. Horrek, azken batean, programa berriko etxebizitza-eskaria sortuko du, eta, aldi berean, batez bestekotik gorako azalera eta gela kopurua duten etxebizitzaren parkea egokitu beharra eragingo du.

Telekomunikazioen aurrerakuntzak (hurrengo urteotako gizarte- eta ekonomia-bizitzako benetako iraultza) balorazio handia merezi du aztertzen ari garen arloan; izan ere, biztanleria-sistemak, sarritan, ez ditu betetzen jardura ekonomikoaren aukera eta zerbitzu asko agertzeko behar diren gutxiengoko baldintzak.

Komunikazio-sarearekiko lotura onak izateko aukerak itxaropen berriak eta nekez neurtzeko modukoak irekitzen ditu, orain arte ekonomia-garapenetatik kanpo gelditu arren ingurumen-erakarpen handia duten eremuetan, eta hori, jakina denez, egoitzak kokatzearen ondoreetarako, gero eta garrantzi handiagoa duen balioa da.